# HEZKUNTZA INKLUSIBOA EBALUATZEKO ETA HOBETZEKO GIDA

*(Index for inclusion)*

Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz

Euskera



# HEZKUNTZA-ZENTROETAN IKASKUNTZA ETA PARTAIDETZA GARATUZ

## *Index*aren lantaldea:


- Mel Ainscow katedratikoa, Hezkuntza Premietarako Zentroa, University of Manchester
- Kristine Black-Hawkins, ikertzailea, Open University.
- Tony Booth, Hezkuntzaren Ikerketarako Zentroko katedratikoa, Canterbury Christ Church University College
- Chris Goodey, Gurasoen Kontseiluko presidentea, London Borough of Newham
- Janice Howkins, Laguntza Pedagogikorako zuzendaria, Whitmore High School, London Borough of Harrow
- Brigid Jackson-Dooley, Cleves Primary School-eko zuzendaria, London Borough of Newham
- Patricia Potts, ikertzaile-ondokoa, Canterbury Christ Church University College
- Richard Rieser, Inklusiorako irakasle aholkularia, London Borough of Hackney, eta Hezkuntza Premia Berezietako Taldeko kidea
- Judy Sebba, unibertsitateko irakaslea, Hezkuntza Eskola, University of Cambridge.
- Linda Shaw, zuzendarikidea, Hezkuntza Inklusiborako Ikerketa Zentroa.
- Mark Vaughan, zuzendarikidea, Hezkuntza Inklusiborako Ikerketa Zentroa.


## Esker onak


Bereziki eskertu nahi dugu Yola Centre doktorea, Macquarie University-koa, New South Wales, Australia; izan ere, bere lankideekin batera, 1988an *integrazio-gida* bat osatu zuen umeak kontuan banaka hartuta. 1996an, CSIEko Mark Vaughan eta Mel Ainscow Katedratikoaren arteko lehenengo bilera antolatu zen Hezkuntza Premietako Zentroan, University of Manchester, AEBetako Syracuse University-ko lankideekin batera australiar ereduari buruz eta Luanna Meyer-en idazlanari buruz eztabaidatzeko. Ikuspegia, ume bakoitzarentzako gida bat izatetik ikastetxe bakoitzerako gida bat izatera aldatu zen. Era horretan eratu zen *Index*aren lantaldea, eta emaitza, hezkuntza-zentroetarako *Index for Inclusion*-aren lehenengo, bigarren eta azkenik, hirugarren bertsioa izan zen.

Beste askok ere parte hartu dute lan honen garapenean. Bereziki aipatu nahi ditugu Susan Hart, John MacBeath eta Mara Sapon-Shevin.

LEAk (Tokiko Hezkuntza Agintaritzak) bereziki eskertu nahi ditugu, baita *Index*aren proba pilotuetan parte hartu zuten ikastetxeak ere:

## 1997-98:

- Birmingham-eko LEA: Ridpool Primary School and Nursery.
- Harrow-ko LEA: Cannon Lane First School.
- Stockport-eko LEA: Etchells Primary School.
- Tameside-ko LEA: Egerton Park Community High School, Flowery Field Primary School, Two Trees High School.

## 1998-99:

- Birmingham-eko LEA: Acocks Green Junior School, Frankley Community High School, Gilberstone Primary School, Golden Hillock Secondary School.
- Bradford-eko LEA: Beckfoot Grammar School, Buttershaw Upper School, Girlington First School, Scotchman Middle School.
- Harrow-ko LEA: Harrow High School, Hatch End High School, St John Fisher RC First eta Middle School, Welldon Park Middle School.
- Tower Hamlets-eko LEA: Bangabandhu Primary School, George Green's Secondary School, Morpeth Secondary School, Olga Primary School.

# HEZKUNTZA INKLUSIBOA EBALUATZEKO ETA HOBETZEKO GIDA
# *(Index for inclusion)*

## Hezkuntza-zentroetan ikaskuntza eta partaidetza garatzea

*Index* hau hemen dago eskueran:
CSIE
New Redland,
Frenchay Campus,
Coldharbour Lane,
Bristol BS16 1QU, UK
Telefonoa: +44 (0) 117 328 4007; Fax: +44 (0) 117 328 4005

© Copyright CSIE Ltd 2000
ISBN 1 872001 82 3

CSIEk eskola inklusiboari buruzko eta berarekin lotutako alderdiei buruzko edozein informazio eskaintzen du (ikus web orria: http://inclusion.org.uk eta http://csie.org.uk). Bere lana, Nazio Batuen 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean onartutako printzipioetan eta 1994ko UNESCOren Salamancako Ekintza Markoan oinarrituta dago. Zentroa diru-dohaintza ugariei eta fundazioei esker eratu zen, eta diru-sarrera gehigarriak izan zituen argitalpenen eta tokiko hezkuntza-agintaritzen dohaintzen bidez; Gobernu Zentralak ere unean-unean diru-laguntzak ematen zituen proiektu zehatzetarako; adibidez *Index for Inclusion*erako.

CSIE, 327805 Erregistratutako Erakunde Ongilea; 2253521 Konpainia Erregistratua.

### Fotokopiak

CSIE, CEN eta CERek argitalpen hau fotokopiatzera animatzen dute *Index*a hezkuntza-zentroetan erabiltzeko prozesua erraztearren.

# AURKIBIDEA

**ESKERRAK** . . . . . . . . . . 9

**AURKEZPENA** . . . . . . . . . . 11

**HITZAURRE** . . . . . . . . . . 12

**SARRERA** . . . . . . . . . . 15

**1. ZATIA: HEZKUNTZA-ZENTROAK HOBETZEKO IKUSPEGI INKLUSIBO BAT** 17

Sarrera . . . . . . . . . . 19
*Index*aren lan-prozesua . . . . . . . . . . 20
Inklusioari buruzko ikusmoldea *Index*ean . . . . . . . . . . 23
Hezkuntza-zentroek zer espero dezaketen lortzea . . . . . . . . . . 26
Erreferentzia bibliografikoak . . . . . . . . . . 26

**2. ZATIA: *INDEX*AREN LAN-PROZESUA** . . . . . . . . . . 29

1. etapa *Index*aren prozesua hastea . . . . . . . . . . 33
2. etapa Hizkuntza-zentroa aztertzea . . . . . . . . . . 43
3. etapa Orientazio inklusibo batekin ikastetxea hobetzeko plana prestatzea . . . . . . . . . . 49
4. etapa Hobetu beharreko alderdiak ezartzea . . . . . . . . . . 53
5. etapa *Index*aren prozesua ebaluatzea . . . . . . . . . . 57

**3. ZATIA: DIMENTSIOAK, ATALAK, ADIERAZLEAK ETA GALDERAK** . . . . . . . 59

Dimentsioak eta atalak . . . . . . . . . . 61
Adierazleak . . . . . . . . . . 63
Adierazleak eta galderak . . . . . . . . . . 67

**4. ZATIA: GALDE-SORTAK ETA BIBLIOGRAFIA** . . . . . . . . . . 113

# ESKERRAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak biziki eskertzen dio Erresuma Batuko Bristolgo CSIEri *(Centre for Studies on Inclusive Education) Hezkuntza Inklusiboa Ebaluatzeko eta Hobetzeko Gida* hau argitaratzeko eskaini dituen erraztasunengatik. Bere eskerrak zabaltzen die ere *Index*aren egileei, Mel Ainscow eta Tony Booth, eta editoreei, Mark Vaughan eta Linda Shaw.

Era berean, esker hauek Consorcio Universitario para la Educación Inclusiva-ri (*) zabaldu nahi dizkiogu elebidunezko bertsio hau argitaratu ahal izateko eskaini digun laguntzagatik, bere gaztelerazko bertsio euskarazko bertsioa egokitzeko oinarritzat hartu dugularik; Hegoamerika eta Kariberako UNESCOko Hezkuntzarako Tokiko Bulegoko arduraduna den Ana Luisa Lópezi; Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasleak diren Gerardo Echeita eta Marta Sandoval-i; Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasleak diren David Durán eta Esther Miquel-i ; Ramon Llull Unibertsitateko irakaslea den Climent Giné-ri; Leganéseko Irakaslegoari Laguntzeko Zentroko Sebastián Moratalla-ri, eta elebidunezko bertsio honen arduradunak diren Rafael Mendía Gallardo-ri, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren Heziketa Premia Berezietarako aholkularia, eta Zarauzko Berritzeguneko Heziketa Premia Berezietarako aholkularia den Carlos Ruiz Amador.

Era berean, gure eskerrak eman nahi dizkiegu material hauek aztertu eta frogan jarri dituzten ikastetxeei, beraien iruzkinak oso balioagarriak izan baitira: Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai eta Zarauzko La Salle San Jose ikastetxea.

( * ) Hezkuntza Inklusiborako Unibertsitate Elkartea irakasleek osatutako talde irekia da, eta Espainiar Estatuan hezkuntza inklusiboaren ezagupena sustatu eta garatu nahi dute. Xede horrekin, gure lehenengo jarduera Tony Booth-en eta Mel Ainscow-ren lan hau itzuli, egokitu eta zabaltzea izan da.

*Harremanak:*
Gerardo Echeita. Dpto. de Psicología Evolutiva y de la Educación. Facultad de Formación de Profesorado y Educación. Bulegoa: 309. II. Modulua. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. Ciudad Universitaria de Cantoblanco. Madril 28049. E-posta: gerardo.echeita@uam.es

# AURKEZPENA

Argitaratzera goazen *Hezkuntza inklusiboaren ebaluazioa eta hobekuntzarako gida (Index for inclusion)* testu guztiz praktikoa da. Ikas-irakas prozesuen jarraipeneko hobekuntza prozesua garatzeko pauso sorta bat aurkezten duena, ikuspegi inklusibo batetik eta era ezberdinetatik. Itinerarioa, eskola bakoitza, bere beharren arabera, moldatzeko ekintza plan baten bihurtuko duena.

Gida hau hezkuntza komunitate inklusiboen eraketarako baliagarria izateko jaioa da eta Hezkuntza Sailak antolatutako Eskola Inklusiboaren Jardunaldietako, 2003an Donostiako Kursaalean ospatutako ondorio zuzena izan nahi du, ikuspegi inklusibo baten aritik irakaslegoaren animatzailea eta suspertzailea izan dadin.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailak duela hogei urtetik gora eskola inklusibo baten alde apustu egin du, Euskadiko haur guztiek txikitatik sarrera izan dezaten gure eskolan, ez horrela administratiboki soilik, baizik eta erabatekoa, non haurrak eta haien gurasoak beren osotasunean onartuko dituzten eskolako irakasleek, beste haurrek eta eskolako edozein langilek.

Euskal Eskolak edozein proposamen, zein esperientzi proposatuko ditu testuingurua lantzeko eta aberasteko, ekitatea eta laguntzak nagusi daitezen abiapuntu okerragoa izan dutenentzat,bai arrazagatik zein kulturalki edota premia bereziak izateagatik. Norberaren esperientziagatik eta beste esperientziei esker guztiontzako eskola eraikitzailea izan nahi du, guztien artean egindakoa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik, lehentasunez, animatu nahi ditugu bide honetatik, guztiona eta guztiontzat den eskola baten ildotik bai Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiak.

**ANJELES IZTUETA AZKUE**
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailburua

# *Index for inclusion* Euskal Herrirako bertsio elebidunaren HITZAURRE

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Sailaren 2003-2006rako Hezkuntza Berriztatzeko Programak-en barruan 1. lehentasunezko ildoa *Eskola Inklusiborantz* da.

Lehentasunezko ildo hau sustatuz, bost dira garatu nahi diren helburuak:

1. Hezkuntza-politika kalitateko eta zuzentasuneko ikuspegi inklusibotik bideratzea.

2. Eskola kokatzen den ingurumeneko giza eta hezkuntza komunitatearen zuzentasunean, barnehartzean eta elkarbizitza demokratikoan oinarritzen diren hezkuntza eta curriculum-proiektuak sustatzea.

3. Eskola inklusiboa garatzea. Garatu beharreko eskola inklusibo horretan, eskolarako laguntza sistema horrek gehitu egingo du ikastetxeek ikasleen aniztasunari arrakastaz erantzuteko duten ahalmena.

4. Ikasgelako eta eskolaz kanpoko jardunek ikasle guztiak parte hartzera bideratu eta sustatzea.

5. Ikas-irakasteko prozesuetan ikasleen parte-hartzea sustatzea, horretan eskolako baliabideak eta komunitatea inplikatuz, eta IKTek eskeintzen dituzten aukerak bultzatuz.

Bost Helburu hauek bost programatan zehazten dira; hauen bitartez *eskola inklusiborantz* hobetze prozesuetan aurrera joatea da helburu.

1. Kultura arteko hezkuntza.
2. Bizitzarako ezagutza eta trebetasunerako hezkuntza.
3. Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza.
4. Parekotasunerako hezkuntza ingurume kaltetuetan.
5. Hezkuntza premia berezietan ikaskuntza oztopoak gainditzeko hezkuntza.

## Kulturarteko hezkuntza

Gure erkidegora gero eta etorkin gehiago iristeak eta gure lurraldean hainbat mendetatik bizi diren gutxiengo kulturalak egoteak erronka berriak planteatzen dizkio gure hezkuntza-sistemari. Horrez gain, hezkuntza berriztatzeko ildoak jarri behar dira abian, eta eskola kultur arteko dimentsiorako nola prestatuko den jorratu behar da. Horren bitartez, kultur pluraltasuna hain nabaria den mundu batean ikasle guztiak aurrera egiteko nola prestatu behar diren aztertuko da. Dena den, lehentasunez euskal kulturaren berezko balioak garatuko dira.

Aurkibidea



Horretarako, ikastetxe berean lanean diharduten, eremu ezberdineko profesionalen laguntza eta koordinazioa lortu nahi da, gutxiengo etniko eta kulturalak, eta ikaslego etorkinaren harrerarako. Baita ere, aurreikusten dira, Hezkuntza Berrikuntza deialdietan, Hezkuntza eta Kurrikula Proiektuen garapena, denontzako eskolaren ildotik, ikaslegoari inkusiboki erantzungo diona, eta kulturarteko hezkuntza inklusiboari buruzko laguntza tresnak argitaratu eta zabalduko duena.

## Bizitzarako ezagutza eta trebetasunerako hezkuntza

Eskolaren helburu garrantzitsuena ikaslegoa (behar berezidun eta gutxitua barne) oinarriko trebetasunak lortzea da, eta, hori lortzeko, ikaskuntza erakargarriagoa izan dadin eredu berriak bilatu beharko lituzke, hezkuntza eta heziketa sistema arautuez kanpo, denontzako den ikaskuntza kultura bultzatuz, eta partaideen ardura, ikasketaren giza eta praktika onuraz, hobetuz.

Denontzako hezkuntza helburu duen programa batek, bere ekintzen artean, jarrera baikorra garatu eta, gaur egun gizakiaren oinarrizko erronkei aurre egingo dioten, pertsonen heziketaz arduratu behar da: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; osasuna; ingurumenaren babesa; kontsumo egokia eta jasankorra; gizatasuna eta partaidetzaren garapena, talde-lana; pertsonen arteko harremanen hobekuntza; giza eta ikas elkartasunean, zein giza bolondresen laguntza.

Modu berean, Hezkuntza Berrikuntzako deialdietan aurreikusi nahi dira honako gaien arteko proiektuak: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; osasunerako hezi, heziketa afektibo sexuala, drogomenpetasunen prebentzioa, errepide heziketa, eta, hezkuntza inklusiboaren dimentsiotik, euskal hezkuntza sistemaren pertsona, heziketa eta lan orientazioaren eremu berria finkatu.

## Elkarbizitza eta bakerako heziketa

Hezkuntza sistemaren ardura demokrazia zentzudun pertsonak hezitzea da. Ondorioz, eguneroko eskola lanak birplanteatuz kanpo, zuzenean hezitu behar da eremu hauetan: giza-eskubideak, justizia, edozein diskriminazioaren aurka, estereotipoen aurka, bestearen onarpena, kulturartekotasuna, ahulenekiko elkartasuna...

Programa honetan proposamen hau luzatzen da: gatazken bilakaera estrategiak frogatzea; gela eta beste inguruetan elkarbizitzeko elkarrizketa eta elkarrekiko errespetua jorratzea eskola inklusiboaren ikuspegitik; irakaskideen partaidetza eta inplikazioa bultzatzea irakas-ikasketa eta elkarbizitza prozesuak hobetzea eta eskola berean diharduten eremu ezberdineko profesionalen koordinazioa eta kolaborazioa eremuak sortzea.

Elkarbizitzeko eta gatazken bilakaerarako estrategiak gelan eta beste eremuetan frogatzea planteatzen da, bertan, eskola inklusiboaren ikuspegitik, elkarrizketa eta elkarrekiko errespetua bultzatuz, ikuspegi beretik, elkarbizitza batzordeak eta partaidetza eta bitartekaritza beste organuen funtzionamendua berrikusiko delarik.

## Parekotasunerako hezkuntza ingurume kaltetuetan

Giza bazterketaren arazoa hezkuntzaren eremua gainditu arren, eskolak egoera hau irauten lagun lezake eskola porrota horretarako bitartekaria izanik, edo, bestalde, egoera gainditzen lagun dezake. Horretarako ez da nahikoa ikaslegoarengan bakarrik zentratzea, orain arte egin den bezala, hezkuntzaren eremu guztietan enfasi eginaz baizik.

Aipamen berezia mereziko dituzte ikastetxeetan parte hartze proiektu orokorrak, Haur eta Lehen Hezkuntzan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hauen artean: parte hartzearen eredu zehatzak indartzea; hots, *Ikaskuntza Komunitateak*. Horrela eskatuko lituzkeen ikastetxeetan erreflexio prozesoak bultzatuko dira eta *Ikaskuntza Komunitate*en (edo an-

tzekoak) sarea bultzatuko da, heziketa eredu egokiak bateratu eta lagungarria izan dezan horrelako ekintzetan.

Baita ere, garrantzitsua da inguru gutxituetako ikaslegoa jasotzen duten ikastetxeetako lan ohituren hobekuntza prozesuak bultzatzea, irakaslegoaren koordinazioa bultzatuz, bai beraien artean, baita irakaskuntzan eragina dutenekiko, ikastetxe barnean, heziketa ohiturak aberasteko sortu daitezken elkarte eta bolondresei lagunduz.

Familien harrera eta berauen seme-alaben heziketara loturiko helburua duten ekimenen garapena izan daiteke beste estrategia bat eremu gutxituan izaten den heziketaren ardura banatzeko.

## Hezkuntza premia berezietan ikaskuntza-oztopoak gainditzeko hezkuntza

Kalitatezko Euskal Eskolaren ezaugarri nagusietako bat hezkuntza inklusiboa da.

Laguntza premia berezien ikasketa mugak gaindituko duen hezkuntza nahiko duen Hezkuntza Berrieztapen programa batek, eskolak premia berezidun ikaslearen ikastea eta partaidetzari oztopoak jartzen dituen oztopoak gaindituko dituen kurrikula eta heziketa proiektoak bultzatuko ditu; hezkuntza ohitura egokiak bateratuko dituen ikastetxe inklusiboen sareak sortuko ditu; hezkuntza kideen koordinazioa oztopoak gainditzeko bultzatuko du eta ikaslego osoaren bateraketaren aldeko familia mugimenduak bultzatuko ditu.

**KONRADO MUGERTZA URKIDI**
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria

# SARRERA

*Index*a[1] gure ikastetxeetan hezkuntza inklusiboa garatzen errazteko diseinatutako material-multzoa da. Helburua da ikasle guztien artean lorpen-maila altuak sustatzen dituzten lankidetzazko eskola-komunitateak eraikitzea.

*Index*aren bidezko prozesua, berez, laguntza erabakigarria da helburu hori lortzeko. Izan ere, material honek irakasleak lehenagoko ezagutzetan oinarrituz ekimen berriak konpartitu eta eraikitzera animatzen ditu, eta gainera, euren ikastetxeetan ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza handitzeko dauden aukera errealak xehetasunez balioesten laguntzen die.

*Index*a ikastetxeen autoebaluazio-prozesu bat da, hiru dimentsiotan eratua: hezkuntza inklusiboaren kultura, politika eta praktikak. Prozesu honek hezkuntza-zentroen garapen-fase batzuetan aurrera egitea dakar. Koordinazio-talde bat antolatuz hasten da. Talde horrek irakasleekin, eskola-kontseiluko kideekin, ikasleekin eta familiekin lan egingo du hezkuntza-zentroari buruzko alderdi guztiak aztertuz, ikaskuntzarako zein partaidetzarako trabak identifikatuz eta garapen eta mantenimendu-faseetarako zein aurrerapenen jarraipenerako lehentasunak definituz.

Proposatzen den ikerketa-ekintza, hots, jarduneko saiakuntza, adierazle eta galdera zehatzetan oinarritzen da, eta horietatik abiatuz, hezkuntza-zentroak konpromisoa hartu behar du uneko egoerari eta inklusio handiago baterako etorkizuneko aukerei buruzko azterketa bat egiteko.

[1] Kontuan izan behar da dokumentu honetan *Index* izena bi zentzutan erabiliko dela: batzuetan, hezkuntza-zentroetan inklusioa hobetzeko prozesu orokorra izendatzeko, eta beste batzuetan, esklusiban hemen aurkezten den material-multzoa aditzera emateko. Bestalde, positiboa iruditu zaigu *Index* izenari eustea, bere latinezko esanahi ugariak (*katalogo, zerrenda, erregistro,* baita *salatari* ere) oso adierazgarriak baitira lan honen zentzuari dagokionez, eta aldi berean, balio digu lan hori Erresuma Batuan ezaguna bilakatzeko erabili den izenari eusteko *(Index for inclusion).*

1. zatia

# HEZKUNTZA-ZENTROAK HOBETZEKO IKUSPEGI INKLUSIBO BAT


Sarrera • 19

*Index*aren lan-prozesua • 20

Inklusioari buruzko ikusmoldea *Index*ean • 23

Hezkuntza-zentroek zer espero dezaketen lortzea • 26

Erreferentzia bibliografikoak • 26






**Sarrera**
Materialaren erabilera

***Index*aren lan-prozesua**
Dimentsioak, adierazleak eta galderak
*Laguntza*ren definizioa *Index*ean

**Inklusioari buruzko ikusmoldea *Index*ean**
Inklusiorako lengoaia bat garatzea
Ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak
Ikaskuntzarako zailtasunei eta ezgaitasunei buruzko eredu soziala

**Hezkuntza-zentroek zer espero dezaketen lortzea**

**Erreferentzia bibliografikoak**

1. zatia

# HEZKUNTZA-ZENTROAK[2] HOBETZEKO IKUSPEGI INKLUSIBO BAT

## SARRERA

*Index*a eskola inklusiboetarantz aurreratzeko prozesuan hezkuntza-zentroei[2] laguntzeko diseinatutako material-multzoa da, eta bertan, irakasleen, eskola-kontseiluaren, ikasleen[3], familien eta komunitateko beste kide batzuen ikuspuntuak kontuan hartzen dira.

Material horien bidez hezkuntza-lorpenak hobetu nahi dira praktika inklusiboak erabiliz. *Index*aren bidezko prozesua, berez, laguntza erabakigarria da helburu hori lortzeko. Izan ere, irakasleak animatu egiten ditu aurretiko ezagutzetan oinarrituz ekimen berriak konpartitu eta eraikitzera, eta gainera, euren ikastetxeetan ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza handitzeko dauden aukerei buruzko azterketa zorrotz bat egiten laguntzen die.

Nabarmendu behar da material horiek ezin direla hartu «hezkuntza-zentroentzako beste ekimen bat» bezala; aldiz, hezkuntza-zentroa hobetzeko plan batekin konprometitzeko era sistematiko moduan hartu behar da, aldaketarako lehentasunak ezarriz, berriztapenak burutuz eta aurrerapenak ebaluatuz.

*Index*a hiru urtean prestatu du irakasle- zein guraso-talde batek, eskola-kontseiluetako hainbat kidek, ikertzaileek eta ezgaitasunen inguruko elkarteetako ordezkari batek (lan egiteko era inklusiboagoetarako ekimenetan esperientzia zabalekoa). *Index*aren lehenengo bertsioarekin, proba pilotu bat egin zen Ingalaterrako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako sei ikastetxetan, 1997-1998 ikasturtean, *Centre for Studies on Inclusive Education*-en (CSIE-ren) finantzaketari esker. Proposamen horrek lagundu egin zien ikastetxe horiei konturatzen inklusioak zuen zentzuaz, baita hezkuntza-faktoretan murgiltzen ere; izan ere, bestela horiek ohartezinak izango ziren.

Esperientzia horrek bultzatuta, *Index*aren bigarren bertsioa prestatu zen. Bertsio hori ikerketa-ekintza programa zehatz baten bidez ebaluatu zen, eta Irakasleen Prestakuntzarako Agentziak finantzatu zuen Ingalaterrako lau LEAtako (Tokiko Hezkuntza Agintaritzetako) 17 ikastetxetan, 1998-1999 ikasturtean. Ikastetxe horietan egindako lana, bertsio honetan ematen diren ideiak eta materialak sortzeko erabili zen *Department for Education and Employment*-en (Hezkuntza eta Lan Sailaren) finantzaketaren laguntza izan zuen, Lehen zein Bigarren Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian egindako doako banaketa eta bereziki, Ingalaterrako Hezkuntzaren lurralde-administrazio guztietara egindakoa barne.

[2] Dokumentuan, *hezkuntza-zentroak*, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak adierazten du.
[3] Dokumentu osoan *ikasleak* izena erabiltzen da umeak eta nerabeak aditzera emateko, euren adina eta generoa zein den ere.

## Materialaren erabilera

Materiala era askotan erabil daiteke, baina *Index* honetan aurkeztutako eta 2. zatian deskribatutako prozesuan, hezkuntza-zentroetan erabilia izateko asmoz prestatu zen batez ere. Toki batzuetan, ikastetxeak lankidetzan arituko dira elkarrekin eta betiere era askotako aholkularitza-zerbitzu eta -taldeen laguntzaz. Materialen alderdi batzuk irakasle-taldeentzat, edo eskola-kontseiluko kideentzat lanerako oinarri moduan erabil daitezke. Hartara, hezkuntza inklusiboari buruzko kontzientzia piztu nahi da, eta era horretan, geroago konpromiso handiago batera irits daiteke material hauekin. Gainera, *Index*a hezkuntza-zentroetan banakoei eta taldeei buruzko ikerketak egituratzeko erabil daiteke.

Adierazi nahi dugu baita ere nahiko genukeela hezkuntza inklusiboari buruzko hausnarketa sustatzeko eta ikasleek kulturan, curriculumetan eta hezkuntza-komunitatean partaidetza handiagoa izatea eragiteko materialez egiten den beste edozein motatako erabileraren berri izatea[4].

## *INDEX*AREN LAN-PROZESUA

2. zatiak, *Index*ak proposatutako elkarlana garatzeko bost etapatako prozesu bat aurkezten du.

1. koadroan *Index*aren prozesuaren eta ikastetxea hobetzeko planaren inguruko lan ziklikoaren artean dagoen lotura erakusten da. Lehenengo etapa, hasten da hobetzeko planaren arduraduna den lantaldeak koordinazio-talde bat eratzen duenean. Talde horretako kideek elkar informatzen dute, eta geroago, *Index*eko kontzeptuei, materialei eta hezkuntza-komunitateko kide guztien iritziak biltzeko metodologiari buruzko informazio hori gainontzeko irakasleei pasatzen diete.

Bigarren etapan, materialak hezkuntza-zentroa aztertzeko oinarritzat erabiltzen dira, baita burutu nahi diren lehentasunak identifikatzeko ere.

Hirugarren fasean, hobetzeko plan bat prestatzen da, 2. etapan identifikatutako helburu inklusiboak eta berariazko lehentasunak bilduz.

Laugarren etapan, berriz, berriztapenak ezarri eta lagundu egiten dira, eta azkenik, 5. etapan, *prozesu inklusiboaren* aurrerapena ebaluatu da kultura, politika eta praktika inklusiboen inguruan.

**1. KOADROA. *INDEX*AREN PROZESUA ETA IKASTETXEA HOBETZEKO PLANGINTZA-ZIKLOA**




4 Espainiar Estatuaren testuinguruan, zein Euskal Herikoan ere, uste dugu *Index*ak balio dezakeela ikasleen premien arabera hezkuntza-aukera anitzagoa sustatzeko eta aukera hori hobetzeko, baita zentroetako prestakuntza errazteko, prestakuntza-, aholkularitza- edo ikerketa-ekintzazko ekintzen inguruko ideiak iradokitzeko, zentroen barne-ebaluazioa osatzeko eta aniztasunaren edo hezkuntza-kalitatearen aldeko elementu praktikoak sortzeko ere.

Hala ere, *Index*ak ez du esan nahi soilik pixkanakako aldaketa-prozesu baten plangintza arduratsua egitea, hezkuntza-berriztapeneko beste ekimen batzuetan hartzen dena bezalakoa; aldiz, *Index*aren helburua kulturan eta balioetan ere aldaketak eragitea da, irakasleek eta ikasleek praktika inklusiboak har ditzaten, edozein berariazko lehentasuna jakinetatik haratago. Laguntza egokiaren bidez, *Index*aren inguruko edozein lan-prozesuk bultzada berri bat gehi diezaioke hezkuntza-zentroen berriztapen zikloari.

## Dimentsioak, adierazleak eta galderak

Lehenago aipatu bezala, inklusioa eta bazterketa, ikastetxeen bizitzan elkarren artean lotzen diren hiru dimentsioren bidez aztertzen dira: ikastetxearen kultura, politika eta praktika (ikus 2. koadroa)[5].

Hautatutako dimentsioak, hezkuntza-zentroetan planteatu beharko liratekeen aldaketei buruzko hausnarketaren gida izatea nahi da; izan ere, urte luzeetan, gutxi erreparatu zaio ikastetxeen kulturaren ahalmenari, nahiz eta irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren aurrerapenean lagundu edo berau kaltetu dezakeen faktorea izan. Hezkuntza-zentroen kulturari esker, politiketan eta praktiketan aldaketak gertatzen dira eta horiek mantendu eta hezkuntza-komunitateko kide berriei transmititu ahal zaizkie.

**2. KOADROA. *INDEX*EKO DIMENTSIOAK**

### A dimentsioa: KULTURA inklusiboak sortzea

Dimentsio honen xedea da komunitate seguru, abegikor, lankidetzazko eta estimulagarria sortzea norbanako bakoitza balioetsia izan dadin, hori baita ikasleek lorpen-maila handiagoak edukitzeko modua. Irakasle, ikasle, eskola-kontseiluko kide eta familia guztiek konpartitutako inklusio-balioak garatu nahi dira. Eskola-kultura horretatik eratorritako printzipioak dira ikastetxe bakoitzeko eta eguneroko erabakiak hartzeko gida. Era horretan, guztion ikasketak laguntza aurkitzen du hezkuntza berriztatzeko prozesu etengabean.

### B dimentsioa: POLITIKA inklusiboak lantzea

Dimentsio honen bidez, ziurtatu nahi da inklusioa berriztapen-prozesuaren bihotzean egotea, politika guztiak zipriztinduz, hartara ikasle guztien ikasketa eta partaidetza hobetu dadin. Testuinguru honetan, «laguntzatzat» jotzen dira hezkuntza-zentroak ikasleen aniztasuna zaintzeko gaitasuna handitzen duten jarduera guztiak. Laguntza-modalitate guztiak marko bakar batean biltzen dira, eta ikasleen garapenaren ikuspegitik antzematen zaie batez ere, ikastetxearen edo egitura administratiboen ikuspegitik antzematen bazaie ere.

### C dimentsioa: PRAKTIKA inklusiboak garatzea

Dimentsio honen bidez bilatzen da ikastetxeetako praktikek kultura eta politika inklusiboen isla izatea. Ziurtatu nahi da ikasgelako eta eskolaz kanpoko jarduerek ikasle guztien partaidetza eragiten dutela eta ikasleen eskola-inguruneaz kanpoko ezagutza eta esperientzia kontuan hartzen direla. Irakasletza eta laguntzak integratu egiten dira ikasketarako eta partaidetzarako trabak gainditzeko modua ematen duen ikaskuntza prestatzeko. Langileek hezkuntza-zentroaren eta tokiko komunitateen baliabideak mobilizatzen dituzte guztion ikaskuntza aktiboari eusteko.

Dokumentu honetan, hiru dimentsio horiek ordena jakin batean agertuko diren arren, garrantzi berekotzat jo behar dira ikastetxean inklusioa garatzeko orduan. Irudika daitezke triangelu aldekide bateko aldeak balira bezala (ikus 3. Koadroa).

---

[5] Gure ustez, lehenengo bi dimentsioen zentzua (Kultura eta Politika), bat dator neurri handi batean gaur egungo gure hezkuntza-sisteman Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuek (Kultura) eta Etapako Curriculum Proiektuek (Politika) duten zentzu eta xedearekin.

**3. KOADROA. *INDEX*AREN HIRU DIMENTSIOAK**




Dimentsio bakoitza bi ataletan banatzen da, eta horien ardatza jarduera-multzo bat da, ikastetxeek horien gaineko konpromisoa hartu behar dutelarik era horretan ikaskuntza eta partaidetza hobetzen joateko (ikus 4. koadroa).

**4. KOADROA. DIMENTSIOAK ETA ATALAK**

**A dimentsioa: KULTURA inklusiboa sortzea**
1. Komunitatea eraikitzea
2. Inklusio-balioak ezartzea

**B dimentsioa: POLITIKA inklusiboak lantzea**
1. Guztiontzako eskola garatzea
2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

**C dimentsioa: PRAKTIKA inklusiboak garatzea**
1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea
2. Baliabideak mobilizatzea

Dimentsio eta atal horiek hezkuntza-zentroa hobetzeko plana egituratzeko eta berarentzako epigrafe nagusi izateko erabil daitezke. Atal baten izenburuaren esanahia berehala ulertzen ez bada, aholkatzen da dimentsioei buruz egin dugun deskribapen laburra berriro irakurtzea. Atal bakoitzak adierazle batzuk ditu, hamabi goitik jota, eta horietako bakoitzaren esanahia galdera-sorta baten bidez zehazten da. Dimentsioak, atalak, adierazleak eta galderak pixkanaka mapa zehatzago bat osatzen doaz, une horretan ikastetxearen egoera aztertzeko gida moduan, eta etorkizunean ekintzei heltzeko aukerak zehazten dituzte. (Dimentsioak, adierazleak eta galderak material hauen 3. zatian aurkeztuko dira bertsio osoan).

Garrantzitsua da gogoratzea dimentsioak aldi berean gertatzen direla, izan ere, eskola-kulturako aurrerapenek aldi berean eskatzen dute politikak formulatzeko eta praktikak ezartzeko. Hala ere, ahalegindu gara adierazle eta galderen bikoizketa saihesten, eta horrenbestez, gai bakoitza, eragin handiena izan dezakeen atalean kokatzen da. Lehentasunak ezartzeko eta zentroan aldaketak sustatzeko orduan, aldiberekotasun hori kontuan eduki behar da, eta ona izango litzateke kontuan hartzea dimentsio bati lotutako lehentasun jakin batekin beste batzuetan aldaketak eragingo dituela.

Adierazleak zentroaren egoera konparagai duten «asmoen» formalizazio bat dira, eta era horretan, hobetzeko lehentasunak ezartzen dira. Hezkuntza-zentro batzuetan, irakasleek eta eskola-kontseiluko kideek erabaki dezakete gaur-gaurkoz ez dutela konpromisorik hartu nahi adierazle jakin batzuekin, edo horiek ez dutela adierazten hartu nahi duten bidearen noranzkoa. Horren inguruan, adierazi behar dugu guk uste eta espero dugula zentroek zenbait eratan erantzungo dutela eta materialak euren beharrizanetara egokituko dituztela. Hala ere, halaber uste dugu zentroek hobetze aldera egiteak esan nahi duela indarrean dauden lan egiteko modalitateak auzitan jartzen direla.

Adierazle bakoitzarekin lotutako auziek lagundu egiten dute euren esanahia definitzen, eta era horretan, zentroak bultzatuta sentitzen dira xehetasunez definitzera. Adierazle horiek hainbat funtzio betetzen dituzte aldi berean. Zentroan, lantaldeen hausnarketa bultzatzeko eta zentroaren funtzionamenduari buruz aurretiaz duten ezagutza argitzeko balio dezakete. Hala, burutu nahi izango liratekeen ikerketa-prozesuak eratu ditzakete edo aurrerapenak ebaluatzeko irizpide izateko balio dezakete. Ezin da ahaztu *Index*aren erabileraren ezinbesteko zati bat hezkuntza-zentroaren funtzionamenduari eta bertan dauden ikaskuntzarako trabei buruzko informazioaren elkartrukea dela. Garrantzitsua da adieraztea, bestalde, *Index*arekin egindako lanak ez dituela gutxietsi nahi beharbada hezkuntza-zentroan jada ondo artikulatuta dauden konponbideak, kontrakoa baizik: ahal den neurrian horiek gehiago nabarmentzen saiatuko da.

Badira adierazle batzuk aplikatzen ez diren zentro batzuk ere, adibidez neskak eta mutilak bereizita dituzten zentroak; edo hezkuntza-zentro erlijiosoak, ez baitituzte onartzen euren herrian bestelako erlijio-sinismena duten ikasleak. Dena den, muga horiek egonda ere, zentro horiek gehienetan ikastetxea hobetzeko plan bat egiteko prest egoten dira, eta horrenbestez, adierazleak eta galderak euren helburu eta ezaugarrietara egokitu egingo dituzte.

Beste adierazle eta galdera batzuk hezkuntza-administrazioen erantzukizuna diren alderdiei buruzkoak dira; adibidez, eraikinetara sartzeko erraztasuna ( irisgarritasuna) edo ikasleak onartzeko politikak. Jakina, gure intentzioa da material hauekin egindako lanak ikastetxeen eta administrazioaren lankidetza eraikitzailea erraztea, premia berezietako ikasleei atentzio hobea emateko eta herri bakoitzeko zentroetan partaidetza sustatuko duten ikasleak onartzeko politikak eratzeko.

## *Laguntza*ren definizioa *Index*ean

B dimentsioan, ikusmolde inklusibo batetik, *laguntzatzat* edo *laguntza pedagogikotzat* jotzen dira «ikastetxe batek ikasleen aniztasuna atenditzeko/zaintzeko duen gaitasuna handitzen duten jarduera guztiak». Ikasle jakin batzuei banakako laguntza ematea, ikaskuntzaren edukiak ikasle guztiengana zabaltzen lortzeko moduetako bat baino ez da. *Laguntza* eskaintzen zaie halaber, adibidez, irakasleek unitate didaktikoetan era askotako abiapuntu eta ikaskuntza-estiloak programatzen dituztenean, edo elkarlaneko metodologiak planteatzen direnean; esaterako, kidekoen arteko tutoretzak. Laguntza, orduan, ikaskuntzaren zati integrala da, eta hori C dimentsioan geratzen da agerian, *ikaskuntza prestatzearen* ideian.

Koordinazioaren erantzukizunik handiena pertsona kopuru txiki batek edukiko duen arren, zentroko langile guztiek egon behar dute laguntza-jardueretan sartuta.

# INKLUSIOARI BURUZKO IKUSMOLDEA *INDEX*EAN

*Index*a, Australia eta Ipar Amerikako ikertzaileek lehenago egindako lanetan oinarrituta dago. Eurek gida-sail bat sortu zuten Hezkuntza Premia Berezietako (HPBetako) ikasleen artean inklusioaren kalitatea ebaluatu ahal izateko (ikus 1. eta 2. erreferentzia bibliografikoak). Lehenagoko ekimen horiek ez bezala, *Index*ak eskola-bizitzako alderdi guztiak hartzen ditu aztergai eta hezkuntza-komunitateetako kide guztien partaidetzaz arduratzen da.

Gure lanean, inklusioa lotuta dago ikastetxeek ikasleak baztertzeko edo zokoratzeko izan ditzaketen forma guztien azterketa zorrotz batekin. Maiz gertatzen da itxuraz arrakasta izan

duten zentro batzuek (HPBetako ikasleak onartzen dituztenak) aldi berean beste ikasle-talde batzuen partaidetza ekiditen dutela. Gainera, talde hain zabal eta anitza den HPBetako ikasleen inklusioak, hobera egiten du zentroek aniztasunaren alderdi guztiei heltzen saiatzen diren kasuetan.

Batzuetan uste da inklusioak batez ere zerikusia duela zentro arruntetatik kanpo zeuden ikasle batzuen mugimendu batekin, eta orain nahi dena ikasle horiek barne hartzea dela. Halaber, pentsatzen da ikasleak «inklusioan» daudela zentro arruntean dauden une beretik.

Hala ere, gure iritziz inklusioa amaierarik gabeko prozesu-multzoa da. Halaber, aldaketak hartu behar duen norabidearen zehaztapena da. Horregatik da adierazgarria edozein hezkuntza-zentrorentzat, zentro horien kulturak, politikak eta praktikak zenbateraino diren inklusibo edo baztertzaile beste kontua izanik. Inklusiorako, hezkuntza-zentroek, ikasle guztiek ikaskuntza eta zentroan zein herrian duten partaidetza hobetzeko azterketa kritikoa egiteko konpromisoa hartu behar dute.

5. koadroan, *Index*ean inklusioari buruz hartu dugun ikuspegiaren elementu batzuk aurkezten dira. Horiek, eztabaidarako abiapuntu moduan erabil daitezke. Konbentzituta gaude irakasleek eta hezkuntza-zentroko gainontzeko profesionalek inklusioaren ikusmoldeari buruz sakonduz joan behar dutela, eta aldi berean, lanari ekin *Index*eko materialak erabiliz.

**5. koadroa. Hezkuntza inklusiboa**

- Hezkuntza inklusiborako, ikasleen partaidetza handitzeko eta bazterketa gutxitzeko prozesuak behar dira kulturan, curriculumetan eta herriko hezkuntza-komunitateetan.
- Inklusiorako, hezkuntza-zentroen kulturak, politikak eta praktikak berregituratu behar dira herriko ikasleen aniztasuna zaindu ahal izateko.
- Inklusioa, baztertuak izan daitezkeen ikasle guztien ikasketa eta partaidetzari buruzkoa da, eta ez soilik urritasunak dituztenei edo *hezkuntza premia berezikotzat* jotzen direnei buruzkoa.
- Inklusioa ikastetxeak hobetzeari buruzko zerbait da, hala irakasleentzat nola ikasleentzat.
- Irisgarritasunerako eta, zehazki, partaidetzarako trabak gainditzeko kezkak, baliagarriak izan daitezke zentroak ikasleen aniztasuna zaintzeko dituen muga orokorragoak azaleratzeko.
- Ikasle guztiek dute eskubidea euren herrian hezkuntza jasotzeko.
- Aniztasuna ez da konpondu beharreko arazotzat jotzen, guztion ikasketaren lagungarria den aberastasuntzat baizik.
- Inklusioa, ikastetxeen eta ikastetxe horien komunitateen arteko harremana sendotzeari buruzkoa da.
- Hezkuntza inklusiboa gizarte inklusiboaren alderdi bat da.

## Inklusiorako lengoaia bat garatzea

*Inklusioa* edo *hezkuntza inklusiboa* ez da *Hezkuntza Premia Berezietako Ikasleak* (HPBak) integratzeari ematen zaion beste izen bat. Aldiz, eskatzen du zentroetan agertzen diren zailtasunak identifikatzen eta konpontzen saiatzeko bestelako ikusmolde bat edukitzea. Dokumentu honetan ez da erabiltzen *hezkuntza premia bereziak* kontzeptua, uste dugulako berekin daraman ikusmoldeak mugak dituela hezkuntzako zailtasunak konpontzeko eredu moduan, eta beraz, traba izan daitekeela hezkuntza-zentroetan praktika inklusiboak garatzeko orduan.

Horren arrazoia da ikasle bati HPB *etiketa* jartzen zaionean irakasleek hari buruz duten espektatiba jaitsi egiten dela. Gainera, horrelako praktikaren arretagunea «etiketa» hori daramaten ikasleen zailtasunak dira ia soilik, eta hartara, beste ikasle batzuek izan ditzaketen zailtasunei buruzko arreta desbideratu egiten da. Bestalde, indartu egiten du irakasleek *hezkuntza premia berezietakoa* sailkatutako ikasleen hezkuntzari buruz duten ustea: batez ere espezialista bati dagokiola lan hori egitea.

Hezkuntza-zailtasunak ikasleen gabeziei egozten zaizkienean, gure hezkuntza-sistemako maila guztietan dauden ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak kontuan hartzeari utzi egiten zaio, eta ikasle guztien hezkuntza-zailtasunak gutxituko lituzketen ikastetxeko kulturen, politiken eta praktiken berriztapenak egiteari uzten zaio.

Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi gaur egun *hezkuntza premia bereziak* kontzeptuak hezkuntza-zentro guztietako marko kultural eta politikoaren zati moduan irauten duela eta era askotako hezkuntza-praktiketan eragiten duela. Adibidez, legez derrigortuta egon ez arren, Erresuma Batuko ikastetxe gehienetan profesional bat izendatzen dute *hezkuntza-premia berezien koordinatzaile* izateko.

Administrazioak, izan ere, figura hori sortzera animatzen du *hezkuntza-premia berezietako umeak identifikatu eta ebaluatzeko Praktikaren kodea*n[6], baita Irakasleen Prestakuntzarako Agentziako *hezkuntza premia berezietako koordinatzaileentzako estandarretan* ere (ikus 3. eta 4. erreferentzia bibliografikoak). Kontzeptu honek sendotzen jarraitu du halaber zentroek «hezkuntza-premia berezietako» gastuak ageriki justifikatu behar izan dituzten unetik eta kasu bakoitzak bere ebazpena *(statement)* izan behar duelako eta HPBetan sailkatutakoentzat Plan Pedagogiko Indibidualak egotea beharrezkoa delako.

Guk uste dugu *laguntza pedagogikoko koordinatzailea, garapen pedagogikoko garapena* edo *inklusioko koordinatzailea* izenek gehiago balioko luketela zailtasunak dituzten ikasleen lana ikastetxeko irakaskuntzako eta ikaskuntzako kezka orokorragoekin lotzeko, eta horrenbestez, bat letozkeela gehiago gure inklusio-proposamenarekin. Ez dago zalantzarik hezkuntza-zailtasunen atentzioari buruzko kontzepzioaren aldaketa egiteak askotan harridura pizten duela irakasleen artean, maiz bi gauza batera egitea eskatzen ari baitzaie. Dena den, horrek ez luke hain berria izan behar, ohituta baitaude hainbat zeregin aldi berean egiten.

## Ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak

*Index*ean, *hezkuntza premia bereziak* «ikaskuntza eta partaidetzarako trabak» kontzeptuarekin ordezkatzen da. Beraz, inklusiorako, *ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak* identifikatu eta gutxitu behar dira, eta bi prozesuoi laguntzeko baliabideak maximizatu. Trabak sistemaren alderdi eta egitura guztietan aurki daitezke, baita trabak gutxitzeko baliabideak ere: hezkuntza-zentroetan, komunitateetan, tokiko zein nazio-mailako politiketan. Trabek hezkuntza-zentrora sartzea eragotz dezakete edo bertako partaidetza mugatu. 6. Koadroko galderak zentro batean inklusiorako dauden trabei buruz jada ezagutzen dena konpartitzeko erabil daitezke.

**6. koadroa. Trabei eta baliabideei buruz**

- Nortzuk dauzkate ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak hezkuntza-zentroan?
- Zein dira hezkuntza-zentroko ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak?
- Nola gutxitu daitezke ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak?
- Zein baliabide daude eskueran ikaskuntzan eta partaidetzan laguntzeko?
- Nola sor daitezke baliabide gehigarriak ikaskuntzan eta partaidetzan laguntzeko?

[6] Hezkuntza premia bereziak identifikatu eta baloratzeko praktikaren kodea *(Code of practice on the identification and assessment of special educational needs)* 1994an jarri zen martxan, eta bertan, hezkuntza-administrazioak hezkuntza-zentroei, osasun-zerbitzuei eta gizarte-zerbitzuei proposatutako ekintza-multzo bat biltzen da. Kode horren helburua da hezkuntza-zentroek berau gida moduan erabiltzea hezkuntza premia berezietako ikasleei buruzko ebaluazio eta interbentziorako praktiketan. 2:14 artikuluan (9-10 or.) HPBen koordinatzailearen zereginak azaltzen dira, eta horien artean dago HPB duten ikastetxeko ikasleentzako laguntzak koordinatzea, HPB duten ikasleen premia eta interbentzioei buruz irakasleei prestakuntza ematea, ikastetxeaz kanpoko beste agentzia eta erakundeen laguntzak kudeatzea eta HPB duten ikasleen gurasoek ikastetxeko hezkuntza-prozesuan parte hartzea. Laguntza pedagogikoko koordinatzailearen figura ez da era horretan existitzen gure hezkuntza-sisteman. Hala ere, zeregin hori orientatzaileak bete dezake, edo ikastetxeko laguntzako irakasleak edota zuzendaritza-taldeko norbaitek.

### Ikaskuntzarako zailtasunei eta ezgaitasunei buruzko eredu soziala

Ikasleek dituzten zailtasunak definitzeko *hezkuntza-premia bereziak* kontzeptuaren ordez *ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak* kontzeptua erabiltzeak, ikaskuntzarako zailtasunei buruzko eta ezgaitasunari buruzko eredu sozial bat zehaztea eskatzen du.

Hemen aurkezten dugun eredua eredu klinikoaren beste muturrean dago, azken honetan hezkuntza-zailtasunak norbere urritasunek edo arazoek sortzen dituztela onartzen baita. Eredu sozialaren arabera, ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ikasleen arteko elkarreraginean eta testuinguruetan sortzen dira: euren bizitzetan eragiten duten pertsona, politika, erakunde, kultura eta egoera sozial zein ekonomikoetan.

*Ezgaitasunak*, urritasunak edo gaitz kronikoak dituzten ikasleen partaidetzarako trabak dira. Ezgaitasunak sortzen dira urritasunei, oinazeari edo gaitz kronikoei buruzko bazterkeriazko jarrera, ekintza, kultura, politika eta erakunde-praktiken bidez.

*Urritasuntzat* defini daiteke «funtzio fisikoko, adimenezko edo sentsorialeko muga iraunkorra» bezala (ikus 5. erreferentzia bibliografikoa), nahiz eta adimen-urritasun baten nozioa eztabaidagarria den, zailtasunek oinarri fisiko bat dutela aditzera eman dezakete-eta.

Beharbada ikastetxeek ezer gutxi egin dezakete urritasunak gainditzeko, baina eragin nabarmena izan dezakete, ordea, erabilerraztasunerako eta partaidetza fisikorako, pertsonalerako eta instituzionalerako traben ondorioz gertatutako ezgaitasunak gutxitzeko.

*Macpherson txostene*an (ikus 6. erreferentzia bibliografikoa), udal poliziak Londresen gertatutako Stephen Lawrenceren hilketan edukitako jokabidea ikertu zen, eta horrek aldi batez gizartearen arreta piztu zuen polizia-indarretan dagoen arrazakeria instituzionala dela-eta; baita gure Erakunde guztietan ere, hezkuntza-zentro eta hezkuntza-sailetan ere bai. Jendeari ezagunagoa egiten zaio arrazakeria edo sexismoari buruzko eztabaida, ezgaitasunei buruzkoa baino, eta horregatik beharbada, ez da behar beste ohartzen jendeak berak eta Erakundeek duten eraginaz ezgaitasunak sortzen eta iraunarazten. Arrazakeriak, sexismoak, klasismoak, homofobiak, ezgaitasunak eta intimidazioak (edo *bullying* delakoak) sorburu berbera dute: ezberdintasunari buruzko intolerantzia eta ezberdinkeriak sortzeko eta iraunarazteko botere-gehiegikeria. Ikastetxeak inklusiboagoak egitea prozesu mingarria gerta daiteke irakasleentzat, euren bereizkeria-praktika eta jarrerak auzitan jartzen baititu prozesu horrek.

## HEZKUNTZA-ZENTROEK ZER ESPERO DEZAKETEN LORTZEA

Esaten da inklusioa dela Erresuma Batuko Gobernuaren politikaren «gakoa» (ikus 7. erreferentzia bibliografikoa)[7]. Hala ere, ez gara aditzera ematen ari hezkuntza-zentroek hezkuntzako inklusioa lortzeko kendu beharreko trabak kentzeko ahalmena dutenik. Izan ere, traba horietako asko, hezkuntza-zentroak batere kontrolik ez duen testuinguruetan daude. Adibidez, ikaskuntzarako eta partaidetzarako traba garrantzitsuenetako batzuk pobreziarekin eta horrek eragindako estresarekin lotuta daude.

Ahal izan dugun neurrian, ikastetxeetan inklusioa garatzeak izango litzatekeenaren ikusmolde argi eta ulergarri bat aurkeztu dugu dokumentuaren zati honetan. Esperientziak esaten digu hezkuntza-zentro ugarik, ekonomikoki pobreak diren eskualdeetako batzuk barne, erabilgarritzat jotzen dutela ikusmolde hau, baita egiten dutenaren azterketa burutzea ere, era horretan aldaketarako lehentasunak ezartzeko eta lehentasun horiek praktikan jartzeko.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1. Centre, Y., Ward, J. eta Ferguson, C. *Towards an index to evaluate the integration of children with disabilities into regular classes.* Centro de Educación Especial Mcquaire, Sydney, Australia. 1991.

---

[7] Era berean baiezta daiteke Espainiar Estatuan hezkuntza inklusiboa, edo aukera muinbakarra, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen ezinbesteko aukera dela.

Aurkibidea



2. Eichinger, J., Meyer, L.H. eta D'Aquanni, M. «Evolving best practices for learners with severe disabilities». *Special Education Leadership Review*, (or. 1-13). 1996.

3. Department for Education and Employment. *The Code of Practice on the identification and assessment of children with special educational needs*, Londres, DfEE. 1994.

4. Teacher Training Agency. *National standards for special educational needs co-ordinators*, Londres, TTA. 1998.

5. Adaptado del Disabled People's International. 1981.

6. Macpherson, W. *The Stephen Lawrence inquiry*, Londres, HMSO. 1999.

7. Department for Education and Employment. *Meeting special educational needs; a programme of action*, Londres, DfEE (or. 8). 1998.

2. zatia

# *INDEX*AREN LAN-PROZESUA


1. etapa. *Index*aren prozesua hastea • 33

2. etapa. Hezkuntza-zentroa aztertzea • 43

3. etapa. Orientazio inklusibo batekin ikastetxea hobetzeko plana prestatzea • 49

4. etapa. Hobetu beharreko alderdiak ezartzea • 53

5. etapa. *Index*aren prozesua ebaluatzea • 57






**1. etapa. *Index*aren prozesua hastea**

Koordinarzio-taldea eratzea

Ikastetxea *Index*aren gainean sentsibilizatzea

Taldearen ezagutzak aztertzea

Adierazleak eta galderak erabiltzeko prestatzea

Beste talde batzuekin lan egiteko prestatzea

**2. etapa. Hezkuntza-zentroa aztertzea**

Irakasleen eta eskola-kontseiluko kideen ezagutza aztertzea

Ikasleen ezagutza aztertzea

Familien eta komunitateko erakundeetako kideen ezagutza aztertzea

Hobetu beharreko lehentasunei buruz erabakitzea

**3. etapa. Orientazio inklusiboa batekin ikastetxea hobetzeko plana prestatzea**

*Index*a ikastetxeko plangintzaren prozesuan sartzea

Hobetzeko planean lehentasunak sartzea

**4. etapa. Hobetu beharreko alderdiak ezartzea**

Lehentasunak praktikan jartzea

Hobetzeko prozesuari eustea

Aurrerapena erregistratzea

**5. etapa. *Index*aren prozesua ebaluatzea**

Aurrerapenak ebaluatzea

*Index*arekin egindako lana berrikustea

*Index*aren prozesuarekin jarraitzea

2. zatia

# *INDEX*AREN LAN-PROZESUA

Jarraian deskribatua dago *Index*a ikastetxea hobetzeko planean nola txerta daitekeen eta *Index*ak bertan nola eragin dezakeen. Indexaren prozesuak berak inklusioa hobetzen laguntzen du, ikastetxearekin lotura duten pertsona guztiak hartzen baititu kontuan. Prozesua, materialekin lehenengo konpromisoa hartzen den unean hasten da. *Index*a, komunitateko kide guztien ezagutzan oinarrituta eraikitzen da, eta haren baldintza berezietara egokitzen da. Era horretan, ikastetxe osoa, hobetzeko prozesuaren partaide eta protagonista sentitzera animatzen du. Hain zuzen urrats hau izan daiteke zailena. *Index*arekin egindako lanaren ondorioz sartutako aldaketek irautea nahi bada, hala irakasleek nola ikasleek ikaskuntza eta irakaskuntzarako hobekuntzak izan direla nabaritu behar dute. Aldaketa horiek ikastetxearen kulturaren zati bihurtu behar dute.

7. koadroan *Index*aren etapak zehazten dira.

**7. KOADROA. *INDEX*AREN LAN-PROZESUA**

**1. etapa: *Index*aren prozesua hastea (hiruhilabete erdia)**
Koordinazio-taldea eratzea
Ikastetxea *Index*aren gainean sentsibilizatzea
Taldearen ezagutzak aztertzea
Adierazleak eta galderak erabiltzeko prestatzea
Beste talde batzuekin lan egiteko prestatzea

**2. etapa: Hezkuntza-zentroa aztertzea (hiruhilabete bat)**
Irakasleen eta eskola-kontseiluko kideen ezagutza aztertzea
Ikasleen ezagutza aztertzea
Familien eta komunitateko erakundeetako kideen ezagutza aztertzea
Hobetu beharreko lehentasunei buruz erabakitzea

**3. etapa: Orientazio inklusibo batekin ikastetxea hobetzeko plana prestatzea (hiruhilabete erdia)**
*Index*a eskola-plangintzako prozesuan sartzea
Hobetzeko planean lehentasunak sartzea

**4. etapa: Hobetu beharreko alderdiak ezartzea (etengabea)**
Lehentasunak praktikan jartzea
Hobetzeko prozesuari eustea
Aurrerapena erregistratzea

**5. etapa: *Index*aren prozesua ebaluatzea (etengabea)**
Aurrerapenak ebaluatzea
*Index*arekin egindako lana berrikustea
*Index*aren prozesuarekin jarraitzea

1., 2. eta 3. etapak era egokian bete behar dira ikasturtea amaitu baino lehen, hurrengo ikasturteko hobetzeko planeko lehentasunak zein diren sartu ahal izateko. 4. eta 5. etapak urteko plana hastean burutuko dira. 4. etapak esan nahi du hobetzeko planaren lehentasun guztiak praktikan jarri behar direla, *Index*eko materialen bidez identifikatutakoak barne. 5. etapan, egindako aurrerapena berrikusiko da eta ikastetxean *Index*a erabiltzeko prozesuari aldaketak egingo zaizkio. *Index*eko materialak lortutakoa aztertzeko erabiltzen dira, baita hurrengo ikasturterako lehentasun berriak identifikatzeko ere.

Ikastetxeko kultura, politika eta praktikak aztertu ahala, inklusioaren esparruan lehenago detektatu gabeko aldaketarako aukerak ager daitezke. Beharbada irakasleek sentsazioa izan dezakete ikastetxea alderdi batzuei dagokienez ez dela hasieran uste bezain inklusiboa, probako ikastetxe ingeles batzuetan gertatu zen bezala. Irakasle, ikasle eta familien artean eta komunitatean, partaidetza eta praktikarako behar diren baliabideak aurkituz oreka daiteke hori.

# 1. etapa

# *INDEX*AREN PROZESUA HASTEA

*Index*aren lehenengo etapa hau hasteko, prozesua ikastetxean dauden plangintza-egituretan sartuko da, eta hiruhilabete erdian amaituta egon beharko luke. Koordinazio-talde bat ezarriko da; horrek eskola-arlo garrantzitsuenak islatuko ditu, baita ikastetxean dauden espektatibekiko *erronka eraikitzaile* bat egotea bermatu ere. Taldeak *Index*eko materialei eta prozesuari buruzko informazioa jasoko du. Konpromisoa hartuko du prozesua ikastetxeko irakasle, familia, ikasle eta komunitateko erakundeen kideekin batera burutzeko.




## KOORDINAZIO-TALDEA ERATZEA

*Index*a ikastetxea hobetzeko bitarteko modutzat jotzen bada, orduan zuzendariak eta esperientziadun irakasleek hasieratik parte hartu behar dute lan horretan, eta *Index*aren lana planeatu behar dute, lan horrek ikastetxeko plangintzaren zikloarekin bat egin dezan. Ikastetxeko plangintzarako gaur egungo taldeak[8] hasi beharko luke lan hori eta koordinazio-taldearen zati garrantzitsuena osatu. Garrantzitsua da ikastetxeko laguntza pedagogikoko koordinatzailea[9] taldeko kide izatea. Hala ere, beharrezkoa izango litzateke taldea inklusiboagoa izatea, ikastetxeko genero- eta etnia-osaera kontuan hartuz, eta taldean familien eta ikasleen ordezkari batzuk egotea. Beharrezkoa da koordinazio-taldean ikastetxeko bizitzaren alderdi guztiek isla izatea. Lanak aurrera egin ahala kide gehiago izan ditzake taldeak. Taldeko lehendakaria aukeratu behar da, betiere pertsona hori ikastetxea hobetzeko plangintza-taldeko lehendakaria ez den beste bat denean.

---

[8] Gure ikastetxeetan batzorde pedagogikoak edo zuzendaritza taldeak izan daitezke.

[9] EHEAn figura hori existitzen ez den arren, antzekoena ikastetxean lan egiten duen orientatzailea izango litzateke Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan, edo kontsultorea Lehen Hezkuntzako Ikastetxetan, edo hori ezean, Pedagogia Terapeutikako irakaslea.

«AHOLKULARITZA EMAN BEHARKO LITZAIOKE *INDEX*A ERABILTZEKO ASMOA DUEN EDOZEIN IKASTETXERI, BESTE BATEKIN (EDO BATZUEKIN) HARREMANETAN JARRIZ ALDAKETA-OLDARRARI EUSTEKO ETA ERA ASKOTAKO GAIAK EZTABAIDATU AHAL IZATEKO».

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

### Kanpo-behatzaile edo *lagun kritiko* bat sartzea

Nabarmendu egiten da taldean kanpo-behatzaile edo *lagun kritiko* bat sartzeko aholkua. Ikastetxeaz kanpoko norbait izan ohi da, berau zehaztasunez ezagutu arren. Ikuskatze-lana baino, laguntza-rola beteko du, eta erantzukizun hori taldearen eta ikastetxearen konfiantza duen, eta piztuko diren eztabaidetako sentikortasuna errespetatuko duen norbaitek hartu behar du. Pertsona hori gai izan beharko litzateke ikastetxean egin behar den ikerketa zehatzean, zein irakasleen, familien eta ikasleen ikuspuntuak biltzen ere laguntzeko.

Lagun kritikoaren erantzukizunetako bat ikastetxearen azterketa sakontasunez egiten dela bermatzen laguntzea da. Dena den, irakasle guztiek bete beharko dute rol hori, eta euren lankideei *erronka eraikitzaile* bat eskaini, ikastetxearen inguruko iritziak eta konklusioak adieraz ditzaten. Era berean, norbaitek ikastetxearen funtzionamenduari buruzko baieztapen bat egiten duenean, eztabaidarako bide emateko eran egin beharko du.

Ikastetxe pilotuetan kanpo-behatzailearen rola betetzeko eskatu zitzaien pertsonen artean ondorengoak egon ziren: beste ikastetxe batzuetako irakasleak, aholkulari psikopedagogikoak eta unibertsitateko irakasleak. Lehen hezkuntzako ikastetxe batek eta bigarren hezkuntzako institutu batek *Index*ak eskaintzen zien aukera euren artean harremanak ezartzeko erabiltzea erabaki zuten, eta adostu zuten ikastetxe bakoitzeko laguntza pedagogikoko koordinatzaileak bestearenean kanpo-behatzaile jardutea.

### Taldeko prozesuei arreta jartzea

Garrantzitsua da koordinazio-taldea ikastetxe barneko praktika inklusiborako eredu bihurtzea, lan egin eta bermatu dezala, batetik, denen iritziak entzun daitezen, horien genero, historia profesional edo estatusa kontuan izan gabe, eta bestetik, eztabaidetan inor ez dadila nagusia izan. Argi geratu behar da hasieratik *Index*a ez dela erabiliko inoren gaitasun profesionala auzitan jartzeko, baizik eta ikastetxerako laguntza-eredu izateko, eta bertako kideen hobekuntza profesionalerako. Taldeko kideek besteengan konfiantza eduki dezaketela sentitu behar dute, baita konfiantza giro batean libreki eta beharrezkoa denean hitz egin dezaketela ere.

## IKASTETXEA *INDEX*AREN GAINEAN SENTSIBILIZATZEA

Irakasle guztiekin *Index*ari buruz egindako bilkura labur baten ondoren osatuko da taldea, parte hartu nahi duten pertsonek boluntario eskaini ahal izan dezaten euren burua. Garrantzitsua da plangintzako edozein erabaki hartu baino lehen hezkuntza-komunitateko kide guztiei *Index*ari eta bere helburuei buruzko informazioa ematea.

Irakasleei argitu egin behar zaie etapa honetan koordinazio-taldea materialak ezagutzen ari dela. Aipatutako lehenengo bilkuran, ikastetxekoa ez den eta *Index*arekin eta bertan aurkezten diren inklusioari buruzko gaiekin lan egin duen norbaitek parte har dezake, edo bestela, irakasle batek zuzendu dezake bilkura, adibidez *Index*eko materialak ezagutzen dituen koordinazio-taldeko zuzendariak.

## TALDEAREN EZAGUTZAK AZTERTZEA

Hezkuntza-zentro guztietan irakasleek ondo dakite ikasleen ikaskuntza eta partaidetza zerk eragozten duen, nahiz eta batzuetan zaila den ezagutza hori zentroa hobetzeko lehentasun bihurtzea. *Index*ak aukera ematen du guztiek duten ezagutza eta hausnarketa pertsonalak eztabaiden zerrendan sartzeko.

Koordinazio-taldeko kideek *Index*eko kontzeptu eta elementuak aztertu behar dituzte, besteei *Index*a aurkezteko orduan ezagutza konpartitu bat garatu ahal izan dezaten. Gure aholkua kontzeptuekin lan egitea da, ikaskuntzarako eta partaidetzarako ikastetxeko trabei buruz aurretiaz dituzten ezagutzen inguruan eta batzuk zein besteak gutxitzeko moduaren inguruan hausnartzeko. *Index*aren materialek ikastetxearen azterketa zehatz bat egitura-

Aurkibidea



tzeko modua ebaluatu beharko dute. Zeregin horiek denbora mugatuko zortzi jardueraren inguruan egingo den bilkura edo bilkura-sail batean burutu behar dituzte. Bilkura prestatzeko, 1. zatia arretaz irakurri beharko dute. Litekeena da 1. zatiaren irakurketaren ondorioz edo jarduerak egin ahala agertzen diren alderdi gehigarriak eztabaidatu behar izatea.

### 1. JARDUERA. ZER DA HEZKUNTZA INKLUSIBOA?

5. koadroan (24. orrialdea) inklusioari buruzko ikusmoldea osatzen duten elementu batzuk aurkeztu dira. Inklusioa ulertzeko beste era batzuk ere badaude, baina hemen *Index*ean hartutako ikusmoldea planteatzen da. Inklusiorako zeregin nagusiak ikasleen ikasketa eta partaidetza hobetzea eta ikasketarako zein partaidetzarako trabak gutxitzea dira. Zereginok bat datoz ikastetxea hobetzeko planaren xede nagusiekin. Ez dugu espero gure ikusmoldearen alderdi guztiekin ados egotea. *Index*a ikastetxeetako era askotako iritzietara egokitzeko bezain malgua izatea nahi da, helburu nagusiekin bat datozen neurrian betiere. Gehienetan, inklusioari buruzko eztabaidak oso errotuta dauden sinismenak uzten ditu agerian, eta ez dirudi sinismen horiek erabat argitu edo konponduko direnik inklusioari buruzko jarduera txiki baten bidez. Dimentsio, adierazle eta galderekin egindako lanak aurrera egin ahala, urteen poderioz ikusmolde zehatzago eta praktikoagoa osatuko da inklusioari buruz. Dena den, gure aholkua da une honetan koordinazio-taldeak denbora hartzea ikusmoldearen elementu bakoitza eztabaidatzeko.

### 2. JARDUERA. ZER DA LAGUNTZA PEDAGOGIKOA?

1. zatian laguntza pedagogikoaren kontzepzio inklusibo bat sartu dugu, adieraziz berau dela «ikastetxe batek ikasleen aniztasuna zaintzeko duen gaitasuna handitzen duten jarduera guztiak». Kontzepzio zabal hori *Index*aren gako-kontzeptua da, eta koordinazio-taldeak kontuan hartu beharko luke ikusmolde horrek ikastetxeko laguntza antolatuko ereduan duen garrantzia. Beharbada, puntu honetara itzuli nahiko duzu 5. eta 6. jarduerako adierazle eta galderak lantzean.

### 3. JARDUERA. INDEXAREN DIMENTSIOAK ERABILTZEA

Koordinazio-taldeak 2. Koadroan aurkeztutako dimentsioen laburpena eztabaidatu behar du, baita horiek 3. zatian aurkeztutako zerrendetako atal eta adierazleen bidez esanahia hartzeko duten erari buruz ere. Dimentsioen aldiberekotasuna nola gertatzen den aztertu behar du; adibidez, ebaluazioko alderdiak C dimentsioan kokatzen dira (*praktikak*), baina aldi berean, ebaluazioko *politikak* egongo dira ikastetxean. Bada, B dimentsioan ez dira adieraziko errepikapenak saihesteko. Dimentsio bakoitza bi ataletan banatzen da, eta taldeak pentsatu egin behar du nola erabil daitezkeen atal horien goiburukoak hausnarketan aurrera egiteko.

### 4. JARDUERA. IKASKETARAKO ETA HOBETZEKO TRABAK

Koordinazio-taldeak ikastetxeari buruz duen aurretiazko ezagutza konpartitzen hasi behar du, kontuan hartuz ikasleen artean, baita irakasleen artean ere, nortzuek nabaritzen dituzten ikasketarako eta partaidetzarako trabak. Gero, gai horri buruzko ezagutzak elkartrukatzen saiatuko dira, ikastetxean jada badauden kultura, politika eta praktiketatik ikusita. Aitortu egiten dugu traba ugari beharbada komunitateetan zein baldintza sozialetan kokatzen direla, eta horien gainean irakasleek kontrol eskasa dutela, baina ikastetxeak ikasketarako eta partaidetzarako trabak gainditzeko egin dezakeena nabarmendu behar da. Taldeak ondorengo galderen inguruan egituratu dezake eztabaida:

- Nortzuek nabaritzen dituzte ikasketarako eta partaidetzarako trabak gure ikastetxean?
- Zein dira ikasketarako eta partaidetzarako trabak gure ikastetxean?
- Nola gutxitu daitezke ikasketarako eta partaidetzarako trabak?

**«*INDEX*A, IKASTETXEEK ERA ASKOTAKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEAK BARNE HARTZEKO DUTEN GAITASUNARI BURUZKO LAN ZABALAGO BAT EGITEKO OINARRITZAT HARTZEN DUGU».**

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

### 5. JARDUERA. IKASKETARI ETA PARTAIDETZARI LAGUNTZEKO BALIABIDEAK

*Index*eko beste ideia nagusi bat baliabideak mobilizatzearena da, eta hori da hain zuzen C dimentsioaren bigarren atalaren goiburukoa. *Index*ak, une horretan gutxi erabilitako giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartzera animatzen ditu hezkuntza-zentroak, horiek antolatuz ikasleen ikasketa eta partaidetza hobetze aldera; adibidez, curriculumeko arlo jakin batzuen inguruan edo irakaskuntza-metodoen inguruan irakasle batzuek duten ezagutza era zabalean konpartitu liteke; edo familiek euren seme-alabei buruz duten ezagutzara maizago jo liteke. Ikasketarako eta partaidetzarako trabak aztertzerakoan, eman dezake praktikaren puntu ahulak direla nabarmentzen direnak. Giza baliabideen azterketak ikastetxearen alderdi positiboetan zentratzeko aukera ematen du.

Gure aholkua da koordinazio-taldeko kideek ikastetxeaz (ikastetxeko baliabide materialei, irakasleei, eskola-kontseiluko kideei, ikasleei, familiei eta komunitateei buruz) duten ezagutza aztertzen jarrai dezatela ondorengo galderentzako erantzunak eztabaidatuz:

- Zein baliabide daude eskueran ikasketa eta partaidetzari laguntzeko?
- Nola mobiliza daitezke ikasketa eta partaidetzari laguntzeko baliabide gehigarriak?

## ADIERAZLEAK ETA GALDERAK ERABILTZEKO PRESTATZEA

Beharrezkoa da taldea adierazleak zein galderak eta horiek erabiltzeko modua ezagutzen hastea, talde guztiekin ikastetxean dauden kultura, politika eta praktikak aztertzeko. Adierazleen eta galderen erabilera ikastetxearen azterketa zehatzean oinarritzea nahi da. Dena den, garrantzitsua da juzkurik ez egitea eta *Index*a ikastetxeari buruz dauden aldez aurreko ideiak auzitan jartzeko erabiltzea. Aurretiazko ezagutza konpartitzeak hobekuntza pertsonalerako lehentasunak agerian utz baditzake ere, baita lehentasun konpartituak ere, lehentasunok behin-behinekotzat jo behar dira, kontsulta zabalagoa eta adierazleen zein galderen bidez ikastetxearen ebaluazio sakonagoa egin arte. Gainera, adierazle eta galderok kontuan hartu ohi ez diren eskola-bizitzako arloetara zuzentzen dute euren arreta.

### 6. JARDUERA. ADIERAZLEAK AZTERTZEA

Taldeko kide bakoitzak arretaz irakurri beharko luke 3. zatiaren hasieran agertzen den adierazleen indizea. Taldeak adierazleak ezagutzen hasteko erabilgarritzat jo den metodo bat, txartel bereizietan horietako bakoitza, edo euren zenbaki edo letra idaztea da. Taldeak lau pilatan banatuko ditu txartelak, adierazle bakoitzak ikastetxean gertatzen dena islatzen duela zenbateraino uste dugun kontuan hartuz.

Lau pila horiek ondorengoak dira: *«erabat ados»*, «ados neurri batean», «batere ez ados» eta *«informazio gehiago behar dut»* erabakitzeko. Azken pilan jarri beharko liratekeen itemak erabaki bat hartzeko informazio nahikoa ematen ez dutenak edo ikastetxearentzat zer esan nahi duten argi uzten ez dutenak dira. Bestela, 1. galdesortan (4. zatian) agertzen diren adierazleekin lan eginez burutu dezake taldeak jarduera hau.

Jarduera hau adierazleak eta horien galderak zehaztasunez aztertu ondoren errepika daiteke. Galderek juzkuak berrikustera eta adierazlearen esanahia argitzera bultza dezakete, alegia, *«informazio gehiago behar dut»* pilan dauden itemen inguruko behin-behineko ideia bat hartzen laguntzen dute.

Aurkibidea



## 7. JARDUERA .GALDEREN ADIBIDEAK AZTERTZEA

Taldeak adierazle eta galdera pare bat batera ikusteko beharra izan dezake, era egokienean nola erabil daitezkeen hausnartzeko. Adierazleak, horiekin lotuta dauden galderekin batera, aparteko orrialdeetan inprimatu dira gardenki moduan erreproduzitu ahal izateko. Adibidez B.1.5. B dimentsioko adierazlea da (*Politika inklusiboak landu*), ikasle berrien gaineko harrera-politikei buruzkoa. Adierazle berezi horretarako erantzuna ikasleen iritzien araberakoa da, eta zaila izango litzateke erantzutea iritzi horiek oso ondo ezagutzen badira.

### B.1.5. Ikasleak ikastetxera lehenengo aldiz sartzen direnean bertara egokitzen laguntzen zaie

- Ikastetxeak ba al du ikasleei harrera egiteko programarik?
- Ikasleentzako eta euren familientzako harrera-programa ondo al dabil, ikasturte hasieran edo beste edozein unetan sartzen badira ere?
- Programak kontuan hartzen al ditu harrerako hizkuntzaren ulermen- eta erabilera-gaitasunean dauden ezberdintasunak?
- Hezkuntza-sistema orokorrari buruz eta , zehazki, ikastetxeari buruz ba al dago informaziorik eskura?
- Ikasle berriak esperientzia handiagoko ikasleekin elkartzen al dira ikastetxera lehenengo aldiz sartzean?
- Aste gutxiren buruan ikasle berriak etxean bezala zein punturaino sentitzen diren ezagutzeko neurriak hartu al dira?
- Ba al dago laguntzarik eraikinaren antolamendua gogoratzeko zailtasuna duten ikasleentzat, batez ere ikastetxera lehenengo aldiz sartzen direnean?
- Ikasleek argi al dute norengana jo behar duten zailtasunak badituzte?
- Ezarri al dira Haur eta Lehen Hezkuntzaren, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko trantsizio-aldiak errazteko programak?
- Ikasleak ikastetxe batetik bestera igarotzean, ikastetxe bakoitzeko irakasleek laguntzen al diete aldaketa samurragoa izan dadin?

Adierazleak behatzean, taldeko kide bakoitzak beharbada iritzi bat dauka ikastetxeko harrera-programaren funtzionamendu egoki edo desegokiari buruz. Diseinua dela-eta galderek erantzun soila eduki behar duten arren (bai ala ez), hedapen-galderak izatea nahi da, eztabaidatzeko erantzun-aukera ematen dutenak. Taldeko kideek galdera bakoitza behatu eta lau kategorietan jarri beharko lukete, adierazleei buruz komentatu bezala. Galdera bakoitza + batez markatu beharko litzateke (erabat ados), edo +/- batez (ados neurri batean), edo - batez (batere ez ados), edo ¿? jarrita (informazio gehiago behar dut). Galdera-zerrenda, adierazleak bezala, ez da mugiezina eta zorrotza. Espero dugu desadostasuna agertzea zenbait galderen erabilgarritasunari buruz eta beste batzuk gehitzea alderdi bat kontuan hartu ez denean. Talde moduan, kontuan hartu behar dira ikasleen harrera-politikak zehazkiago aztertzeko urratsak zeintzuk diren, eta ikasle berrientzako programarako hobekuntzak praktikan jarri.

Ikasleentzako harrera-politikei buruzko eztabaida batek irakasleentzako harrera-politikei buruzko galderak piztu ditzake, B.1.2. adierazlean aztertutakoak hain zuzen. Ikastetxeko inklusioak, ikasleez gain, irakasle guztiak hartzen ditu kontuan. Ikastetxe batzuetan, eztabaida horrek plantea dezake gai horiei buruz sentiberak diren pertsonak daudela, eta beraz, saiakera ona izan daiteke kontsulta zabaletan eztabaidak gidatzearen inguruan; izan ere, horietan seguruenez sentimendu biziak agertuko dira. Taldeko kide bakoitza uneren batean ikastetxean berria izan den arren, galderak erantzuteko zailak izango lirateke iritsi berriak diren irakasleen esperientziaren ekarpenik gabe.

### B.1.2. Irakasle berri guztiei ikastetxera egokitzen laguntzen zaie

- Ikastetxea ohartzen al da irakasle berriek zailtasunak eduki ditzaketela lanpostu berrian hastean, beharbada eurentzako herri berria ere izanik?

(.../...)

(.../...)

- Esperientzia luzeeneko irakasleek saihesten al dute irakasle berriak arrotz sentitzea, adibidez azken horiek baztertzen dituen «guk» formula erabiliz?
- Ba al dago harrera programarik irakasle berrientzat?
- Irakasle berri bakoitzak ba al du tutorerik, berari ikastetxean finkatzen benetan laguntzeko interesa duena?
- Ikastetxeak eragiten al du irakasle berriek sentitzea eurek dakarten esperientzia eta ezagutza kontuan hartzen dela?
- Ba al dago aukerarik irakasle guztientzat ezagutza eta esperientzia konpartitzeko eta ekintza horretan irakasle berrien ekarpenak ere sartzeko?
- Ematen al zaie irakasle berriei ikastetxeari buruz behar duten oinarrizko informazioa?
- Galdetzen al zaie irakasle berriei beharrezkoa duten informazio gehigarriari buruz, eta ematen al zaie?
- Kontuan hartu eta balioesten al dira irakasle berriek hezkuntza-zentroari buruz emandako oharrak, hausnarketa berriak eduki ditzaketelakoan?

## 8. jarduera. Adierazle eta galdera guztiak berrikustea

Pare bat adierazle eta horiei lotutako galderen inguruan elkarrekin lan egin ondoren, koordinazio-taldeko kideek adierazle eta galdera guztiak arretaz irakurri behar dituzte. Galdera bakoitzari erantzun behar diote, sortzen diren alderdiei buruz oharrak jaso, eta egokia den tokian, galdera berriak iradoki. Adierazle eta galderen behar beste kopia egon behar dira eskueran. Irakurketa eta azterketa hori koordinazio-taldearen bilkura batean egin daiteke, edo bi bilkuraren artean.

Helburua da materialak ezagutzen hastea, eta ez hezkuntza-zentroaren ikerketa osatua egitea. Asmoa da aztertzea nola erabil daitezkeen adierazleak eta galderak ikastetxeari buruz aurretiaz dugun ezagutza handitzeko, eta horretarako, ikerketa zehatz bat egin behar da denbora-epe batez, eta horren ondorioz, lehentasunak ezarri. Ikastetxe barruan ikertu behar diren eta egindako galderekin aintzat hartzen ez diren alderdi espezifikoak identifika litzake taldeak.

4. zatian laburpen-orri bat dago, eta bertan, adierazleekin lan egiten duten pertsonek euren garapen-lehentasunak adieraz ditzakete. Orri hori irakasleek erabiliko dute, baina, seguruenez, ikasle eta familia gehienek ez dituzte materialok zehaztasun-maila honetaraino landuko. Koordinazio-taldeko kideek, *Index*eko dimentsio bakoitzeko atal bakoitzean aldaketa-lehentasun bat ezarri behar dute. Beharbada senti dezakete atal jakin batean ez dagoela ezer egiteko, baina pentsatu behar dute halaber dimentsio batean aldaketa-lehentasun bat identifikatzean beste batean ere aldaketak eragingo direla. Lehentasunak adierazle baten edo adierazle-multzo baten bidez, galdera baten edo galdera-multzo baten bidez edo ikastetxerako garrantzitsua izan baina *Index*aren adierazle zein galderetan aipatzen ez den alderdi baten bidez adieraz daitezke.

Taldeko kideek txosten bat aurkez dezakete adierazleen eta galderen erabilerak hezkuntza-zentroko kultura, politika eta praktiken aurretiazko ezagutzari buruz zer eskaintzen duen hizpide hartuz. Ondorengo galderak kontuan hartuz egin dezakete hori:

- Zer egin da ikastetxean ikasketarako eta partaidetzarako trabak gainditzeko?
- Zer definitu behar da berriro?
- Zer aztertu behar da gehiago?
- Zein ekimen berri dira beharrezkoak?

Jarraian, adierazle bat edo bi gehiago beha ditzake sortu diren kezka jakinei buruz, eta galderak berrikusi, zehaztasunez eta elkarrekin.

**«*INDEX*AK IKASTETXEENTZAKO PROZESU BAT ESKAINTZEN DU JARRERA, SINISMEN ETA PRAKTIKAREN ARLOETAN BEHARREZKO ALDAKETAK IDENTIFIKATZEKO, IKASLE GUZTIAK BARNE HARTZEKO HELBURUAREKIN».**

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

# BESTE TALDE BATZUEKIN LAN EGITEKO PRESTATZEA

Beharrezkoa da koordinazio-taldea gogoz prestatzea irakasleekin zein ikastetxeko gainontzeko taldeekin lan egiteko, eta edozein jarduerari ekin baino lehen, 2., 3., 4. eta 5. etapetarako gidak aztertzea. Irakasle-taldeekin, eskola-kontseiluko kideekin, gurasoekin/tutoreekin edo komunitateko kideekin egindako lanak informazio-kopuru nabarmena eman dezake denbora laburrean. Hezkuntza-komunitateko kide guztiek lagundu egin behar dute, eta plan bereziak egin behar dira bilkura orokorretara beharbada bertaratuko ez diren irakasleen iritziak jasotzeko, adibidez jantoki-zerbitzuko arduradunena edo administrazioko langileena.

Agian ez da astirik izango ikastetxeko ikasle bakoitzarengandik informazioa biltzeko, eta koordinazio-taldeak erabakiak hartu beharko ditu eztabaida zehatzagoetan murgilduko diren taldeei buruz, nahiz eta mundu guztiari eman beharko litzaiokeen nolabait euren ekarpenak egiteko aukera. Era berean, familien iritziak biltzeko aukera-sail bat eduki behar da aurreikusita.

## Galdesortak erabiltzea

*Index*aren aurreko bertsioetan, adierazleak erabili ziren irakasleek, familiek eta ikasleek erantzutea nahi zen galdesorten oinarritzat. Dena den, zailtasunak gertatu ziren, adierazle guztietatik batzuk adierazgarriagoak zirelako talde batzuentzat beste batzuentzat baino, eta joera zegoelako galdesortak bukatzearekin informazio-bilketa prozesua bukatu egiten zela ikusteko.

Irakasleekin lan egitean, adierazleak beti zeuden euren esanahia definitzen zuten eta ikastetxeko kultura, politika eta praktikei buruzko konpromiso sakonago batera bideratutako galderekin lotuta. Adierazleak galdesorta-formatuan sartu ditugu 4. zatian. Familientzat eta ikasleentzat erabilgarriak diren beste galdesorta batzuk presta daitezke, adierazleetatik eratorritako baieztapenak eta ikastetxean garrantzitsutzat jotako alderdiei buruzko baieztapen bereziak konbinatuz.

Galdesortak ezberdinak izan beharko lirateke familientzat eta ikasleentzat, eta ikasleen adina kontuan izan beharko lukete. 4. zatian (2. galdesorta), ikasle eta familientzat adierazgarrienak izan zitezkeen adierazleen bertsio labur eta aldatua. Baliteke ikasle eta familia batzuek eta komunitateko kide batzuek adierazle zein galdera guztiekin konprometitu nahi izatea eta laburpen-orria bete. Beharbada, galdesortak egokitu egin behar dira gaztelaniaz[10] erraz irakur ez dezaketenei moldatzeko. Esperientzia duen norbaiten laguntza lortu beharko litzateke galdesorta errazak prestatu ahal izateko.

Ikasleen galdesortak seguruenez taldean beteko dira. Ume txikientzat, erantzun baino lehen galdera bakoitza irakurtzea da onena, baita laguntza eskaini ere hizkuntzarekin, edo jarraibideekin, edo galdesorten bukaeran norbere lehentasunak idazteko zailtasuna duten ikasleei.

4. zatian (3. galdesortatik 6.era arteko galdesortetan) ,halaber, ikasleentzako eta gurasoentzako galdesorten lau adibide aurkezten dira, esplorazio-lanetan erabilitakoak eta koordinazio-taldeari ezaguna egin beharko litzaizkiokeenak. Irakasleentzakoa bezala, ikasleentzako eta gurasoentzako galdesorta konpromiso handiago baterako abiapuntutzat hartu beharko litzateke.

Galdesortak erabiltzeak beste arrisku batzuk ere baditu. Pertsonek nahi soziala erakusteko joera dute, alegia, «desiragarri edo egoki»-enatzat jo ohi diren baieztapenekin bat etortzeko, eta beraz, ikastetxeak badena baino inklusiboagoa eman dezake. Azterketa pilotua egin zen ikastetxean, ikasleekin lan egin zen, erantzunetan egia izatea nahiko luketenaren eta benetan bertan gertatzen zenaren artean bereizten laguntzeko. «*Bradford City guztion futbol-talde gogokoena da*» hartu zen argi eta garbi faltsua izan arren hiri horretako ikasle asko bat etortzera tentatuko lituzkeen baieztapenaren eredu. Eztabaidatzekoa izango litzateke, baita, zenbait ikaslek euren ustez irakasleei entzutea gustatuko litzaiekeen erantzunak

---

[10] Jatorrizko bertsioan hizkuntza ingelesa da.

emateko duten joera. Irakasle batek komentatu zuenez, «*ikasleak seguruenez bat etorriko dira "irakasleek uste dute lezio guztiak garrantzitsuak direla" baieztapenarekin, betiere errepresaliak jasatearen beldurrez, irakasleak argi eta garbi azaltzen ez badu erantzuna guztiz zintzoa izatea nahi duela*».

## Komunikazio galdua eta berreskuratua

Tokiko agintaritzako ikuskaritza-ekipoek adierazitako kezkari jarraiki, ikastetxe berri batek berriztapen-aldi trinko bat pasa zuen, eta ikuskaritza-zerbitzuak hari buruzko txosten positiboa egin zuen. Zuzendari berri batek *Indexa* sartzea erabaki zuen. Hala ere, irakasleek ez zuten zuzendariaren poz bera agertu, aldaketa gehiago sartzen ziren eta.

*Indexa* erabiltzearen lehenengo hiruhilabetearen amaieran zuzendaria etsita zegoen. Berak jakinarazi zuenez, ez zuen lortu koordinazio-taldea eratzerik, eta bere burua bakarrik ikusi zuen *Indexa* lantzen. Irakasleen laguntzarik gabe, *Indexa* uste baino askoz zailagoa iruditu zitzaion.

Bertako irakasleek zalantza handiak zituzten zuzendariak inklusiotzat ulertzen zuenari buruz, eta zenbait ikasle ikastetxetik kanporatuak izaten jarraituko zutela egiaztatu nahi zuten.

Zuzendariak adierazi zuenez, «errakuntza handia izan zen *Indexarekin* lan egiten hasi baino lehen irakasleei ez kontsultatzea. Nik, ordea, ikastetxea inklusiboagoa izatea nahi nuen eta pasioak neure burua gida zezala utzi nuen».

Hurrengo hiruhilabetean zuzendariak bere ikerketei eutsi zien *Indexa* erabiliz, eta horiek agerian utzi zutenez:

- Asiar jatorriko gurasoek/tutoreek parte hartzeko irakasleen ahaleginek huts egin zuten.
- Eskola-kontseiluko kideen eta irakasleen arteko komunikazioa pobrea zen.

Bi kezka zehatz horiek (eta *Indexak* edukitako hasierak) ikastetxeko komunikazio-maila benetako kezka-iturri zela iradoki zioten zuzendariari.

Ondorioz, lehentasun hauek identifikatu ziren, eta horiek garatzeari ekin zitzaion:

- Eskola-kontseiluko kideei informazio gehiago eman eskola-bizitzan era aktiboan parte har dezaten, eta batez ere, eskola-aurrerapenetan.
- Eskolako gertaera sozialen programa bat antolatu gurasoen/tutoreen eta irakasleen arteko trabak hausten laguntzeko.
- Ikasle berrientzako harrera-programa garatu eurei laguntzeko, baita euren gurasoei/tutoreei eta irakasleei ere.
- Irakasleek inklusioari buruz dituzten kezkei erantzuteko markoa sortu, politika inklusiboak garatu ahal izateko, horien bidez azaleratzen baitira ikastetxearen filosofia eta asmoak, horiek ulertu eta zabaldu ahal izateko.

*Indexaren* hasierako zailtasunaren ondoren, ikastetxeko talde ezberdinen arteko komunikazioak hobetu dituzte lau lehentasun horiek, eta era horretan, aldi berean, oro har ikastetxea hobetzeko prozesuari eusten lagundu dute.

## Beharrezko baliabideak

*Index*arekin lan egiteko, giza baliabideak eta baliabide materialak behar dira, batez ere fotokopiak. Irakasleen denbora ere behar da, bereziki koordinazio-taldearena. *Index*a aplikatzen den lehenengo urtean, denbora hori gehiago izan ohi da zen ikastetxea hobetzeko planetan erabiltzen dena baino, baina jarduerak plangintzako zikloan integratzen badira, hurrengo urteetan murriztu egin daiteke. Ikastetxe batzuetan, irakasleek, egindako lana graduatu-ondokorako erabili dute, edo beste kualifikazio profesional batzuk lortzeko, eta beraz, euren ikastetxeetako *Index*ak erabilgarritasun bikoitza izan du.

## Materialen kudeaketa

Beharrezkoa da material guztiak talde osoaren eskueran egotea. Ikastetxe bakoitzak *Index*aren artxibo bat edo bi izan ditzake soilik. Hala ere, ikastetxeak libre dira edozein material fotokopiatzeko, eta artxibo gehigarrietan gorde daitezke. Koordinazio-taldeko kide bakoitzak bere material-bilduma eduki behar du. Koordinazio-taldeko kideek eta materialekin lan egiten duten beste irakasle batzuek artxibora orriak gehitzeko nahia izan dezakete lanak aurrera egin ahala. Horien artean sartuko lirateke item eta adierazle zein galdera berriak, irakasleek dimentsioen inguruan egindako lana, kontsulten ondorioz egindako aurkikuntzei buruzko azterketen txostenak, aurkezpenetarako laminak etab.

Aurkibidea



2. etapa

# HEZKUNTZA-ZENTROA AZTERTZEA

*Index*aren 2. etapa honetan, koordinazio-taldeko kideek *Index*aren prozesuari buruz dituzten ezagutzak erabiltzen dituzte ikastetxeko beste talde batzuekin lan egiteko. Eurek bermatzen dute ikastetxean dauden talde guztien ikusmoldeak ordezkatuta egongo direla. Taldeak kontsulta horien emaitzak aztertzen ditu, eta beharrezkoa bada, ikerketa berriak hasiko ditu ikastetxeko kultura, politika eta praktiken inguruko azterketa osatzeko. Geroago, hobetzeko lehentasunak adostuko dira ikastetxeko irakasleekin. Etapa honek hiruhilabete inguru iraun dezake.




2. etapa, *Index*arekin egiten den gainontzeko lana bezala, ezberdina izango da ikastetxe bakoitzean. Koordinazio-taldeak prozesua burutzeko eredu onena aukeratzeko ardura du, baita hobetzeko aukera-kopuru handiena eskaintzearena ere. Aukera horiek komunitateko kideen ezagutzaren elkartrukean eta ikastetxeko alderdiei buruzko azterketan agertzen dira.

## IRAKASLEEN ETA ESKOLA-KONTSEILUKO KIDEEN EZAGUTZA AZTERTZEA

Irakasleekin eta eskola-kontseiluko kideekin egindako lanak koordinazio-taldeak materialei buruzko ezagutzaren bidez lortutako esperientzia du abiapuntu. Gure aholkua da taldeak prozesu bera jarrai dezala, gako-kontzeptuei buruzko aurretiazko ezagutza aprobetxatuz, eta gero, berau borobildu adierazleak eta galderak erabiliz, eta hori guztia lehentasunak lantzeko xedearekin.

Aurkibidea



Ikastetxearen tamaina bezalako arazoek, edo ikastetxea lehen edo bigarren hezkuntzakoa izatea zein ezagutza konpartitzen duen taldearen izaerak, hari buruzko informazioa biltzeko estrategia berezia baldintzatu dezakete. Bigarren hezkuntzako zentro handietan adibidez, ezinezkoa izango da irakasle guztiek batera lan egitea, sentsibilizaziorako hasierako bilkuran izan ezik. Prozesuko partaidetza, sail edo mailen araberako taldetan burutu daiteke, horietan koordinazio-taldeko kide batek lotura-lana eginez. Beharrezkoa gertatuko da izaera ezberdineko taldeak elkartzea, hainbat gai-bloke aztertze aldera.

*Index* prozesua egokia izan dadin, ez da ikastetxeko alderdiren bati buruzko iritzi-gutxiengoen adierazpena ukatu behar. Mota horretako hausnarketak eztabaidarako eta ikerketa handiagorako egokieratzat erabili beharko lirateke. Beharbada hori zaila izango da sail edo ikastetxe batzuetan, batez ere iritzi ezberdinen sorburua elkarrekiko mesfidantza bada. Ikastetxe batzuetan pentsamendu-ildo jakin bat jarraitzen ez bada, segurtasun-ezeko sentimenduak harrotu daitezke, promoziorako aukerak arriskupean ikusten direlako.

Erne ibili behar da irakasle batzuek euren iritzia besteen aurrean adierazi nahi ez izateko aukerarekin. Hainbat estrategia eduki behar dira pentsatuta informazioa ahalik eta pertsona-kopuru handienarengandik jasotzea errazteko, adibidez adierazleei eta galderei era indibidualean erantzuteko modalitateak erabiltzea (koordinazio-taldeko kide batek kudeatuta). Koordinazio-taldeak talde bereziak ezartzea pentsatu behar luke, bertan Eskola-kontseiluko kideen, langile laguntzaileen, jantoki zerbitzuko arduradunen eta esperientzia gutxieneko irakasleen kezkak azaltzeko.

## Etengabeko prestakuntzak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea

Irakasleen eskueran dauden eta ikastetxean bertan burutzen diren etengabeko prestakuntza-eskemak (mintegiak edo lantaldeak) aprobetxatzea oso erabilgarria izan daiteke informazioa biltzeko prozesuari hasiera emateko[11]. 8. Koadroan, eskema-eredu posible bat aurkezten dugu, 1. etapako jardueren ildo beretik. Guk ez dugu noski errezetarik eman nahi. Jarduerak hainbat bilkuratan antola daitezke, edo sail edo mailei egotzi, betiere koordinazio-taldeko pertsona batekin lan eginez. Prestakuntza-egun bat ikastetxe bat baino gehiago lankidetzarako asmoarekin lan egitera bideratzeko aukera izan daiteke.

**8. koadroa. Prestakuntza-egun bat irakasleekin. Ikastetxeko ikasketa eta partaidetza aztertzea**

| | |
|---|---|
| 9.30 - 10.00 | Indexari eta gako-kontzeptuei buruzko sarrera (irakasle guztiak). |
| 10.00 - 11.30 | Aurretiazko ezagutza konpartitzeko gako-kontzeptuak lantzea (taldeka). |
| 11.30 - 12.00 | Atsedenaldia. |
| 12.00 - 13.30 | Adierazleekin lan egitea (taldeka). |
| 13.30 - 15.30 | Bazkaria. |
| 15.30 - 16.30 | Adierazleekin eta galderekin lan egitea (taldeka); taldeetan adierazle-laginekin lan egitea (ordu erdi) eta jarraian, banakako edo talde txikikako lana gainontzeko adierazle eta galderekin. |
| 16.30 - 17.30 | Ideiak elkartrukatu hobetzeko eta ikerketa gehiagorako arloei buruz (irakasle guztiak). |
| 17.30 - 17.45 | Prozesuko hurrengo urratsak (koordinazio-taldearen zuzendaritzapean eta irakasle guztiekin). |

[11] Ingalaterran irakasleek urtero egun batzuk dituzte prestakuntza-jarduretan era librean erabiltzeko. Proposatzen den eskema ikastetxe bateko irakasle guztiek aukeratutako «prestakuntza-egun baterako» da.

Beharrezkoa da plangintzaren aurreko bilkura bat edo egun hori baino lehenagoko bilkura bat planteatzea, taldeetako arduradunek beharrezkoak diren materialak erabaki ditzaten (adierazleen gardenkiak eta adierazleen lagin bat dagozkion galderekin). Adierazleak aztertzeko erari buruz eta adierazleen galdesortaren kopiak ea behar izango diren erabaki egin behar da. Adierazleen eta galderen kopiak eduki behar izango dira eskueran, baita irakasle bakoitzeko laburpen-orri bana ere. Talde ezberdinek adierazitako iritziak jasotzeko eta laburpen-orriak biltzeko neurriak hartu behar dira.

Materialekin egindako lanaren esperientziagatik, koordinazio-taldeak gaitasuna izango du erabakitzeko zenbat denbora beharko den zeregin horiek betetzeko. Beharbada ezinezkoa da irakasleek euren zereginak egun batean bukatzea, adierazleak eta galderak zehaztasunez aztertzen badira. Neurriak hartu behar dira irakasle guztiek adierazle eta galderei erantzuteko eta laburpen-orria betetzeko gai direla kontuan hartuz jarduerekin jarraitzeko. Egunaren buruan zeregin guztiak amaituta izan edo ez, inportantea izango da irakasle guztiak biltzea, ideiak elkartrukatzeko eta hobetzeko prozesuan garatu beharreko hurrengo urratsak esplikatzeko.

### Hobetzea eta ikerketa gehiago behar duten behin-behineko arloak

Prestakuntza-eguneko azken aldean, hobetu daitezkeen arloei buruzko ideiak agertzen hasiko dira, baita ikerketa gehiago behar duten arloei buruzkoak ere, aldaketak egin behar diren ala ez erabaki baino lehen. Adierazle bati edo adierazle-multzo bati buruzko, edo galdera bati edo galdera-multzo bati buruzko lehentasunak kontuan hartu beharko lirateke *Index*eko dimentsio eta atal bakoitzean. Praktikan, zenbait gairen inguruan irakasleek berehala hasi nahiko dute lanean. Beste gai batzuk, aldiz, informazioa bateratzean identifikatuko dira. Dena den, lehentasun batzuk kontsulta erabat bukatu denean agertuko dira soilik.

### Irakasle eta eskola-kontseiluko kide guztiak kontuan hartuak izateko aukera bermatzea

Beharbada irakasle eta eskola-kontseiluko kide batzuk ez dira bertaratuko azterketa-lana egiteko erabilitako egunean. Beharrezkoa da, beraz, beste bilkura batzuetan edo materialen azterketa indibidualetan eurak kontuan hartzeko ahalegina egitea.

### Eman beharreko urratsak planeatzea

«Prestakuntza-egun bat» erabiltzen aritzekotan, koordinazio-taldeko zuzendariak laburpen bat egingo du bildutako informazioa eta adierazitako iritziak tratatzeko erari buruz. Koordinazio-taldeak informazioa biltzea amaitu behar du eta horrekin konparaketa-lanak egiten hasi. Ikasleekin, familiekin eta komunitateko beste kide batzuekin tratatu behar diren gai zehatzak identifikatu behar dira. Xede horrekin, 4. zatiko 2. galdesorta erabili behar da, dagoen bezala edo beharrezkotzat jotzen dena erantsiz.

## IKASLEEN EZAGUTZA AZTERTZEA

Ikastetxe pilotuetan, ikasleen ikusmoldea izan zen esklusioko prozesuei buruz hausnarketa berriak eman zituena, baita ikastetxeetan has zitezkeen inklusio-aukerei buruz ere. *Index*aren inguruko lana curriculumaren barnean sar daiteke, adibidez komunikazioa tratatzean, edo «informazio-bilaketa»ko lanetan, edo zeharkako gaietan. Lehenago planteatu dugun bezala, ikastetxe pilotuetan, ikasleekin galdesortak lantzeko era onena taldekako eztabaida zela ohartu ziren. 4. zatian (2. galdesortan) adierazleen zerrenda erraztu eta labur bat aurkezten dugu, eta horretara galdera zehatzak gehitu daitezke ikastetxeak gai jakin batzuen inguruko iritziak lortu nahi dituenean. Ikasle batzuek galderei erantzuteko laguntza behar dute. Informazioa biltzeko aukeratzen den edozein metodok, aldaketarako lehentasunak identifikatzera animatu behar luke azkenean.

**«GALDESORTAREN ERABILERA ETA ONDOREN IKASLEEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETAK OSO ERABILGARRIAK IZAN DIRA. INDEXA ERABILI ZUEN IKASTETXE BATEK IKASLE-KONTSEILU BAT SORTZEKO ASMOA DU. IRAKASLEEK SERIO HARTU DUTE IKASTETXEAK BESTE KULTURA BATZUK ESTIMUTAN EZ DITUELA DIOEN IKASLEEN IRITZIA»**

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

Aurkibidea



## FAMILIEN ETA KOMUNITATEKO ERAKUNDEETAKO KIDEEN EZAGUTZA AZTERTZEA

«*INDEX*AREKIN EGINDAKO LAN PROBETXUGARRIENA, FAMILIEKIN ETA IKASLEEKIN DIMENTSIOEI ETA ADIERAZLEEI BURUZ EDUKITAKO EZTABAIDAREN ONDORIOZ GERTATU ZEN».

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

Erabilgarria izan daiteke familiei eta komunitateko beste kide batzuei kontsultatzeko erak planeatzea, era horretan *Index*ak ikastetxearen eta familien arteko komunikazioa hobetzeko duen helburua betez. Familientzako galdesortak ere presta daitezke adierazleen zerrenda labur bat abiapuntutzat hartuz eta galdera zehatzak gehituz. 4. zatian (5. galdesortan), ikastetxe batean erabilitako gurasoentzako galdesorta baten adibide bat aurkezten dugu. Galdesorta gurasoen elkarteko kideen laguntzaz eraiki beharko litzateke, eta eurek, aldi berean, gurasoei kontsultatzeko talde zehatzak antolatzen lagundu beharko lukete. Ikastetxe batean, gizarte laneko langile batek eta koordinazio-taldeko kide batek elkarrekin egin zituzten galderen itzulpenak beste hizkuntza batean hobeto moldatzen ziren familientzat, eta talde horientzako interprete-lanean aritu ziren.

Taldeak galdesorta batekin hasi beharko lirateke, eta eztabaida orokorrago batekin jarraitu, ondorengo galderak landuz:

- Zerk lagunduko luke zuen seme-alabek ikastetxe honetan duten ikaskuntza hobetzen?
- Zer egin dezake ikastetxeak zure seme-alaba ikastetxean zoriontsuago sentitzeko?
- Ikastetxe honetako zein gauza aldatu nahi zenituzke?

Erabilgarria izango litzateke familien iritzi partikularretatik haratago joatea eta kontuan hartzea ikastetxea inguratzen duten komunitateko erakundeen barnean era orokorrago batean daudenak. Ikastetxea kokatuta dagoen gizarte-testuinguruaren osaera beharbada ez dago nahiko islatuta ikasle-populazioaren barnean, adibidez etnia, urritasun eta klaseari dagokionez, eta ikastetxeak beharbada horien ordezkaritza adierazgarriagoa jasotzea nahi du. Komunitateko kideen iritziak kontuan hartuz, prozesu honi lagundu ahal zaio.

Bangladeshtar jatorriko ikasle-kopuru handi bateko ikastetxe batean, bilkura bat antolatu zen Bangladesh-eko komunitateko kideekin euren ustez seme-alaben hezkuntza-aurrerapena zerk eragozten zuen entzuteko. Dena den, oso jende gutxi bertaratu zen. Ondoren, herriko gizarte-aholkularitzako zerbitzuko eskarmentudun (eta bangladeshtarren komunitateko) kide baten laguntzaz beste bi kontsulta antolatu ziren. Kontsulta horiek meskita batean eta komunitatearen etxean egitea erabaki zuen. Bi kontsultetan interprete-lanak egin zi-

«SENTSIBILIZAZIO BAT SORTU DA FAMILIEKIN KOMUNIKATZEKO ETA EURAK BARNE HARTZEKO EREI BURUZ»

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

### FAMILIAK IKASTETXEAN DUEN PARTAIDETZA

Lehen hezkuntzako ikastetxe honetan, umeen %96 asiar jatorrikoak dira, batez ere jatorria Pakistango bi herritan duten familietakoak. Ikastetxeak 14 irakasle eta 8 laguntzaile ditu, eta horietako batzuk elebidunak izateaz gain, ikasleen antzeko jatorria dute. Oraindik orain egindako ekimenen artean, familia-ikastetxearen arteko elkarreragina nabarmendu da. Adibidez, tailer erregularrak ezarri dira familiako kideek euren seme-alaben irakurketa sustatu dezaten laguntzeko. Zuzendariak uste du aldaketa horiek ikastetxean lan-modalitate inklusiboagoak eratzen lagundu egin dutela.

Bi gurasok ikastetxeko *Index*aren koordinazio-taldeko kide moduan parte hartu zuten, eta taldean, gainera, zuzendaria, zuzendariordea, bi irakasle, haur hezkuntza elebiduneko laguntzaile bat eta «lagun kritikoarena» egiten zuen emakume pedagogo bat zeuden.

Ikerketako lehenengo jardueretako bat *Index*ari buruzko gurasoentzako/tutoreentzako bilkura bat antolatzea izan zen. Bilkura horretan, eztabaida pizteko, zenbait adierazle eta galderatan oinarritutako galdesorta erabili zen. Komunikazioan laguntzeko interprete batzuk ere erabili ziren. Bilkurara asko izan ziren bertaratutakoak, eta gurasoek/tutoreek kezka ugari planteatu zituzten. Zuzendariak sentitu zuen gertaera hori arrakasta izan zela, eta ikastetxean inklusioari buruzko eztabaida sustatzea lortu zuen, baita irakasleei hobetzeko lehentasunak azaleratzen lagundu ere.

tuen. Jende asko bertaratu zen eta informazio ugari bildu. Komunitateko kideek curriculumari buruzko kezka batzuk azaldu zituzten, baita etxerako lanak egiteko etxebizitzaz kanpoko toki baten premia zutela eta Bangladesh bisitatzera doazen ikasleen absentzientzako eta komunitateak Eskola-kontseiluan izan beharreko ordezkaritzari erantzun egoki baten beharra ere.

## HOBETU BEHARREKO LEHENTASUNEI BURUZ ERABAKITZEA

Ikastetxe barneko kultura, politika eta praktikei buruz zer da tratatu beharrekoa ikaskuntza eta partaidetza hobetzeko?

### Datuak aztertzea

Hobetzeko lehentasunak prestatzeko asmoz, koordinazio-taldeak kontsultatutako pertsona bakoitzaren ekarpenak aztertuko ditu. Horrek esan nahi du konpartitu beharreko lan-kopuru nabarmena dagoela egiteko, batez ere ikastetxe handietan. Kanpo-behatzailea edo «lagun kritikoa» prozesu honetan laguntzeko duen gaitasunagatik aukeratu beharko litzateke. Kontsulten izaera dela eta, informazioa jaso ahala konparatu egin daiteke. Aholkatu egiten da, printzipioz, ikasleen, familien, irakasleen eta eskola-kontseiluko kideen informazioa bereizita edukitzea, gizatalde horien ikusmoldeen araberako ezberdintasunak azaleratu eta aztertzeko. Garrantzitsua izan daiteke bereziki irakasleen azpitaldeak bereizita behatzea, adibidez, ikasgelako laguntzaileak eta laguntzako irakasleak. Desiragarria izango litzateke ikastetxeko sail ezberdinen informazioa aparte konparatzea.

### Informazio gehiago biltzea

Hasierako kontsultetan, informazio gehiago bilduz argitu daitezkeen gaiak identifikatuko dira. Kezka horietako batzuk beharbada kontsulta-prozesuan garatutakoak dira, adibidez irakasleek beste gizataldeei egiteko galderak identifikatzen dituztenean. Dena den, agian beharrezkoa izango da koordinazio-taldeak lehentasunak ezartzearen lana amaitu baino lehen informazio gehigarria jasotzea. Koordinazio-taldeak informazioa eskuratzea eskatzen duten arloak identifikatu beharko ditu, baita berau biltzeko era eta bildu zein aztertzeko arduraduna nor izango den ere. Adibidez, beharbada pertsona batek edo bik izango dute euren gain ikasle bat diziplinazko arrazoiengatik bere taldetik kanporatua izan den egoerei buruzko ezagutzaren ardura. Beharrezkoa izan daiteke ikastetxearen barnean jada eskueran dauden ebidentziak aztertzea, esate baterako, ikaslearen bertaratzeen erregistroa edo etsaminen emaitzak. Informazio gehiagoren bilketa hobetzeko lanarekin harmonizatu daiteke. Adibidez, C dimentsioarekin lotutako lehentasunetarako, beharrezkoa izan daiteke irakasleek edo klaseko laguntzaileek besteen praktika behatzea eta horri buruz hausnartu behar izatea, irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko ideiak planteatze aldera.

### Lehentasun-zerrenda bat prestatzea

Informazioaren azterketa dimentsioak eta atalak dauzkan eskema bat erabiliz antola daiteke, 9. Koadroan agertzen den bezala. Lehentasunekin bukatzeak ez da besterik gabe gehiengoak identifikatutako alderdiak sartzea. Aldiz, ikastetxeko gizatalde zehatzen premiak arretaz aztertzea eskatuko du. Koordinazio-taldeak ziurtatu beharko du etapa honetan botere gutxieneko gizataldeen iritziak aintzat hartuko direla eta azkeneko zerrendan ikasleen eta, bereziki, familien ahotsa agertuko direla. Lehentasunak nabarmen ezberdinak izango dira eskalari dagokionez, baita horiek ezartzeko denboraren eta baliabideen aldetik ere. Epe laburreko eta epe luzeko lehentasunen nahastu beharko lirateke. 10. Koadroan, ikastetxe pilotuetako lehentasunen adibide batzuk ematen dira.

Koordinazio-taldeko kideek behatu egin behar dute dimentsio batean identifikatutako lehentasunek gainontzeko bietan lan egiteko orduan nolako eragina duten. Ikastetxeek euren baitako inklusioa hobetzeko kontuan hartu beharreko arloetako gida dira atalak, eta tal-

deak arretaz pentsatu behar du arlo horietako bakoitza ordezkatzen duten lehentasunak identifikatu ote diren. Adibidez, beharbada beste arlo batzuetan identifikatu diren lehentasunak baliabideak mobilizatzeko lana esan nahi du, nahiz eta printzipioz horrela kategorizatuta ez egon. Halaber, beharbada *Index*aren atal batzuk ikastetxeko hobetzeko planetan identifikatuak izan dira jada.

Koordinazio-taldeak bere proposamenetarako eskema argia garatu duenean, irakasleekin eta eskola-kontseiluko kideekin negoziatu beharko ditu.

## 9. KOADROA. HOBETZEKO LEHENTASUNEN LABURPENA

A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea
Komunitatea eraikitzea Adierazleak/galderak/beste gai batzuk:

Inklusio-balioak ezartzea Adierazleak/galderak/beste gai batzuk:

B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea
Guztiontzako ikastetxea garatzea Adierazleak/galderak/beste gai batzuk:

Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea Adierazleak/galderak/beste gai batzuk:

C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea
Ikaskuntza prestatzea Adierazleak/galderak/beste gai batzuk:

Baliabideak mobilizatzea Adierazleak/galderak/beste gai batzuk:

## 10. KOADROA. *INDEX*EKO IKASTETXE PILOTUETAKO LEHENTASUNEN ADIBIDE BATZUK

1. Estrategiak garatu, curriculumaren bidez, ikasleen autoestimua hobetzeko.
2. Irakasleentzako prestakuntza-jarduerak sartu, klaseetako aniztasunari hobeto erantzuteko.
3. Langile laguntzaileek partaidetza handiagoa edukitzeko egiturak ezarri.
4. Ezgaitasunak dituzten ikasleak eta helduak ikastetxera errazago sartzeko alderdi guztiak hobetu.
5. Irakasleak prestatzeko programa bat sortu, ikasleen perspektibak ulertzeari buruzkoa.
6. Ikastetxean kultura-artekotasunaren aldeko jarrera positiboak sustatu, ikasle batzuen eta euren familien arrazakeriari aurre egiten laguntzeko.
7. Laguntza pedagogikoko laguntzaileentzat eta irakasleentzat laguntzarako prestakuntza antolatu.
8. Ikasleen artean elkarlaneko ikasketa sustatzeko erak garatu.
9. Ikastetxeko intimidazioaren kontrako politikak berrikusi.
10. Ikasle berrientzako harrera-prozesuak hobetu.
11. Ikasleekin ikastetxeko politikak eztabaidatzeko erak berrikusi.
12. Familia eta ikastetxearen arteko komunikazioa hobetu, gurasoekin/tutoreekin lan eginez.
13. Komunitateko erakundeen baitan ikastetxeak duen ospe txarra tratatu.

3. etapa

# ORIENTAZIO INKLUSIBO BATEKIN IKASTETXEA HOBETZEKO PLANA PRESTATZEA

*Index*aren hirugarren etapan beharrezkoa da plangintza-taldeko kideek ikastetxea hobetzeko plana berrikus dezatela. Taldeak erabaki behar du plana zenbateraino aldatuko duen, *Index*arekin egiten den lanaren arabera. Ikastetxea hobetzeko planean[12] 2. etaparen amaieran irakasleekin adostutako lehentasunak sartuko dituzte. Etapa hau hiruhilabete erdiko epean burutu beharko litzateke.




## *INDEXA* IKASTETXEKO PLANGINTZAREN PROZESUAN SARTZEA

3. etaparen deskribapena «*Index*aren prozesua, ikastetxea hobetzeko planean sartzea» ere bada. Plangintza-taldeak erabaki beharko du *Index*aren prozesuarekin jarraitzea ea lehentasun bat den ikastetxearen plangintzan, edo ea prozesu hori, ikastetxearen premiei egokituta, etengabeko hobekuntzaren helburua berrikusi eta mantentzeko eredu nagusia bihur daitekeen. Beharbada, ikastetxe batzuek erabakiko dute inklusioak euren plangintza guztia hartu behar duela. Plangintza-taldeak, planaren barneko goiburukoak erabakitzeko orduan, *Index*a zenbateraino erabiliko duten erabaki beharko du. Gure aholkua da dimentsioen eta atalen goiburukoak erabiltzeak ikastetxeko jardueretako arlo guztietan inklusioaren aldeko mugimendu orokorra lagundu dezakeela.

**«*INDEX*A ERABILI ETA GERO, KONTURATU NINTZEN INKLUSIOA... IKASTETXEKO KULTURA ETA BALIOEI DAGOKIELA»**

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

[12] Gure testuinguruan berriztapen-proiektuak, ikastetxeko prestakuntza-planak eta hobetzeko proiektu estrategikoak dira.

Aurkibidea



**«*INDEX*AREN PROZESUAK EPE LUZEAN IKASTETXEAK BERE HOBETZEKO PLANEN BARNEAN LEHENTASUN MODUAN TRATATU BEHARREKO GAIAK IDENTIFIKATU DITU».**

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

## FILOSOFIA INKLUSIBO BATEAN OINARRITUZ ERAIKITZEA

Ikastetxe honek 10 urte daramatza funtzionatzen, eta eraikin erakargarri eta txukun batean dago kokatuta. 480 ikasle daude bertan, 9 eta 13 urte artekoak. Barrutia, ekonomiaren aldetik, pobrea da eta umeen %50 inguruk doan jaten dute eskolan. Zuzendariak oso konpromiso estua du hezkuntza inklusiboarekin, umetan poliomielitisa izan zuelako; bere gurasoak ikastetxe arrunt batean hezi zedin borrokatu ziren. Berak esan zuen bezala: «Neska-mutilek ikastetxe arruntetan egoteko eskubidea dute… Ikastetxeek aldatu beharko lukete hori hala gertatu ahal izateko».

Ikastetxean ikusmen-urritasunak dituzten sei ume daude, nahiz eta «integraziorako» ikastetxetzat izendatuta ez egon. Besterik gabe, ospea hartu du urritasunak dituzten neska-mutilak ongi etorriak direlako. Ikastetxeak soilik hamar urteko ume bat ez du onartu. Ikastetxean bost aholkulari pedagogiko dituzte, baina eginahalak egiten dira ume jakin baten «bizkartzain» bihurtuko ez direla ziurtatzeko.

*Index*eko koordinazio-taldeak ordezkaritza zabala zuen, gurasoak/tutoreak eta eskola-kontseiluko kideak barne, baita bi lagun kritiko ere. Taldeak *Index*a ikastetxearen plangintza-prozesuan integratzea erabaki zuen, jada irakasle guztientzat «inklusiboa» zena. Bilkura batzuk egin behar ziren, ikasgaietako koordinatzaileek euren lankideei urte osoan zehar egindako lorpenak jakinarazteko. Agenda hurrengo urterako aldatu zenean, aurrekontuari buruzko xedeak eta konpromisoak negoziatu ziren. Zuzendariak, prozesu honetan partaidetza handitzeko bitarteko moduan ikusten du *Index*a, baita ikasketarako eta partaidetzarako traben identifikazio eta konponketa sendotzeko ere. Ikasleentzako eta irakasleentzako galdesortak egin dira. Laguntza pedagogikoko koordinatzailea informazioa aztertzeaz arduratu zen, bere goi mailako ikasketen zati moduan.

Ikastetxeak inklusioa garatzeko lehentasun batzuk identifikatu zituen. Eurek estrategia orokorra nahi zuten «ikasle guztiei arrakasta edukitzeko aukera curricularrak emateko». Hori bihurtu zen, hain zuzen ere,. ikastetxea hobetzeko planaren helburu nagusietako bat hurrengo urterako, eta horrek irakasleentzako prestakuntza-jarduerak eskatzen zituen.
Ikasle batzuek esan zutenez, irakasleek eta batzuetan beste ikasle batzuek ez zieten «entzuten». Orduan, zeuden komunikazio kanalak, ikasleen foroa barne, hobetzeko plan bat jarri zen abian. Irakasleek guztien interesari eusteko moduko sakoneko eztabaidetara bultzatu zituzten ikasleak, eta guztiek parte hartzea eragiten zuten, betiere liderraren lagunei lagundu gabe.

Inklusioa aztertzeko ikastetxe osoan batzarrak egiteko planak sortu ziren. Gaien artean: urritasunak eta ezgaitasunak; beldurra sartu eta pertsonei beren izenez deitzea; lantaldean aritzea eta lankidetza; norbanakoen ezberdintasunak errespetatzea; enpatiaren alderdiak; komunitatearen esanahia, nazio zein nazioarte mailan; behar duten beste batzuei laguntza ematea. Zuzendariak adierazi zuen urritasun eta ezgaitasunei buruzko batzar hori izan zela ikasleei euren urritasuna zuzenean aitortu eta haiekin berari buruz eztabaidatu zuen lehenengo aldia.

Aurkibidea



*Index*aren koordinazio-taldea eta ikastetxeko plangintza-taldea ea berdinak izango diren erabaki behar da. Gauzak errazteko, puntu honi buruz, dokumentu honetan uste dugu ikastetxeko plangintza-taldea dela orain *Index*aren lana aurrera eramateko arduraduna.

## HOBETZEKO PLANEAN LEHENTASUNAK SARTZEA

Plangintza-taldeak hobetu beharreko lehentasunak adostu ditu, 2. etapan prestatutakoak. Hori ikastetxeko plangintzan integratu behar da. Lehentasun bakoitza zehaztasunez aztertzen da, denborazkotasunari, baliabideei eta irakasleen prestakuntzari dagokionez dituen ondorioei erreparatuz. Lehentasun bakoitzaren aurrerapena kontrolatzeko erantzukizun orokorra, plangintza-taldeko kide batek hartu beharko luke; hala ere, garatu beharreko lanaren ardurak zabalago banatu behar dira. Lehentasunen ezarpenean aurrera egiteko irizpidea ezarri beharko da. *Index*eko galderak erabilgarriak izan daitezke hemen, eta horiek osatzeko, ikastetxean, bertako antolamendu eta kultura zehatzak direla-eta, sortzen diren kezka zehatzak gehitu daitezke.

Ikastetxeetako batean, *Index*arekin lan egindako lehen urtea «soka-saltoan aritzea» bezalakoa zela adierazi zuten, irakasleak prozesua eta dagoeneko existitzen zen ikastetxea hobetzeko zikloko aldaketekin konbinatzen saiatu baitziren. Ikastetxeek eskola-plangintza burutzeko era ezberdinak dituzte. Ikastetxe batzuek hiru urteko planak dituzte, eta beste batzuek, aldiz, bost urterako planeatzen dute. Batzuek hurrengo urterako plan zehatza egiten dute, eta beste batzuek, aldiz, hiruhilabete bakoitza zehazten dute soilik. Ikastetxeek erabaki egin behar dute planean dagoeneko badauden lehentasunak ea ikastetxeko hobekuntza inklusiboaren barnean sar daitezkeen eta ea materialaren epigrafeetatik kanpoko lehentasun gehigarririk dagoen.

**«*INDEX*AREKIN EGINDAKO LANAREN ONDORIOZ, IRAKASLEAK ETA UMEAK INTIMIDAZIOAREN KONTRAKO GURE POLITIKAREN ERAGINKORTASUNA EBALUATZEN ARI DIRA».**

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

**«GURE SAILAK JAUZI NABARMENA EGIN DU INKLUSIOAREN ALDE, ETA *INDEX*AK, IKASTETXEEI LAGUNTZEKO PROZESUARI BURUZKO GURE HAUSNARKETA NEURTZEN LAGUNDU DIGU».**

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

4. etapa

# HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK EZARTZEA

*Index*aren laugarren etapa honetan, ikastetxea hobetzeko planaren lehentasunak ezarri eta horien garapenari eutsiko zaio. Hobetzeko jardueretarako, etengabeko ikerketak beharko dira ikastetxe barnean, eta beraz, ikerketa-ekintza era bat bihurtuko da. Hala laguntza-lanaren eta komunikazio on baten bidez nola ikastetxeak ikasleentzat eta irakasleentzat inklusiboagoak egiteko motibazioaren bidez eusten zaie aurrerapenei. Horiek behatu, ikastetxea hobetzeko planaren irizpidearen arabera ebaluatu, eta hiruhilabete erdiko epeetan aurrerapenei buruzko txostenak egingo dira. Etapa honek bere bidea jarraituko du lehentasunak ikastetxeko plangintzaren zati bihurtzen direnean.




## LEHENTASUNAK PRAKTIKAN JARTZEA

Lehentasunak praktikan jartzeko, hobekuntzarako ikerketa sakonean aritzeko aldi bat behar izan daiteke. Esplorazio handiago hori adierazleen eta galderen bidez gidatu daiteke. Ikastetxeetako arazo errealetan oinarritutako bi adibidek argitu egiten dute, laburtuta, ikastetxeek nola egin dezaketen lan *Index*eko materialekin, ikerketa-ekintzan laguntzeko.

Bigarren hezkuntzako ikastetxe batean, irakasleek erabaki zuten laguntzaren koordinazioa lehentasuna zela ikastetxearentzat. B.$_{2.1}$tik B.$_{2.6}$ra arteko adierazleekin lotutako laguntza-politikengatik kezka agertu zuten. Arazo zehatzak zeuden laguntzako irakasleak koordinatzeko erari buruz. Ez zegoen baterako planik ikastetxeko laguntzako irakasleen artean (lagun-

«*INDEX*AK FROGATU EGIN DU IKASTETXEA HOBETZEN LAGUNTZEKO PROZESU ERABILGARRIA DELA. GURE PENTSAMENDUA ARGITZEN LAGUNTZEN DIGU, ETA PROZESU METODOLOGIKO BAT EMAN, UNEKO GURE EGOERAREN AZTERKETA ZORROTZA BURUTZEKO»

(*Index*aren proba pilotuetatik ateratako komentarioa)

tzako irakasleak oro har eta ingelesa bigarren hizkuntzatzat irakasten zutenak), ezta jokabide-arazoak zituzten ikasleei laguntzeko aldian-aldian ikastetxera bertaratzen ziren laguntzako irakasleekin ere. Irakasleek erabaki zuten ikastetxean zegoen egoera zehaztasunez aztertzea, adierazleekin lotutako galderak elkarrekin landuz. Elkarren praktikak behatu zituzten sei astez, eta gero, bildu egin ziren euren behaketa eta lankidetza-aukerei buruz eztabaidatzeko. Behatu zituzten ikasleekin hitz egitea erabaki zuten, emandako laguntzaz zuten esperientziari buruz, laguntza euren ikusmoldetik ulertzeko. Egindako aurkikuntzak ikastetxearen barneko laguntzarako politikei buruzko kontsulta orokor batekin amaitu zituzten, eta berau, curriculum-berriztapeneko gaiei buruzko ardura zuen esperientzia handiagoko irakasle batek gidatu zuen.

Lehen hezkuntzako ikastetxe batean ikasle eta familien bidez jakin izan zen, ikasleen artean intimidazioa ikastetxeko kezka zehatz bat zela. Ikastetxeko plangintzako taldeak, B.$_{2.9.}$ adierazleko galderak erabiltzea erabaki zuen. «Intimidazioa[13] murriztu egiten da» beldurra sartzeari buruzko jarrera eta esperientzien esplorazio bat zehaztasunez egituratzeko. Zehazki, ondorengo galderak landu zituzten:

- Ba al dago iritzi bateraturik irakasle, familia, eskola-kontseiluko kide eta ikasleen artean intimidazioari buruz?
- Intimidazioa al da adiskide bat galtzeko beldurra?
- Ba al dago intimidazioari buruzko adierazpen politiko argirik eskueran eskola-kontseiluko kide guztientzat, irakasleentzat, ikasleentzat, familientzat eta komunitateko beste kideentzat, ikastetxearentzat zein jokaera den onargarria eta zein ez zehatz azaltzen duenik?
- Ba al dago pertsona-talderik eskueran ikasleek intimidazioari buruzko arazoak eztabaidatzeko, ikasleek babesa dutela sentitzeko moduan?
- Ikasleek ba al dakite norengana jo beldurra sartzen badiete?
- Intimidazioari buruzko gertaeren inguruko erregistroak argi eta garbi gordetzen al dira?
- Gutxitu al da intimidazioa?

Kezka horien garrantzia eta izaera ezarri ondoren, hizkuntza ikasgaiaren barnean hainbat gairi (adiskideei buruzko irakurketa, eztabaida eta idazketa) buruzko lan bati ekin zioten. Foro bat eratu zuten intimidazioaren prebentziorako eta hori gutxitzeko ikasleek euren ekarpenak egin zitzaten. Ikastetxearen politika berria osatu zen intimidazioaren kontra, ikasleen hizkuntzetan eskueran edukitzeko moduan, eta berau argitaratu eta zabaldu egin zen. Intimidazioari buruzko gertaeren inguruko erregistroak gordetzeko sistema argi batek ikasle batzuen jokaera-ereduak identifikatzen lagundu egin zuen. Irakasleek gertatutako aldaketak ebaluatu zituzten, ikerketa berriro eginez eta eztabaidatuz, betiere *Index*eko galderak erabiliz. Horretarako, intimidazioa gutxitzeko bi hiruhilabetetan egindako lana kontuan hartu zen eta galderei ikastetxeko gehigarri zehatzak erantsi zitzaizkien.

## HOBETZEKO PROZESUARI EUSTEA

Lankidetzazko harremanak hobetzea, *Index*eko ezinbesteko ezaugarri bat da. Plangintza-taldea saiatu beharko litzateke aurrerapenek irakasleen eta ikastetxean dauden gainontzekoen partaidetza laguntzen dutela ziurtatzen, eta gainera, ikasleen ikaskuntza zein partaidetza bultzatzen ere. Irakasleek beste sektoreen esperientzia aprobetxa dezakete, baita zereginak konpartitu eta elkarri laguntza eman ere.

Baliteke irakasle, ikasle edo guraso batzuk bat ez etortzea ikastetxean hobekuntza jakin bat egitearekin. Plangintza-taldeak irakasleak motibatu behar ditu, era horretan euren iritzi-ezberdintasunak eztabaidatzeko eta kritika eraikitzailea erabiltzeko hobekuntzak birdefinitzeko, hartara, ikastetxeko pertsona ahalik eta gehienentzat adierazgarriak izateko moduan. Plangintza-taldeak ziurtatu beharko luke ikastetxea hobetzeko planaren aurrerapenei buruz jakinaren gainean daudela denak, adibidez ondorengoen bidez: batzarrak, irakasleen bilkurak, irakasleen prestakuntza-egunak, buletinak, tutoretzak, jarduerak, ikasleen kontseiluak, berri-panelak eta komunitateko erakundeak. Informazioa emateaz gain, komunikazioak pertsonei entzutea esan nahi du, eta batez ere, entzunak izateko aukera gutxien dutenei.

---

[13] «Bullying» jarrerei buruz ari da, gure artean «kidekoen arteko botere-gehiegikeriazko tratu txarrak» deitutakoa.

Ezarpen-etapan parte hartzen duten pertsona guztien konpromisoari eutsi behar zaio. Konpromiso orokor horri eustea ezinbestekoa izango da hezkuntza inklusiboaren aldeko hobekuntza-lanarekin jarraitzeko. *Index*aren prozesuak ikastetxeko kide guztien sinismenen azterketa kritiko sakona eskatzen du. Ez da ikastetxearen 2. etapako esplorazioan amaitutako azaleko jarduera bat. Plangintza-taldeko kideek eta beste batzuek jarduerak antolatu behar dituzte urteen poderioz kultura inklusiboagoa sortzeko. Horrek, neurri batean, ikastetxearen politikak eta praktikak aldatzeko irakasleen, eskola-kontseiluko kideen, ikasleen eta familien partaidetzari eutsiaraziko dio.

## AURRERAPENA ERREGISTRATZEA

Plangintza-taldeak bermatu egin beharko luke aurrerapenei buruzko txostena prestatzen dela, hiruhilabetearen erdialdean, 3. etapan ezarritako hobetu beharreko lehentasunen inguruko irizpideen arabera. 3. etapan, aurrerapen bakoitzaren pertsona arduraduna esleituko da. Lehentasun bakoitzean interes orokorra duen plangintza-taldeko pertsona bakoitzak, aurrerapena kontrolatuta eta erregistratuta egoteko erantzukizuna hartuko du, baita eraginpeko taldearen eta irakasleen kontsultarekin bat datozen aldaketak egitekoa ere. Ebaluazioetan eztabaidak egingo dira irakasle, ikasle, eskola-kontseiluko kide eta familiekin, baita politikei buruzko dokumentuak aztertu eta praktikak behatu ere. Taldeak, hobetzeko lehentasunak adierazteko balio duten adierazle eta galderak berriro kontsultatu nahi izan ditzake.

Aurkibidea



5. etapa

# *INDEX*AREN PROZESUA EBALUATZEA

*Index*arekin lan egiteko bosgarren etapa honetan, plangintza-taldearen kideek 2. etapan identifikatutako eta 4. etapan abian jarritako hobekuntza-lehentasunen aurrerapen orokorra berrikusten da. Kontuan hartuko da, halaber, kultura inklusiboak sortzeko, politika inklusiboak eragiteko eta praktika inklusiboak hobetzeko egindako edozein aurrerapen, eskola-hobekuntzan laguntzeko *Index*az egiten den erabileraren berrikuspenaren barnean. Dimentsio, adierazle eta galderek, ikastetxe jakin batera egokitzen direnean, rol nagusia betetzen dute ikastetxeko aldaketen irismenaren esplorazioan eta ikastetxea hobetzeko hurrengo urteko planaren lehentasun berriak zehazten hasterakoan. Etapa hau, 4. etapa bezala, lehentasunak identifikatzen direnean hasiko da.




## AURRERAPENAK EBALUATZEA

Aurrerapenak ebaluatze aldera, plangintza-taldeko kideek 4. etapako ebidentzia bildu eta berrikusten dute. Aldaketei buruz hausnartu egiten dute, ikastetxea hobetzeko planeko irizpideen arabera. Abian jarritako aldaketen ikasturtean sortutako adierazle eta galderetara itzuli behar dira, eta ideia bat eratu beharko dute lan hau hurrengo urtean egin behar den erari buruz. Aurrerapena, halaber, ikastetxearen bigarren ebaluazioaren emaitza moduan ebaluatu behar da, eta plangintza berriaren hasieran dimentsioak, adierazleak eta galderak erabili.

## *INDEX*AREKIN EGINDAKO LANA BERRIKUSTEA

*Index*aren prozesuan lan egitea, ebaluatu behar den hobetu beharreko lehentasuna da. Plangintza-taldeak *Index*a erabili duen era berrikusi behar du, baita prozesuan izan duen rola ere, eta erabakiko du, halaber, dauden materialak ikastetxea hobetzen laguntzeko etorkizunean ahalik eta ondoen nola aprobetxatu. Kontuan hartu behar da *Index*ak zein punturaino lagundu dion ikastetxeari lan egiteko era inklusiboagoetan aritzeko orduan konpromiso handiagoak hartzeko.

Plangintza-taldeak hausnartu egin beharko du koordinazio-taldearen osaerak ikastetxeko plangintza-egiturekin duen loturari buruz. Ebaluatu egingo du bere zereginak burutzeko ea ondo prestatuta zegoen, nola egin zien kontsulta ikastetxeko beste talde batzuei, ikerketa zabalagoak egiteko eta lehentasunak praktikan jartzeko ardurak banatzean edukitako lorpen-maila, eta horiei laguntza emateko era. Lagun kritikoak oso baliagarria izan beharko luke prozesu horretan, betiere distantzia kritikoari eusteko gai izan bada. Dena den, autoebaluazio-mota honen arrakastarako, beharrezkoa da taldeko kide guztiek euren praktikei buruzko erronka nahia edukitzea. Plangintza-taldeak *Index*aren berrikuspen hau 11. koadroko galderekin lotuta egin behar luke.

**11. KOADROA. *INDEX*AREKIN EGINDAKO LANAREN BERRIKUSPENA**

- Nola egin du lan koordinazio-taldeak, zereginak prestatzeko orduan, taldearen osaketan, kideen arteko lan-banaketan eta beste batzuek egin beharreko lanaren banaketa egiterakoan?
- Zein punturaino egon da aldaketarik ikastetxean lan egiteko era inklusiboagoekin konpromiso handiagoa hartzeari buruz?
- Zein punturaino izan dira baliagarriak *Index*eko dimentsioak eta horren sei atalak ikastetxea hobetzeko plana egituratzerakoan?
- Zein punturaino asimilatu dira ikastetxeko politika eta praktiken inguruko hausnarketetan *Index*eko gako-kontzeptuak, adibidez inklusioa, ikasketarako eta partaidetzarako trabak, ikasketan eta partaidetzan laguntzeko baliabideak eta aniztasuna zaintzeko laguntza?
- Zein punturaino lagundu du *Index*arekin lan egiteko prozesuak lan egiteko era inklusiboagoak egon daitezen?
- Zein punturaino izan da inklusiboa kontsulta-prozesua, eta nork gehiago egin dezake ekarpenik hurrengo urteetan?
- Zein punturaino lagundu dute, oro har, *Index*ak eta, zehazki, dimentsio, adierazle eta galderek, aztertuta egon behar zuten lehentasunak edo lehentasunen xehetasunak identifikatzeko?
- Zein punturaino izan ziren egokiak informazioa biltzeko erabilitako metodoak, eta nola hobetu daitezke?
- Nola eutsi zaie lehentasunei eta nola hobetu daiteke prozesu hau?

## *INDEX*AREN PROZESUAREKIN JARRAITZEA

Prozesuaren azken etapa honetan, plangintza-taldeak ikastetxearen azterketa berri bati ekiteko *Index*a koordinatu eta prestatzeko era berrikusten du, dimentsio, adierazle eta galderetan oinarrituz. Ordurako, irakasle gehienei ezaguna egingo zaie *Index*a. Irakasle berriei *Index*aren prozesuak azaldu beharko litzaizkieke, harrera-programaren barnean, ikastetxeko partaide izatera pasatzean. Beraz, *Index*aren bosgarren etapa hau 2. etaparako itzulera bihurtzen da pixkanaka, baita eskola-plangintzaren jarraipena ere.




3. zatia

# DIMENTSIOAK, ATALAK, ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

Dimentsioak eta atalak • 61
Adierazleak • 63
Adierazleak eta galderak • 67

**Dimentsioak eta atalak**

**Adierazleak**

**Adierazleak eta galderak**

A dimentsioa: KULTURA inklusiboak sortzea

A.1 atala. Komunitatea eraikitzea

A.2 atala. Inklusio-balioak ezartzea

B dimentsioa: POLITIKA inklusiboak lantzea

B.1 atala. Guztiontzako eskola garatzea

B.2 atala. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

C dimentsioa: PRAKTIKA inklusiboak garatzea

C.1 atala. Ikaskuntza prestatzea

C.2 atala. Baliabideak mobilizatzea

3. zatia

# DIMENTSIOAK, ATALAK, ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

## DIMENTSIOAK ETA ATALAK

### A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea

A.1 ATALA Komunitatea eraikitzea
A.2 ATALA Inklusibo-balioak ezartzea

Dimentsio honen xedea da komunitate seguru, abegikor, lankidetzazko eta bizkorgarria sortzea norbanako bakoitza balioetsia izan dadin, hori baita ikasleek lorpen-maila handiagoak edukitzeko modua. Irakasle, ikasle, eskola-kontseiluko kide eta familia guztiek konpartitutako inklusio-balioak garatu nahi dira, eta horiek hezkuntza-zentroko kide berri guztiei transmititu.

### B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea

B.1 ATALA Guztiontzako eskola garatzea
B.2 ATALA Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

Dimentsio honen bidez, ziurtatu nahi da inklusioa berriztapen-prozesuaren bihotzean egotea, politika guztiak zipriztinduz, hartara ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza hobetu dadin. Laguntzatzat, hezkuntza-zentroak ikasleen aniztasuna zaintzeko gaitasuna handitzen duten jarduera guztiak jotzen dira. Laguntza-modalitate guztiak marko bakar batean biltzen dira, eta ikasleen garapenaren ikuspegia dute ardatz, ikastetxearen edo egitura administratiboen ikuspegia baino.

### C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea

C.1 ATALA Ikaskuntza prestatzea
C.2 ATALA Baliabideak mobilizatzea

Dimentsio honen bidez bilatzen da ikastetxeetako praktikak kultura eta politika inklusiboen isla izatea. Ziurtatu nahi da ikasgelako eta eskolaz kanpoko jarduerek ikasle guztien partaidetza eragiten dutela eta ikasleen eskola-inguruneaz kanpoko ezagutza eta esperientzia kontuan hartzen dutela. Irakasletza eta laguntzak, integratu egiten dira ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak gainditzeko modua ematen duen ikaskuntza prestatzeko. Langileek hezkuntza-zentroaren eta tokiko komunitateen baliabideak mobilizatzen dituzte guztion ikaskuntza aktiboari eusteko.

Aurkibidea

# ADIERAZLEAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

A.1.1. Mundu guztiak merezi du abegi egiten zaiola sentitzea.

A.1.2. Ikasleek elkarri laguntzen diote.

A.1.3. Irakasleak elkarrekin aritzen dira lankidetzan.

A.1.4. Irakasleek eta ikasleek elkar errespetatzen dute.

A.1.5. Irakasleen eta familien arteko lankidetza dago.

A.1.6. Irakasleek eta eskola-kontseiluko kideek ondo egiten dute lan elkarrekin.

A.1.7. Komunitateko erakunde guztiek hartzen dute parte ikastetxean.

## A.2. Balio inklusiboak ezartzea

A.2.1. Ikasle guztiei buruzko itxaropen handiak daude.

A.2.2. Irakasleek, eskola-kontseiluko kideek, ikasleek eta familiek inklusioaren aldeko filosofia konpartitzen dute.

A.2.3. Irakasleek uste dute ikasle guztiek garrantzi bera dutela.

A.2.4. Irakasleek eta ikasleek pertsonatzat hartzen dituzte eta «rol» jakin bat aitortzen zaie.

A.2.5. Irakasleak ikastetxean dauden ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ezabatzen saiatzen dira.

A.2.6. Ikastetxea bereizkeria-praktikak gutxitzen ahalegintzen da.

# ADIERAZLEAK

**B DIMENTSIOA    POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.1. Guztiontzako eskola garatzea

B.1.1. Irakasleen izendapenak eta promozioak bidezkoak dira.

B.1.2. Irakasle berri guztiei laguntzen zaie ikastetxera egokitzen.

B.1.3. Ikastetxea herriko ikasle guztiak onartzen saiatzen da.

B.1.4. Ikastetxeak bertako instalazioetako oztopo fisikoak kentzen ditu.

B.1.5. Ikasleei, ikastetxera lehenengo aldiz sartzen direnean, egokitzen laguntzen zaie.

B.1.6. Ikastetxeak ikaskuntza-taldeak antolatzen ditu ikasle guztiak balioetsita sentitu daitezen.

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

B.2.1. Laguntza-era guztiak koordinatzen dira.

B.2.2. Prestakuntza-jarduerek / irakasleen garapen profesionalerako jarduerek ikasleen aniztasunaren aldeko erantzunak ematen laguntzen diete irakasleei.

B.2.3. «Hezkuntza-premia berezietako» politikak politika inklusiboak dira.

B.2.4. «Praktikarako Kodea» (*) (ebaluazioko eta laguntza psikopedagogikoko praktikak) ikasle guztien ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak gutxitzeko erabiltzen da.

B.2.5. *Euskara/Gaztelania bigarren hizkuntzatzat ikasten duten ikasleentzako laguntza beste mota bateko laguntza pedagogikoarekin koordinatzen da.*

B.2.6. *Hezkuntza- eta psikopedagogi orientazioko politikak curriculum-garapeneko eta laguntza pedagogikoko neurriekin lotzen dira.*

B.2.7. Disziplinazko kanporaketak gutxitu dira.

B.2.8. *Klase-hutsegiteak gutxitu egin dira.*

B.2.9. Kidekoen arteko botere-gehiegikeriazko harremanak edo «bullying» delakoa gutxitu egin da.

* Hezkuntza-premia bereziak identifikatu eta ebaluatzeko Praktikaren Kodea (DfEE 1994). Ikusi 6. oharra

# ADIERAZLEAK

## C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea

### C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

C.1.1. Unitate didaktikoek kontuan hartzen dute ikasleen aniztasuna.

C.1.2. Unitate didaktikoak ulergarriak dira ikasle guztientzat.

C.1.3. Unitate didaktikoek ezberdintasuna hobeto ulertzeko balio dute.

C.1.4. Euren ikaskuntzan aktiboki parte harrarazten zaie ikasleei.

C.1.5. Ikasleek lankidetzan ikasten dute.

C.1.6. Ebaluazioak ikasle guztien lorpenak motibatzen ditu.

C.1.7. Ikasgelako diziplina elkarren errespetuan oinarritzen da.

C.1.8. Irakasleek lankidetza-giroan planeatu, berrikusi eta irakasten dute.

C.1.9. Irakasleak ikasle guztien ikaskuntzan eta partaidetzan laguntzen saiatzen dira.

C.1.10. Laguntzako irakasleak ikasle guztion ikaskuntza eta partaidetza errazten saiatzen dira.

C.1.11. «Etxerako lanek» guztion ikaskuntzan lagundu egiten dute.

C.1.12. Ikasle guztiek hartzen dute parte jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan.

### C.2. Baliabideak mobilizatzea

C.2.1. Ikastetxeko baliabideak bidezko eran banatzen dira inklusioa laguntzeko.

C.2.2. Komunitatearen baliabideak ezagutu eta aprobetxatu egiten dira.

C.2.3. Irakaslegoaren esperientzia erabat aprobetxatzen da.

C.2.4. Ikasleen aniztasuna irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako baliabidetzat erabiltzen da.

C.2.5. Irakasleek ikaskuntzan eta partaidetzan laguntzeko baliabideak sortzen dituzte.

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

### *A.1.1. Mundu guztiak merezi du abegi egiten zaiola sentitzea*

i. Adiskidantzazkoa eta abegikorra al da jendeak hezkuntza-zentroarekin duen lehenengo kontaktua?

ii. Ikastetxea abegikorra al da ikasle guztientzat, urritasunak dituzten ikasleentzat eta aldi baterako dauden ikasleentzat barne?

iii. Ikastetxea abegikorra al da familia guztientzat eta komunitateko beste kideentzat?

iv. Eskueran al dago guztientzat ikastetxeari buruzko informazioa, jatorrizko hizkuntza bestelakoa edo urritasunen bat izan arren (adibidez Braillen, ikus eta entzunezko grabazioa, letra handitan, beharrezkoa denean)?

v. Ba al daude zeinu hizkuntzako eta beste jatorriko hizkuntzen interpreteak beharrezkoak direnean?

vi. Zentroko dokumentuetan, informazio-foiletoetan barne, argi al dago ikastetxeko errutinaren zatia dela ikasleen aniztasuna eta euren testuinguruak kontuan hartzea?

vii. Ikastetxeko komunikazio-organoek (buletina, aldizkaria...) jasotzen al dituzte eskola-komunitateko kide guztien interesak?

viii. Ikastetxeak kontuan hartzen al ditu tokiko kulturak eta etorkin berrien kolektiboena sinbolo eta erakusketen bidez?

ix. Ba al daude gizarte-ekintzak ikasleei eta irakasleei ongi-etorria egin edo agurtzeko?

x. Ikasleek ba al dute euren ikasgelako partaide izatearen sentimendurik?

xi. Ikasleek, irakasleek, eskola-kontseiluko kideek eta komunitateko kideek ba al dute ikastetxeko partaide izatearen sentimendurik?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

### *A.1.2. Ikasleek elkarri laguntzen diote*

i. Ikasleek laguntza eskaintzen al diote elkarri beharrezkoa dutenean?

ii. Antzematen al da ikastetxean maila berean baloratzen direla lankidetzazko lana eta banakako lana?

iii. Sustatzen al da ikastetxean lankidetzazko ikaskuntza (ikerketa-taldeak, kideen arteko tutoretzak, elkar-ikaskuntza...)?

iv. Aktiboki motibatzen al dira laguntza-harremanak (laguntza-taldea edo ikaslea-tutorea)?

v. Adiskideak konpartitzen al dituzte ikasleek, horiengatik lehiatu ordez?

vi. Ikasleek uko egiten al diete arrazakeria, sexismoa, homofobia, ezgaitasunaren kontrako jarrerei eta bestelako bereizkeria motei?

vii. Ikasleek ulertzen al dute ikasle ezberdinengandik lorpen ezberdinak espero behar direla?

viii. Ikasleek ulertzen al dute ikasle ezberdinengandik ikastetxeko arauei buruzko adostasun-maila ezberdinak espero behar direla?

ix. Ikasleek ontzat ematen al dituzte eurena ez bezalako abiapuntua duten ikasleen lorpenak?

x. Ikasleek sentitzen al dute euren arteko eztabaidak bidezko era batean eta eraginkortasunez konpontzen direla?

xi. Gai al dira ikasleak beste bat bidezkoa ez den era batean tratatua izaterakoan bere alde egiteko?

xii. Ikasleek iradoki al diezaiekete irakasleei laguntza-premia handiena duten ikaskideentzako curriculum-egokitzapenik?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

### *A.1.3. Irakasleak elkarrekin aritzen dira lankidetzan*

i. Irakasleek elkarren errespetua al dute, euren ikastetxeko rol edo estatusa aparte utzita?

ii. Bertaratzen al dira langile guztiak (irakasleak zein laguntzako profesionalak) klaustroaren bileretara?

iii. Partaidetza aktibo zabala al dago klaustroaren bileretan?

iv. Parte hartzen al dute irakasle guztiek eta ikasgelako laguntzaileek curriculumaren plangintzan eta berrikuspenean?

v. Irakasleen arteko talde-lana lankidetza-eredua al da ikasleentzat?

vi. Ba al dago lan konpartiturik ikasgelako irakasleen artean (bi irakasle klase berean)?

vii. Irakasleak eroso al daude laneko arazoak eztabaidatzean?

viii. Saileko edo mailako bilkurak baliagarriak al dira?

ix. Ordezko irakasleak motibatzen al dira era aktiboan ikastetxeko bizitzaren partaide izateko?

x. Parte hartzen al dute irakasle guztiek lehentasunen planteamenduan ikastetxea hobetzeko planean?

xi. Irakasleek hobetzeko planaz jabetu izanaren sentimendua al dute?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

### *A.1.4. Irakasleek eta ikasleek elkar errespetatzen dute*

i. Irakasleak errespetuz zuzentzen al zaizkie ikasleei, eurek erabili nahi duten izenaren bidez eta berau zuzen ahoskatuz?

ii. Ikasleek errespetuz tratatzen al dituzte irakasleak eta langile ez-irakasleak, euren estatusa zein den ere?

iii. Eskatzen al dira ikasleen iritziak ikastetxea hobetzeko erari buruz?

iv. Erabiltzen al dira ikasleen iritziak ikastetxean hobekuntzak sartzeko?

v. Ba al dute ikasleek ikastetxeko alderdiei buruz eztabaidatzeko topagune berezirik?

vi. Ikasleek laguntzen al diete langileei eskatzen dietenean?

vii. Ba al daude irakasle eta ikasleen arteko harremanerako gune informalak?

viii. Irakasle eta ikasleek zaindu egiten al dute ikastetxearen ingurune fisikoa?

ix. Ikasleek ba al dakite norengana jo arazo bat dutenean?

x. Ikasleak ziur al daude ekintza eraginkorrak hartuko direla zailtasunak konpontzeko?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

### *A.1.5. Irakasleen eta familien arteko lankidetza dago*

i. Elkar errespetatzen al dute familiek eta irakasleek?

ii. Sumatzen al dute familiek irakasleekin komunikazio ona dagoela?

iii. Familia guztiak ondo informatuta al daude eskola-praktika eta -politikei buruz?

iv. Ba al dute familiek ikastetxea hobetzeko planaren lehentasunen berri?

v. Ematen al zaie familiei ikastetxeari buruzko erabakietan parte hartzeko aukera?

vi. Kontuan hartzen al dira zenbait familiak irakasleekin biltzeko duten beldurra, eta neurririk hartzen al da hori gainditzen laguntzeko?

vii. Ba al dute familiek ikastetxean parte hartzeko aukerarik (unean uneko jarduueretan laguntza ematetik ikasgelan laguntzeraino)?

viii. Ba al da egokierarik familiek seme-alaben garapenari buruz eta horien inguruko kezkei buruz hitz egiteko?

ix. Harrera bera ematen al zaie familiek ikastetxeari egiten dieten ekarpen guztiei?

x. Irakasleek balioesten al dute familiek euren seme-alabei buruz duten ezagutza?

xi. Irakasleek, motibatzen al dituzte familiak seme-alaben ikaskuntzan parte hartzeko?

xii. Familiek argi al dute zer egin dezaketen etxean seme-alaben ikaskuntzan laguntza emateko?

xiii. Sentitzen al dute familiek ikastetxeak euren seme-alabak benetan balioesten dituela?

xiv. Sentitzen al dute familia guztiek ikastetxeak euren kezkak serio hartzen dituela?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

### *A.1.6. Irakasleek eta eskola-kontseiluko kideek ondo egiten dute lan elkarrekin*

i. Ezagutzen al dute elkar irakasleek eta eskola-kontseiluko kideek?

ii. Gonbidatzen al dira eskola-kontseiluko kideak edozein unetan ikastetxeko lanetan laguntzeko?

iii. Balioesten al dira eskola-kontseiluko kideen trebetasunak eta jakintza?

iv. Isladatzen al ditu eskola-kontseiluko kideek ikastetxeko etorkin berrien kolektibo guztiak?

v. Ordezkatzen al du eskola-kontseiluko kide bakoitzak berari dagokion kolektiboa, hura kontsultatuz eta hartutako erabakien berri emanez?

vi. Zorrozki jakinarazten al zaie eskola-kontseiluko kideei ikastetxearen politikei buruz?

vii. Eskola-kontseiluko kideak eta irakasleak bat al datoz eskola-kontseiluko kideek ikastetxeari eman ahal diotenari buruz?

viii. Eskola-kontseiluko kideek sentitzen al dute euren ekarpenak balioesten direla, euren estatusa zein izan ere?

ix. Konpartitzen al dituzte eskola-kontseiluko kideek prestakuntza-aukerak irakasleekin?

x. Ikusmolde bera al dute irakasleek eta eskola-kontseiluko kideek «hezkuntza-premia berezien» kategorian dauden ikasleei buruz?

xi. Irakasle eta eskola-kontseiluko kideek ikuspegi bera al dute zailtasunak dituzten ikasleen identifikazioari buruz eta haiei laguntza emateko erari buruz?

## Galdera gehiago

1.- ....................................................................................................................................

2.- ....................................................................................................................................

3.- ....................................................................................................................................

4.- ....................................................................................................................................

5.- ....................................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.1. Komunitatea eraikitzea

### *A.1.7. Komunitateko erakunde guztiek hartzen dute parte ikastetxean*

i. Ikastetxeak parte harrarazten al die komunitateko beste erakundeei (tokiko erakundeei, elkarteei, kolektiboei...) bere jarduaeretan?

ii. Parte hartzen al du ikastetxeak komunitateko erakundeen jardueretan?

iii. Elkarrekin erabiltzen al dituzte baliabideak komunitateko erakundeetako kideek eta irakasle-ikasleek (adibidez liburutegia, ikasgela, ordenagailuak...)?

iv. Parte hartzen al dute, era berean, komunitateko erakundeek ikastetxean, euren gizarte-klasea, erlijioa eta arraza kontuan izan gabe?

v. Komunitateko erakunde guztiak ikastetxearentzako baliabidetzat jotzen al dira?

vi. Irakasle eta eskola-kontseiluko kideek ahalegintzen ahal dira komunitateko kideek ikastetxeari buruz dituzten iritzien bila?

vii. Eragiten al diete komunitateko kideen ikuspuntuek ikastetxearen politikei?

viii. Ikastetxeari buruzko iritzi positiboa al dute komunitateko erakundeek?

ix. Etorkin berrien kolektiboetako kide helduek parte hartzen al dute bakoitzak bere kulturaren aurkikuntzarako eskola-jardueretan?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.2. Inklusio-balioak ezartzea

### *A.2.1. Ikasle guztiei buruzko itxaropen handiak daude*

i. Sentitzen al dute ikasleek euren lorpen handienak eskuratu ahal dituzten ikastetxe batean daudela?

ii. Motibatzen al dira ikasleak euren ikaskuntzari buruzko asmo handiak edukitzeko?

iii. Ikasle guztiak euren lorpenek mugarik ez balute bezala tratatzen al dira?

iv. Erakusten al zaie ikasleei, borondatez nahi izanez gero, edozein curriculum-arlotan ikas dezaketela?

v. Bultzatzen al dira ikasleak ohartzera euren arrakasta, egindako ahaleginaren baitan dagoela?

vi. Ikasleen lorpenak euren ahalmenaren arabera, eta ez besteen lorpenekin konparatuta, balioesten al dira?

vii. Irakasleek saihesten al dute uste izatea ikasleek uneko lorpenen araberako trebetasun finko bat dutela?

viii. Motibatzen al dira ikasleak euren lorpenez harro egoteko?

ix. Motibatzen al dira ikasleak besteen lorpenak estimutan edukitzeko?

x. Saihesten al dira etiketa orokorren araberako ikasleen estereotipoak, batez ere ikaskuntzarako zailtasunak dituzten ikasleen inguruan?

xi. Laguntzen al zaie porrotaren beldurrez ikasteari uko egiten dioten ikasleei?

xii. Saihesten al dute irakasleek ikasle baten lorpen-ahalmena anai-arrebarenarekin alderatzea?

xiii. Saihesten al dira klase-taldeen arteko konparazioak, eta aditzera ematen al da talde guztiek dituztela arrakasta-aukera handiak?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.2. Inklusio-balioak ezartzea

### *A.2.2. Irakasleek, eskola-kontseiluko kideek, ikasleek eta familiek inklusioaren aldeko filosofia konpartitzen dute*

i. Ematen al zaio eskola-komunitatea eraikitzeari lorpen akademikoa handitzeari besteko garrantzia?

ii. Ematen al zaio lankidetzaren sustapenari independentziaren eta banakako lanaren motibazioari besteko garrantzia?

iii. Balioesten al dira ikasleen arteko ezberdintasunak, talde homogeneotzat hartzeko joera eduki ordez?

iv. Aniztasuna arazotzat hartu beharrean, ikaskuntzan laguntzeko baliabide aberasgarritzat jotzen al da?

v. Adostasuna al dago ikastetxeko aukera-ezberdintasuna gutxitzeko helburuari buruz?

vi. Irakasleak bat al datoz herriko ikasleak onartzeko nahian, ikasleen testuingurua, lorpen-maila edo urritasuna gorabehera?

vii. Irakasleek garapen profesionalaren aldeko aukeratzat ikusten al dute laguntza-premia handiena duten ikasleak bertaratzea?

viii. Inklusioa, ikastetxeaz kanpo edo ikastetxe barruan izatearen ordez, partaidetza handitzeko prozesu amaiezina dela ulertzen al da?

ix. Bazterketa, ikasgelan eta jolastokian hasten den eta ikastetxetik kanporatuz edo ikastetxea utziz amai daitekeen prozesua dela ulertzen al da?

x. Erantzukizunik hartzen al dute ikastetxeko kide guztiek irakaskuntza inklusiboagoa izan dadin?

xi. Jasotzen al du ikastetxearen hezkuntza-proiektuak ikastetxearen inklusioaren aldeko borondatea?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.2. Inklusio-balioak ezartzea

### *A.2.3. Irakasleek uste dute ikasle guztiek garrantzi bera dutela*

i. Kontuan hartu eta positibotzat jotzen al dira familia-egituren ezberdintasunak?

ii. Aita-amak ikastetxerako balio berekotzat jotzen al dira, haien lan-estatusa edo lan-egoera dena delakoa izanda ere?

iii. Ikastetxeko eskola-bizitzarako ekarpentzat hartzen al da jatorrizko hizkuntza asko eta testuinguru asko egotea?

iv. Eskolarako eta gizarterako aberasgarritzat jotzen al da hitz egiteko doinu eta era asko egotea?

v. Berdin balioesten al dira urritasunak dituzten ikasle-irakasleak eta ez dituztenak?

vi. Berdin balioesten al dira nota eskaseko ikasleak eta lorpen-maila altukoak?

vii. Laguntzen al zaie ikasleei ohartzen irakasleek eta ikastetxeak norberaren aurrerapen pertsonala balioesten dutela, eta ondorioz, emaitza txarragoko ikaskide batek berak baino nota hobea eduki dezakeela onartzen?

viii. Erakusten al da ikasle guztien lana ikastetxean eta euren ikasgeletan?

ix. Ahaleginik egiten al da nota-buletinak ikasleentzat eta euren familientzat ulerterrazak izan daitezen?

x. Laguntza eta garrantzi bera ematen al zaie nesken eta mutilen lorpenei?

xi. Lortzen al dute bigarren hezkuntzako ikasle gehienek etapa gainditzea?

xii. Berdin balioesten al dira ikasten jarraitzeko asmoa adierazi duten ikasleak eta lan-mundura joan nahi dutenak?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.2. Balio inklusiboak ezartzea

### *A.2.4. Irakasleak eta ikasleak pertsonatzat hartzen dituzte eta «rol» jakin bat aitortzen zaie*

i. Ikasle guztiek, laguntza gehien behar dutenek bereziki, argi al dute euren tutorea nor den?

ii. Erabiltzen al da tutoretza ikasleek konfiantza giro batean euren kezka pertsonalak adieraz ditzaten?

iii. Irakasleek tratu xume edo amultsua ematen al diete ikasleei?

iv. Elkar agurtzen al dute irakasleek eta ikasleek klase-hasiera eta -amaieran?

v. Ikasten eta aldi berean irakasten ari diren pertsonatzat jotzen al dira ikastetxeko kide guztiak?

vi. Ikasleak direnagatik, pertsona diren aldetik, balioesten al dira ala errendimenduagatik edo notagatik?

vii. Sentitzen al dute irakasleek balioetsita daudela edo babesa dutela?

viii. Aintzat hartzen al dira eta erreakzio egokia ematen al zaie gertaera garrantzitsuei, hala nola jaiotzei, heriotzei edo gaixotasunei?

ix. Aitortzen al da guztiek, eta ez soilik «gutxiengo etnikoetako» kideek, dutela kultura bat edo kulturak?

x. Eman al dakieke laguntzarik ikasle eta irakasleei, minduta, deprimituta edo haserretuta sentitzen direla aitortzeko?

xi. Onartzen al da irakasleek, pribatuan, ikasleei buruzko sentimendu pertsonal negatiboak adieraztea, horiek gainditzeko era moduan?

xii. Tutoretzaz gain, aritu al daitezke ikasleak irakasleekin ikasgaiari buruz edo gai pertsonalei buruz berriketan zenbait denbora-tartetan?

xiii. Egoera onean al daude oinarrizko azpiegiturak, hala nola bainugelak, dutxak eta armairuak?

xiv. Errespetatzen al dira ikasleen intimitate-nahiak dutxen eta igerilekuko antolamendu egoki baten bidez?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.2. Inklusio-balioak ezartzea

### *A.2.5. Irakasleak ikastetxean dauden ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ezabatzen saiatzen dira*

i. Jabetuta daude irakasleak ikasleen zailtasunak prebenitzeko duten ahalmenaz?

ii. Ulertzen al da ikaskuntza-zailtasunak potentzialki edonori eta edozein unetan gertatu ahal zaizkiola?

iii. Ulertzen al da ikaskuntzarako zailtasunak ikasleen eta irakaskuntza- zein ikaskuntza-testuinguruaren arteko elkarreraginean agertzen direla?

iv. Kontu egiten al da ikaskuntzako trabak ikastetxearen antolamendu, politika, curriculum eta irakaskuntza-ikusmoldeen barnean gertatzen direla, baita alderdi horien eta ikasleen arteko elkarreraginean ere?

v. Aitortzen al dira ikastetxeko eta etxeko kulturaren arteko ezberdintasunetatik sortutako trabak, eta horiei aurre egiten al zaie?

vi. Saihesten al dute irakasleek ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ikasleen akatsen edo urritasunen eraginez gertatzen direla pentsatzea?

vii. Saihesten al dute irakasleek etiketak erabiltzea «hezkuntza-premia berezietakoa» sailkatutako ikasleekin?

viii. Ulertzen al da ikasle batzuk «hezkuntza-premia berezietakoak» direla sailkatuta eskola arrunteko gainontzeko ikasleengandik urrutiratzen ari gaitezkeela?

ix. Saihesten al dute irakasleek ikasle arruntak «hezkuntza-premia berezietako» ikasleekin konparatzea?

x. Kezkatzen al dira irakasleak ikasgelako ikaskuntza prestatzeko baliabideak eta laguntzak aurkitzen?

xi. Lankidetza-giroan lan egiten al dute irakasleek (lantaldetan edo ikasgela bereanârituz) ikasleen arrakasta eragiteko hobekuntza pedagogikoak sartzeko?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**A DIMENTSIOA KULTURA inklusiboak sortzea**

## A.2. Balio inklusiboak ezartzea

### *A.2.6. Ikastetxea, bereizkeria-praktikak gutxitzen ahalegintzen da*

i. Saiatzen al da ikastetxea, ikasleen adin, «arraza», klase, sexu-orientazio, genero, ezgaitasun edo lorpen-maila dena delakoa izanda ere, edozein bereizkeria instituzional gutxitzen?

ii. Ulertzen al dute ikasle eta irakasleek bereizkeriaren jatorria ezberdintasunaren kontrako intolerantzian dagoela?

iii. Ulertzen al dute ikasle eta irakasleek ikastetxeko politikak eta praktikek ikasleen aniztasuna islatu behar dutela?

iv. Erreparatzen al zaie gutxiengo etnikoetako ikasleei egiten zaizkien bazterketa-presioei?

v. Aitortzen al da kultura eta erlijio guztiek dituztela irizpide-multzo bat eta betetze-maila bat?

vi. Saihesten al dute irakasleek generoko edo bestelako estereotiporik erabiltzea laguntza teknikoko zereginetarako (adibidez, mahaiak mugitzeko...) laguntza aukeratzeko orduan?

vii. Balioesten al ditu ikastetxeak pertsona gay eta lesbianak sexu-aukera legitimoak diren neurrian?

viii. Kontu egiten al dute irakasleek ezgaitasuna sortzen dela urritasunak dituzten pertsonek jarrera negatiboak eta traba instituzionalak dituztenean?

ix. Saihesten al dute irakasleek ezgaitasunen bat duten ikasleek ikastetxean edukitako zailtasunen sorburutzat urritasun bat jotzea?

x. Aitortzen al dute irakasleek ikasle jakin baten hezkuntza-aukerak ulertzeko orduan urritasunak ezagutzeak egiten duen ekarpena mugatua dela?

xi. Auzitan jartzen al dira perfekzio fisikoari buruzko iritzi estereotipatuak?

xii. Saiatzen al dira langileak ezgaitasunen bat duten pertsonei buruzko jarrera estereotipatuei aurre egiten (adibidez ez direla gai harremanak edukitzeko, errukia merezi dutela edo zoritxarraren kontrako borrokalari heroikoak direla)?

xiii. Ulertzen al da jarrerak eta politikak mugatuak direlako baztertzen direla urritasun handiak dituzten ikasleak eta ez zailtasun praktikoagatik?

## Galdera gehiago

1.- ..............................................................................................................................

2.- ..............................................................................................................................

3.- ..............................................................................................................................

4.- ..............................................................................................................................

5.- ..............................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.1. Guztiontzako eskola garatzea

### *B.1.1. Irakasleen izendapenak eta promozioak bidezkoak dira*

i. Hautatua izan denean, aurkeztu al dio zuzendaritza-taldeak klaustroari jarduera-programa zehatz bat?

ii. Zuzendaritza-taldeak eratzen direnean, genero-oreka mantentzeko joera al dago?

iii. Ikastetxera sartu berri diren irakasleek, ezagutzen al dute aldez aurretik IHPa (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua)?

iv. Laguntzen eta sustatzen al da irakasleen artean ikaskuntza-baimenik, era horretan esperientzia ezberdinak ezagutu eta ekartzeko?

v. Ezartzen al da ikastetxearen premiei lotutako prestakuntza-programarik irakasle guztiek horietan parte hartzeko?

vi. Ba al dago egonkortasunik ikastetxeko langileen artean, adostutako hobetze planetan aurreratzea ahalbidetzeko?

vii. Beharrezkoa izatekotan, bete al dezakete ikastetxeko irakasleek ikasgelako irakasle-lana zein laguntzako irakasle-lana?

viii. Beharrezkoa izatekotan, beste laguntza batzuk bilatzearen aldeko jarrerarik ba al dago (praktiketan dauden ikasleak, boluntarioak,…)?

ix. Ezarri al da xedapenik, laguntzako irakasleak zein ikasgelako irakasleak bertaratu ezin direnean, haiek ordezkatzeko?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.1. Guztiontzako eskola garatzea

### *B.1.2. Irakasle berri guztiei laguntzen zaie ikastetxera egokitzen*

i. Ohartzen al da ikastetxea irakasle berriek zailtasunak eduki ditzaketela lanpostu berrian hastean, beharbada irakasleentzat herria ere berria denez?

ii. Saihesten al dute esperientzia luzeeneko irakasleek irakasle berriak arrotz sentiaraztea, adibidez azken hauek baztertzen dituen «guk» formula erabiliz?

iii. Ba al dago ongi-etorriko programarik irakasle berrientzat?

iv. Irakasle berri bakoitzak ba al du tutorerik berari ikastetxean finkatzen benetan laguntzeko interesa duena?

v. Sentiarazten al die ikastetxeak irakasle berriei dakarten esperientzia eta ezagutza kontuan hartzen dela?

vi. Ba al dago aukerarik irakasle guztiek ezagutza eta esperientzia konpartitzeko eta ekintza horretan irakasle berrien ekarpenak ere sartzeko?

vii. Ematen al zaie irakasle berriei ikastetxeari buruz behar duten oinarrizko informazioa?

viii. Galdetzen al zaie irakasle berriei beharrezkoa duten informazio gehigarriari buruz, eta ematen al zaie?

ix. Kontuan hartu eta balioesten al dira irakasle berriek hezkuntza-zentroari buruz egindako oharrak, hausnarketa berriak ekar ditzaketela eta?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.1. Guztiontzako eskola garatzea

### *B.1.3. Ikastetxea herriko ikasle guztiak onartzen saiatzen da*

i. Motibatzen al dira herriko ikasleak hezkuntza-zentrora joateko, euren ezaugarriak eta hezkuntza-premiak direnak direla ere?

ii. Plazaratzen al da ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren ezaugarri nagusia herriko ikasle guztien inklusioa dela?

iii. Era aktiboan harrera egiten al die ikastetxeak herrian aldi baterako bizi diren ikasleei?

iv. Motibatzen al dira aktiboki behin-behinean ikastetxe berezietan dauden komunitateko ikasleak eta haien familiak ikastetxera joatera?

v. Ezagun al da ikastetxera doazen herriko ikasleen heina gero eta handiagoa dela?

vi. Ezagun al da ikastetxera doazen herriko ikasleen barietatea gero eta handiagoa dela?

vii. Ukatu al zaio sarrera herriko ikasleren bati azken ikasturtean?

viii. Laguntza-premiarik handienak dituzten ikasleak ikastetxea hobetzeko erronka bezala ikusten al dira?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.1. Guztiontzako eskola garatzea

### *B.1.4. Ikastetxeak bertako instalazioetako oztopo fisikoak kentzen ditu*

i. Kontuan hartzen al dira pertsona gor, itsu zein ikusmen partzialekoak eta urritasun fisikoak dituzten pertsonak eraikin erabilerrazak egiteko?

ii. Kezkarik ba al dago eraikineko eta ikastetxeko alderdi guztien erabilerraztasunagatik, ikasgelak, korridoreak, komunak, lorategiak, jolasguneak, jantokia edo kafetegia eta erakusketak barne?

iii. Kontsultatzen al zaie ezgaitasunak dituzten pertsonen erakundeei ikastetxearen erabilerraztasunari buruz?

iv. Ezgaitasunak dituzten pertsonen erabilerraztasuna, arkitektura hobetzeko planaren parte al da?

v. Ezgaitasunak dituzten pertsonen (langile irakasle eta ez-irakasle, eskola-kontseiluko kide, familia eta komunitateko beste kide eta ikasleen) inklusioa lortzeko oinarritzat jotzen al da erabilerraztasuna?

vi. Neurririk hartu al da ikastetxearen eta bertako bulego guztien erabilerraztasuna hobetzen joateko?

vii. Kezkatzen al da ikastetxea indarrean dauden eta hezkuntza-lanari eragin diezaioketen bereizkeriaren kontrako legeak (ezgaitasun-, genero- eta abarreko arrazoiak tarteko) ezagutzeaz?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.1. Guztiontzako eskola garatzea

### *B.1.5. Ikasleei, ikastetxera lehenengo aldiz sartzen direnean, egokitzen laguntzen zaie*

i. Ikastetxeak ba al du ikasleei harrera egiteko programarik?

ii. Ondo funtzionatzen al dute ikasleentzako eta euren familientzako harrera-programek, ikasturte hasieran edo beste edozein unetan egiten badira ere?

iii. Kontuan hartzen al ditu programak harrerako hizkuntzaren ulermen- eta erabilera-gaitasunean dauden aldeak?

iv. Ba al dago eskueran hezkuntza-sistema orokorrari buruzko informaziorik eta ikastetxeari buruzkorik?

v. Elkartzen al dira ikasle berriak esperientzia handiagoko ikasleekin ikastetxera lehenengo aldiz sartzean?

vi. Hartu al da neurririk ezagutzeko ikasle berriak aste gutxiren buruan zenbateraino sentitzen diren etxean bezain ondo?

vii. Laguntzarik ematen al zaie eraikinaren antolamendua gogoratzeko zailtasuna duten ikasleei, batez ere ikastetxera lehenengo aldiz sartzen direnean?

viii. Argi al dute ikasleek norengana jo behar duten zailtasunak badituzte?

ix. Ezarri al dira Haur eta Lehen Hezkuntzaren, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko trantsizio-aldiak errazteko programak?

x. Laguntzen al diete lehengo ikastetxeko irakasleek, aldaketa samurragoa izan dadin, ikasleak ikastetxe batetik bestera igarotzean?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.1. Guztiontzako eskola garatzea

### *B.1.6. Ikastetxeak ikaskuntza-taldeak antolatzen ditu ikasle guztiak balioetsita senti daitezen*

i. Ikastetxeak alfabeto-ordena erabiltzen al du klase-taldeak eratzeko ala beste era aberasgarri eta egokiagoren bat?

ii. Uzten al zaie ikasleei berezko taldeak edo adiskidetasun-taldeak sortzen, irakaslearen laguntzaz, geroago klase-taldeak eratzeko?

iii. Heterogeneotasuna (generozkoa, gaitasunena, interesena, etab.) al da klase-taldeak eratzeko oinarrizko irizpidea?

iv. Saiatzen al da ikastetxea lorpen-maila edo gaitasunaren araberako ahalik eta talderik gutxien antolatzen?

v. Taldekatze malguak edo mailaren araberako taldekatzeak egiten direnean, planik ba al dago talde baxuenak pozik egon daitezen?

vi. Mailaren araberako taldeak egiten direnean, ikasleek taldeartean mugitzeko aukera berdinean antolatzen al dira?

vii. Berrantolatzen al dira noizean behin klaseen barneko taldeak, kohesio soziala sustatze aldera?

viii. Ba al du ikastetxeak hezkuntza-araudiaren berri ikaskuntzako zailtasunak dituzten ikasleek bereizkeriarik ez jasateari dagokionez?

ix. Ikastetxeak saihesten al du alfabetatzeko laguntza gehigarria jasotzen duten ikasleentzako curriculuma murriztea (adibidez, atzerriko hizkuntza bat kontuan ez hartuz)?

x. Hautazko ikasgaiak daudenean, ematen al zaie ikasleei benetako aukerak egiteko modua?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.1. Laguntza-era guztiak koordinatu egiten dira*

i. Ikastetxe osoaren aniztasuna zaintzeko irakaskuntza eta curriculuma hobetzeko plan orokorraren partetzat jotzen al dira laguntza-politika guztiak?

ii. Ba al dago ikastetxeko profesionalentzat eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari kanpo-laguntza ematen diotenentzat argi dagoen laguntza-politika orokor esplizitu bat?

iii. Bideratzen al dira laguntza-politikak ikasleen ikaskuntzarako zailtasunen prebentziora?

iv. Zuzenean ikasleei bideratzen zaizkien laguntzek, haien independentzia/autonomia handitzea bilatzen al dute?

v. Laguntza-era arruntak (ikasleen %100i zuzendutakoak) bereziak baino (portzentaje txiki bati zuzendutakoak baino) gehiago sustatzen al dira, eta berezi horiek lehenengoek arrakastarik eduki ez dutenean soilik erabiltzen al dira?

vi. Ahal bezain laster itzultzen al dira ikasleek laguntza-era arruntera?

vii. Berrindartu egiten al du hezkuntza-zentroak laguntzen koordinazioa, eta klaustroko esperientziadun kide batek zuzentzen al du koordinazio hori?

viii. Laguntza-politiken xedea ikasleentzako onura al da, eta ez profesionalen arteko *statu quo*-a mantentzea?

ix. Klaustroko kide guztien arduratzat jotzen al da ikaskuntzako eta partaidetzako trabak dituzten ikasleen laguntza?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.2. Irakasleen garapen profesionalerako jarduerek ikasleen aniztasunaren aldeko erantzunak ematen laguntzen dute*

i. Irakasleen prestakuntza-jarduerek laguntzen al diete elkarlanean era eraginkorrago batean aritzen?

ii. Erabiltzen al da lankidetzazko irakaskuntza eta ondorengo hausnarketen elkartrukea irakasleei ikasleen aniztasunaren zainketan laguntzeko?

iii. Ba al dute irakasleek euren klaseak behatu eta aztertzeko aukera, horiei buruz ikasleen ikuspuntutik hausnartzeko?

iv. Jasotzen al dute irakasleek prestakuntzarik lankidetzazko ikaskuntzako jarduerak kudeatu eta sortzeari buruz?

v. Ba al daude denbora eta espazio nahikoak ikastetxeko langileek elkarrekin lankidetza eraginkorragoa garatzeko?

vi. Ba al daude aukerak irakasleek eta ikasleek kidekoen arteko tutoretzari buruz ikas dezaten (ikasleen bikotekako lankidetza-lana, non tutoreak bere ikaskideari irakatsiz ikasten duen eta tutoretuak, berriz, tutorearen laguntza pertsonal eta etengabearen bidez)?

vii. Ikasten al dute irakasleek teknologia erabiltzen (adibidez kamerak, bideoa, gardenkien proiektagailua, ordenagailuak/internet) euren ikasgelako ikaskuntzari laguntzeko?

viii. Aztertzen al dituzte irakasleek ikasleen poz-eza gutxitzeko erak ikasleek ikasgelaren programazioko partaidetza handituz?

ix. Ematen al zaie irakasle guztiei prestakuntzarik ezgaitasunak dituzten pertsonentzako hezkuntza-aukeren berdintasunaren inguruan?

x. Ikasten al dute hezkuntza-zentroko langileek intimidazio-egoeretan bitartekari aritzen (arrazakeria, sexismoa eta homofobia dagoenean barne)?

xi. Arduratzen al dira ikastetxeko langileak eta eskola-kontseiluko kideak euren ikaskuntza-premiak ebaluatzeaz?

## Galdera gehiago

1.- ...............................................................................................................................

2.- ...............................................................................................................................

3.- ...............................................................................................................................

4.- ...............................................................................................................................

5.- ...............................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.3. «Hezkuntza premia berezietako» politikak politika inklusiboak dira*

i. Saiatzen al da «hezkuntza-premia berezietako» ikasleen kategorizazioa gutxitzen?

ii. *Laguntza pedagogikoko koordinatzaile* edo *inklusioko koordinatzaile* deitzen al dio hezkuntza-zentroak laguntzako koordinatzaileari, «hezkuntza-premia berezietako koordinatzaile» deitu ordez?

iii. «Hezkuntza-premia berezietako» etiketapean dauden ikasleak jotzen al dira interes, ezagutza eta trebetasun ezberdinetako ikasletzat, talde homogeneo bateko kidetzat jo ordez?

iv. Ikasle jakin baten ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ezabatzeko saioak jotzen al dira ikasle guztien ikaskuntza hobetzeko aukeratzat?

v. Jotzen al da beharrezkoa duten ikasleentzako laguntza eskubidetzat, euren hezkuntzarako gehigarri berezitzat baino?

vi. Argi al daude ikasleentzako laguntza-modalitateen xehetasunak guraso edo tutoreentzat eta sartuta al daude ikastetxeko informazio-foiletoetan?

vii. Ahal denean, ebaluazio-prozedura formaletara jo gabe ematen al da laguntza?

viii. «Beharrizan berezietako» politikak zuzenduta al daude ikaskuntza eta partaidetza handitzera eta beraz bazterketa gutxitzera?

ix. Gutxitzen ari al da ikasleek laguntza pedagogikoa jasotzeko euren ikasgela-taldetik (klase-taldetik) kanpora bidaltzeko praktika?

x. Laguntzako irakasleak ikasgelara sartzen al dira, ikasle bat edo ikasle-multzo bat bertatik «atera» ordez?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.4. Praktikaren Kodea*, ikasle guztien ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak gutxitzeko erabiltzen da*

i. Inklusioari buruzko ikastetxearen politika orokorrean integratuta al daude *Praktikaren Kodea*, ebaluazio-praktikak eta laguntza psikopedagogikoa?

ii. Ebaluazio-praktikak zuzenduta al daude laguntza psikopedagogikoa sustatzera, ikasleak kategorizatzera baino?

iii. Aniztasuna zaintzeko laguntzak, ikasle batzuk HPBtzat kategorizatu ondoren ematen den ohiko banakako laguntzaren alternatibak al dira?

iv. Lagundu egiten al dute kanpoko laguntza-zerbitzuek irakaskuntza inklusiboa planeatzen?

v. Ikastetxeko profesionalek argitu eta adosten al dute kanpoko laguntza-zerbitzuekin eurek hezkuntza-zentroan ikaskuntzari laguntzeko erari buruzko marko argi bat?

vi. Ulertzen al dute kanpoko laguntza-zerbitzuek ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetzari laguntzeko eta horiek sustatzeko duten rola?

vii. Curriculum Egokitzapen Indibidualak (CEI –ACI–) curriculum arruntean sartzera eta bertan parte hartzen laguntzera bideratuta al daude?

viii. Curriculum Egokitzapen Indibidualek (CEI –ACI–) ikasle guztien irakaskuntza- eta ikaskuntza-estrategiak hobetzeko balio al dute?

ix. Ebaluazio psikopedagogikoko txostenek eta «hezkuntza-premia bereziei» buruzko ebazpenek ikasleen «puntu sendoak» eta euren garapen-aukerak al dituzte hizpide, ikasleen urritasunak identifikatu ordez?

x. Ebaluazio psikopedagogikoko txostenek eta «hezkuntza-premia berezietako ikasleei» buruzko ebazpenek zehazten al dituzte irakaskuntza- eta ikaskuntza-estrategietan gertatu beharreko aldaketak, ikasle horiek curriculum arruntean ahalik eta gehien parte har dezaten eta beste ikasle batzuekiko harremana erraztu dadin?

xi. Ebaluazio psikopedagogikoko txostenek eta «hezkuntza-premia berezietako ikasleei» buruzko ebazpenek, zehazten al dute ikasle horiek curriculum arruntean zein komunitatean ahalik eta gehien parte har dezaten eta beste ikasle batzuekiko harremana erraztu dadin beharrezkoa den laguntza?

xii. CEIa berrikusi egiten al da maiztasunez ikasleak lehenbailehen curriculum orokorrera sartze aldera?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

---

* Ikus 1.go zatiko 6.go nota.

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.5. Euskara/Gaztelania[14] bigarren hizkuntzatzat ikasten duten ikasleentzako laguntza beste mota bateko laguntza pedagogikoarekin koordinatzen da*

i. Kontu egiten al da gaztelania bigarren hizkuntzatzat ikasten duten ikasleentzako laguntza hezkuntza-zentroko langile guztien erantzukizuna dela?

ii. Laguntza, ikasle horien ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak gutxitu eta identifikatzera zuzenduta al dago, adibidez «bigarren hizkuntzako zailtasundun» edo «ikaskuntzarako zailtasundun» kategorietan sailkatu ordez?

iii. Eutsi egiten al zaie lorpen-espektatiba altuei gaztelania bigarren hizkuntzatzat ikasten edo ikasi duten ikasle guztien artean?

iv. Ba al daude zeinu hizkuntzetako eta beste ama-hizkuntzetako interpreteak beharrezkoa duten ikasleei laguntzeko?

v. Kontuan hartzen al da herrialde-aldaketak eragiten dituen ondorioak ikaskuntzarako eta partaidetzarako traba posible moduan?

vi. Hezkuntza-zentroak ba al du ikasleen kultur testuinguru bera duen norbait eurei irakasteko eta laguntzeko?

vii. Bigarren hizkuntzatzat gaztelania ikasten duten ikasleentzako laguntza, irakasleentzako aukera bat al da ikasle guztientzako irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko?

viii. Bigarren hizkuntzatzat gaztelania ikasten duten ikasleek jasotzen duten laguntza, esan nahi al du dauden ikaskuntzarako trabak irakaskuntzaren, curriculumaren eta ikastetxearen antolamenduaren alderdi guztietan hartzen direla kontuan?

ix. Antolatzen al dira gaztelania ikasteko jarduera gehigarriak beharrezkoa duten ikasle etorkinentzat?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

[14] Jatorrizko bertsioan ingelesa da, euskara/gaztelaniaren ordez.

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.6. Hezkuntza- eta psikopedagogi orientazioko politikak curriculum-garapeneko eta laguntza pedagogikoko neurriekin lotzen dira*

i. Jotzen al da ikasleen ikaskuntzaren eta partaidetzaren hobekuntza, banakako laguntza psikopedagogikoa ematen duten profesionalen helburu nagusitzat?

ii. Tratatzen al dira ikasleen jokabide- eta emozio-arazoak, ikasgelako eta jolasguneko esperientziak eta besteekiko elkarreragina hobetzeko estrategien bidez?

iii. Orientazio psikopedagogikoko estrategiak aukera bat al dira ikasle guztien irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko ereduen inguruan hausnartzeko?

iv. Kezkatzen al dira laguntza psikopedagogikoko arduradunak ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ez soilik praktiketan baizik eta hezkuntza-zentroaren politika eta kulturetan ere kontuan hartzeaz?

v. Prestakuntza ematen al zaie irakasleei eta laguntzako langileei ikasleen poz-ezari zein diziplina-ezari eta euren gatazka eta jokabide kaltegarriei aurre egiteko?

vi. Saiatzen al da hezkuntza-zentroa autoestimu baxukoek euren buruaz duten balioespen-sentimenduak hobetzen?

vii. Erabiltzen al da ikasleen familiek ematen duten informazioa ikasle horiek sor dezaketen poz-eza eta diziplina-eza konpontzeko?

viii. Saiatzen al dira ikasle guztiak hezkuntza-zentroko beste ikasleen poz-eza eta diziplina-eza gainditzen?

ix. Tutoretzapeko egoeran dauden ikasleei ematen zaizkien laguntzek motibazioa ematen al diete hezkuntza-lorpenak eskuratzeko eta ikaskuntzekin jarraitzeko?

x. Tutoretzapeko egoeran dauden ikasleei ematen zaizkien laguntzak hezkuntza-zentroaren eta egoitza edo etxeetako hezitzaileen arteko loturak sortzera bideratuta al daude?

xi. Laguntza emozional eta psikologikoko politikek, lantzen al dituzte jokabide- zein emozio-zailtasun larriko ikasleen ongizatea?

xii. Neurriak hartzen al dira gizonezkoek, emakumezkoek baino lorpen baxuagoak eta jokabide-arazo handiagoak dituztela erakusten duen ohiko joera ebaluatzeko eta joerari aurre egiteko?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.7. Disziplinazko kanporaketa-praktikak gutxitu egin dira*

i. Kontu egiten al da diziplinazko kanporaketa, irakaskuntza- eta ikaskuntza-harremanen gaineko laguntza eta interbentzioaren bidez eten egin daitekeen prozesua dela?

ii. Irakasle, ikasle, guraso eta eskola-komunitateko beste kideen partaidetza duten bilerak al daude, arazoei era malguan aurre egiteko txarrera egin baino lehen?

iii. Kontuan hartzen al dira ikasleen autoestimu baxuak zein euren poz-ezak jokabide-arazoekin zein diziplinazko kanporaketekin duten lotura?

iv. Ikasleen jokaera hobetzera zuzendutako hezkuntza-zentroaren erantzunak, hezkuntza eta birgaitzearekin al daude lotuta, zigorrarekin baino?

v. Aurreikusi egin al da zuzenketa-neurriak burutzeko sistema bat (adibidez, arratsalde batean ikastetxera joan behar izatea konponketa-, garbiketa- edo apainketa-lanak egitera)?

vi. Kasu larria denean, pentsatu al da ikasleak eta bere familiak eskola-kontseiluari barkamena eskatzeko aukera?

vii. Plan argi eta positiboak al daude diziplina-arrazoiak direla-eta kanporatutako ikasleak berriro onartzeko?

viii. Ba al dago politikarik diziplinazko kanporaketa era guztiak gutxitzeko, direla aldi baterako edo behin betikoak, direla formal edo informalak?

ix. Bat al datoz klaustroko kide guztiak kanporaketak, direla aldi baterako edo behin betikoak, direla formal edo informalak, gutxitzearen helburuari buruz?

x. Jotzen al da ikasgelako kanporaketa salbuespenezko praktikatzat, betiere gero ikaslearen eta irakaslearen arteko komunikazioa berreskuratuz?

xi. Gordetzen al dira txosten argiak diziplinazko kanporaketa formal eta informalei buruz?

xii. Aurkezten al zaizkio diziplinazko kanporaketei buruzko txosten erregularrak eskola-kontseiluari?

xiii. Gutxitzen ari al dira diziplinazko kanporaketa formal eta informalak?

## Galdera gehiago

1.- ......................................................................................................................................

2.- ......................................................................................................................................

3.- ......................................................................................................................................

4.- ......................................................................................................................................

5.- ......................................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.8. Klase-hutsegiteak gutxitu egin dira*

i. Aztertzen al dira klasera joatea eragozten duten traba guztiak, ikasleen eta familien jarrerak barne?

ii. Saihesten al du hezkuntza-zentroak ikasleen klase-hutsegiteak erabiltzea kanporaketarako arrazoitzat?

iii. Aitortzen al dira klase-hutsegiteek, intimidazioek edo kidekoen tratu txarrek bakartze sozialarekin duten lotura?

iv. Era positibo batean eta bereizkeriarik gabe erantzuten al dio hezkuntza-zentroak neska nerabeen haurdunaldi-egoerei?

v. Era aktiboan erantzuten al dio ikastetxeak ikasle baten senide baten heriotzari, gaitz kronikoari edo hutsune luzeari bere hezkuntza-zentroko partaidetza samurtzeko?

vi. Erregistro argiak al daude hezkuntzako agintariekin negoziatutako ikasle jakin batzuen baimen luzatuei buruz?

vii. Gidak al daude epe luzetan ikastetxera bertaratzen ez direnen esperientzia curriculumaren barnean integratzeko?

viii. Planik al dago klase-hutsegite justifikatu gabeen inguruan irakasle eta gurasoen arteko lankidetza hobetzeko?

ix. Estrategia koordinaturik al dago hezkuntza-zentroaren eta beste kanpo-zerbitzu batzuen artean gai horren inguruan?

x. Sistema eraginkorrik al dago klase-hutsegiteak erregistratzeko eta horietarako arrazoiak ezagutzeko?

xi. Gordetzen al da erregistrorik ikasgai bakoitzean egindako eguneroko klase-hutsegiteen inguruan?

xii. Erabiltzen al dira eguneroko klase-hutsegiteen erregistroak irakasle eta ikasleen arteko harremana eta ematen den ikasgaiarekiko dagoena ikertzeko?

xiii. Hezkuntza-zentroak bildutako datuek zehazki erakusten al dituzte hutsegite «errealak»?

xiv. Hazten ala gutxitzen ari al dira ikasleen baimen gabeko klase-hutsegiteak?

## Galdera gehiago

1.- ..............................................................................................................................

2.- ..............................................................................................................................

3.- ..............................................................................................................................

4.- ..............................................................................................................................

5.- ..............................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**B DIMENTSIOA POLITIKA inklusiboak lantzea**

## B.2. Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea

### *B.2.9. Kidekoen arteko botere-gehiegikeriazko harremanak edo* bullying *delakoa gutxitu egin da*

i. Bat al datoz irakasleak, gurasoak, eskola-kontseiluko kideak eta ikasleak kidekoen arteko botere-gehiegikeria, intimidazioa edo *bullying* osatzen duten faktoreei buruz?

ii. Jotzen al da intimidazioa botere-harreman guztien eratorpen posibletzat?

iii. Kontu egiten al da intimidazioak zerikusia duela hala hitz bidezko eta emoziozko tratu txarrarekin nola indarkeria fisikoarekin?

iv. Ulertzen al da adiskide bat galtzeko beldurra intimidazioa gertatzeko arrazoia izan daitekeela?

v. Kontu egiten al da hezkuntza-zentroko intimidazioa gerta daitekeela ez soilik ikasleen artean baizik eta langileen artean, langile eta ikasleen artean eta langile eta gurasoen artean ere?

vi. Intimidaziotzat jotzen al dira komentario eta jokaera arrazistak, homofobikoak eta ezgaitasunak dituzten pertsonen kontrakoak?

vii. Ba al dago ikastetxearen dokumenturik intimidazioari buruz eskola-kontseiluko kide, langile, ikasle, guraso eta komunitateko beste kide batzuen eskueran, eta zehaztasunez agertzen al dira bertan zein jokaera diren onargarriak eta zeintzuk ez?

viii. Hurbileko gizonezko zein emakumezko pertsonak, al dituzte neska-mutilek eurekin kidekoen arteko botere-gehiegikeriei buruz hitz egiteko eta, dagokionean, laguntza jasotzeko?

ix. Ikasleek ba al dakite norengana jo beldurra sartzen badiete?

x. Ba al daude pertsonak hezkuntza-zentro barnean eta kanpoan langileek eurengana jotzeko beldurra sartzen ari bazaizkie?

xi. Parte hartzen al dute ikasleek intimidazioaren prebentziorako eta berau gutxitzeko estrategiak sortzeko orduan?

xii. Intimidazioari buruzko gertaeren inguruko erregistroak argi eta garbi gordetzen al dira?

xiii. Gutxitu al da intimidazioa?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.1. Unitate didaktikoek ikasleen aniztasuna kontuan hartzen dute*

i. Hobetzen ari al da ikasle guztien ikaskuntza, unitate didaktikoen eta ematen ari diren lezioen bidez?

ii. Prestatzen al dira unitate didaktikoak eta klaseak ikasleen esperientzia-aniztasuna kontuan hartuz?

iii. Egokitzen al zaizkie ikaskuntzen edukiak ikasleen aurretiazko ezagutza ezberdinei?

iv. Islatzen al dituzte klaseek, ikasleek euren zereginak osatzeko dituzten erritmo ezberdinak?

v. Egokitzen al da klaseko metodologia ikasleen artean ikaskuntza-estilo ezberdinak garatu daitezen?

vi. Argi al daude ikasleentzat jardueren helburu pedagogikoak?

vii. Eskatzen al zaie ikasleei, gai bati ekin baino lehen, proposatzen zaienaren zentzua aurkitzeko?

viii. Saihesten al dira kopia mekanikoko jarduerak?

ix. Batzuetan klaseak esperientzia bateratu batetik abiatzen al dira, geroago era ezberdinetan garatuz?

x. Aurreikusten al da banakako lana, binakakoa, taldekakoa eta klase osokoa unitate didaktikoa garatzen deneko une ezberdinetan?

xi. Planteatzen al da unitate didaktikoa era askotako jarduerak egiteko moduan, adibidez, eztabaida, ahozko aurkezpena, idazlana, marrazketa, arazoen konponketa, liburutegiaren erabilera, ikus-entzunezko materialen erabilera, zeregin praktikoak egitea edo informazioaren teknologien erabilera?

xii. Uzten al du curriculumak ikasgai ezberdinak era askotan ikasten, adibidez alfabetatze trinkoa edo atzerriko hizkuntzen ikastaroak?

xiii. Ba al dituzte ikasleek euren zereginak era askotan egiteko aukerak, adibidez euren lehenengo hizkuntza itzulpenarekin erabiliz edo marrazki, argazki edo grabazioen bidez?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.2. Unitate didaktikoak ikasle guztientzat ulergarriak dira*

i. Zaintzen al da ahozko eta idatzizko hizkeraren egokitasuna?

ii. Prestatzen al dira klaseak kontuan hartuz hezkuntza-zentrotik kanpo ikasleek aurkitzen duten hizkera?

iii. Esplikatu eta praktikatu egiten al da unitate didaktikoan agertuko den hiztegi teknikoa?

iv. Islatzen al dituzte curriculum-materialek ikasle guztien testuinguruak eta esperientziak?

v. Klaseak era berean al dira ume guztientzat ulergarri, horietan era askotako jarduerak sartzen direlako eta bi generoen interes-aniztasuna kontuan hartzen delako?

vi. Aukerarik al dago bigarren hizkuntzatzat euskara/gaztelania ikasten ari diren ikasleentzat euren ama-hizkuntzan hitz egin eta idazteko?

vii. Motibazioa ematen al zaie bigarren hizkuntzatzat gaztelania ikasten ari diren ikasleei euren ama-hizkuntzatik gaztelaniara itzultzeko trebetasunak har ditzaten?

viii. Parte har al dezakete ikasleek curriculum-arlo guztietan, adibidez zientzietan eta gorputz-hezkuntzan, euren erlijioaren araberako arropa egokia erabiliz?

ix. Egiten al dira curriculum-egokitzapenak, adibidez artean edo musikan, euren erlijio-sinismenak direla-eta horietan parte hartzeko erreparoa duten ikasleentzat?

x. Ohartzen al dira irakasleak ezgaitasunak edo gaitz kronikoak dituzten ikasle batzuek zereginak burutzeko egin behar duten ahalegin fisikoaz eta horrek eragin diezaiekeen nekeaz?

xi. Ohartzen al dira irakasleak ikasle batzuek egin behar duten adimen-ahaleginaz, adibidez ezpainak irakurri edo ikusmenezko laguntzak erabili behar dituztelako?

xii. Ohartzen al dira irakasleak zenbat denbora gehigarri behar duten ezgaitasunak dituzten ikasle batzuek lan praktikoan tresnak erabiltzeko?

xiii. Ematen al diete irakasleek jarduera jakin batzuetan parte hartu ezin duten ikasleei esperientzia hartzeko edo ulermena izateko modalitate alternatiboak, adibidez zientzietan tresna alternatiboak erabiltzea edo gorputz-hezkuntzan ariketa ezberdinak planteatzea?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.3. Unitate didaktikoek ezberdintasuna hobeto ulertzeko balio dute*

i. Motibazioa ematen al zaie ikasleei eurena ez bezalako iritziak ezagutu ditzaten?

ii. Aukerak ematen al zaizkie ikasleei testuinguru, etnia, ezgaitasun edo generoagatik ezberdinak diren ikaskideekin lan egiteko?

iii. Saihesten al dituzte irakasleek klasismoa, sexismoa, arrazakeria, homofobia edo ezgaitasunak dituzten pertsonen kontrako jarrerak edo bestelako bazterketa-kutsuko komentarioak, eta beraz, euren ikasleentzako eredu positibo moduan jokatu?

iv. Frogatzen al dute irakasleek klasean garatzen diren eztabaidetan bestelako iritziak errespetatu eta balioesten dituztela?

v. Jotzen al dira ikasleen familia-hizkuntza ezberdinak kultur aberastasun bat?

vi. Eztabaidatzen al da klasismo, sexismo, arrazakeria, ezgaitasunagatiko bazterkeria, homofobia edo erlijio-aurreiritziei buruz?

vii. Egiten al da curriculumean testuinguru, kultura, etnia, genero, ezgaitasun, sexu-orientazio edo erlijio ezberdintasunen arteko ulermena garatzeko ahalegina?

viii. Irakasten al zaie ikasleei kulturen aniztasunak norbere hizkuntzan eta curriculumean duen eragina?

ix. Aukerak al dituzte ikasle guztiek munduko beste toki batzuetako neska-mutil eta gaztetxoekin komunikatzeko?

x. Sustatzen al dira enpatia garatzeko jarduerak (rol-jokoak, simulazioa, kasuen azterketa…)?

xi. Ematen al du curriculumak zenbait gizatalderen zapalketari buruzko ulermen historikorik?

xii. Jartzen al dira auzitan estereotipoak curriculum-materialen eta ikasgelako eztabaiden bidez?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.4. Ikasleei euren ikaskuntzan aktiboki parte harrarazten zaie*

i. Ematen al zaie motibazioa ikasleei euren ikaskuntzaren arduradun egin daitezen?

ii. Ematen al zaie ikasleei informazio argia ikaskuntzaren espektatibei buruz klaseetan?

iii. Laguntzen al diete ikasgelako giroak, bere antolamenduak eta bertako beste baliabide batzuek ikaskuntza autonomoari?

iv. Bultzatu egiten al da ikasleen artean gero eta autonomia gehiago hartzea euren lana planeatuz, aritu bitartean euren zeregina erregulatuz eta euren jarduna zein lortutako emaitzak ebaluatuz, etorkizunean hobeto ibiltze aldera?

v. Nahikotzat jotzen al da ikasleei euren ikaskuntzan laguntzeko emandako laguntza eta sostengua, aldi berean euren ezagutzan eta eduki badauzkaten trebetasunetan sakontzeko?

vi. Azaldu egiten al zaizkie programazioak ikasleei, hala nahi izanez gero, erritmo azkarrago batez lan egin dezaten?

vii. Irakasten al zaie ikasleei ikertzen eta gai bati buruzko txosten bat osatzen?

viii. Gai al dira ikasleak liburutegia eta baliabide teknologikoak euren kabuz erabiltzeko?

ix. Irakasten al zaie ikasleei klaseetan zein liburuetan apunteak hartzen eta euren lana antolatzen?

x. Irakasten al zaie ikasleei euren lanen ahozko zein idatzizko aurkezpenak egiten, baita beste forma batzuena ere, banaka zein taldeka izanda ere?

xi. Ematen al zaie motibazioa ikasleei ikasitakoa ahoz zein idatziz laburtu dezaten?

xii. Irakasten al zaie ikasleei euren zein ikaskideen probak eta etsaminak berrikusten?

xiii. Kontsultatzen al zaie ikasleei behar duten laguntzari buruz?

xiv. Kontsultatzen al zaie ikasleei klaseen kalitateari buruz?

xv. Parte harrarazten al zaie ikasleei ikaskideentzako material didaktikoaren diseinuan?

xvi. Ematen al zaie modua ikasleei jarduera ezberdinen artean aukeratzeko?

xvii. Identifikatu eta erabiltzen al dira ikasleen interesak horien bidez curriculuma eraikitzeko?

xviii. Balioetsi eta kontuan hartzen al dira ikasleen aurretiazko ezagutzak?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.5. Ikasleek lankidetzan ikasten dute*

i. Kontu egiten al dute ikasleek laguntza eskaini eta jasotzea ikasgelaren jardueraren ohiko zeregina dela?

ii. Ezarri al dira arauak ikasleek gainontzeko ikasle eta irakasleei hitz egin, entzun eta argibideak eskatzeko txanda hartzen jakiteko?

iii. Irakasten al zaie ikasleei ikaskideekin lankidetzan aritzen?

iv. Erabiltzen al da era sistematikoan eta erregularrean lankidetzazko ikaskuntza-metodoak (kidekoen arteko tutoretza, ikerketa-lana, puzzlea, elkar-ikaskuntza…)?

v. Konpartitu nahi al dituzte ikasleek euren ezagutza eta trebetasunak?

vi. Uko egiten al diote ikasleek laguntzari era egokian, berau behar ez dutenean?

vii. Taldekako jarduerek modua ematen al diete ikasleei zereginak banatzeko eta ikasi dutena konpartitzeko?

viii. Ikasten al dute ikasleek txosten bateratu bat prestatzen, taldearen ekarpen ezberdinetatik abiatuz?

ix. Klaseko beste ikaskide batzuk elkarrekin muturtuta daudenean, laguntzen al dute ikasleek lasaitzen, xaxatu ordez?

x. Ulertzen al dute ikasleek, ikasle bakoitzak garrantzi bera duela irakasleen atentzioa jasotzeko orduan?

xi. Konpartitzen al dute ikasleek, ikaskide batzuek klasean dituzten zailtasunetan laguntzeko erantzukizuna?

xii. Parte hartzen al dute ikasleek besteen ikaskuntzaren ebaluazioan?

xiii. Elkarri laguntzen al diote ikasleek hezkuntzazko xedeak ezartze aldera?

xiv. Ba al dakite ikasleek besteei laguntzea ikasteko modu eraginkor bat dela?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.6. Ebaluazioak ikasle guztien lorpenak motibatzen ditu*

i. Islatzen al dituzte ebaluazio-txostenek ikasleek euren trebetasun eta ezagutza guztietan egindako lorpenak, adibidez hizkuntzen ezagutza, bestelako komunikazio-sistema, zaletasun zein interes eta lan-esperientzietan?

ii. Erabiltzen al dira beti ebaluazioak (estatuko hezkuntza-administrazioek proposatutako ebaluazioak barne) hezibidetzat, ikastetxeko ikasleen ikaskuntza hobetu dadin?

iii. Erabiltzen al dira ebaluazio-estrategia ezberdinak ikasle guztiek euren trebetasunak erakusteko modua eduki dezaten?

iv. Aukerak al daude, besteekin lankidetzan, egindako lana ebaluatzeko?

v. Ulertzen al dute ikasleek zergatik izan behar duten ebaluatuak?

vi. Itzultzen al zaie ikasleei informaziorik, ikasi dutenaz eta jarraian egin behar dutenaz ohartzeko?

vii. Sustatzen al da ikaskuntzako autoebaluazioa eta autorregulazioa?

viii. Ezar al ditzakete ikasleek euren etorkizunerako helburu argiak?

ix. Egiten al da ikasle-talde ezberdinen (mutil, neska, gutxiengo etnikoko ikasle eta ezgaitasunak dituzten ikasleen) lorpenen jarraipena, zailtasun bereziak detektatu eta horiek konpontze-bidean jartzeko?

x. Erabiltzen al dira ebaluazioen emaitzak irakasleen programazioetan aldaketak sartzeko eta era horretan detektatutako premietara egokitzeko?

xi. Ba al dakite ikasleek euren aurrerapen pertsonala balioesten dela taldearekiko edozein konparazioren gainetik?

xii. Erabiltzen al dira talde-laneko oharrak ere ikasleen banakako aurrerapena balioesteko?

xiii. Egiten al da txosten pertsonalizaturik kualitatiboki ikasleen aurrerapena era positibo batean agertzeko?

xiv. Ikasle gehienek lortzen al dute derrigorrezko hezkuntza gainditzea?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.7. Ikasgelako disziplina elkarren errespetuan oinarritzen da*

i. Motibatu egiten al du disziplinaren ikusmoldeak autodiziplina?

ii. Irakasleek egiten al dute ahalegina elkar errespetatzeko, haserretu ordez?

iii. Irakasleek elkartrukatu eta bateratzen al dituzte euren ezagutzak eta trebetasunak poz-eza eta desordena gainditzeko?

iv. Sendo eta esplizituak al dira ikasgelako jokabide-arauak?

v. Bultzatzen al dira ikasleak ikasgelako zailtasunak konpontzen laguntzera?

vi. Eztabaidatzen eta adosten al dira ikasleekin ikasgelako jokabide-arauak?

vii. Kontsulta egiten al zaie ikasleei ikasgelako giro soziala hobetzeko moduaz?

viii. Kontsulta egiten al zaie ikasleei ikaskuntza-arreta hobetzeko moduaz?

ix. Ikasgelan heldu bat baino gehiago badago, konpartitzen al dituzte ardurak klaseen kudeaketa arina izan dadin?

x. Argi al daude muturreko jokabideei aurre egiteko prozedurak, betiere ikasle eta irakasleentzako ulergarri izateko moduan?

xi. Ohartzen al dira irakasleak ez litzatekeela bidezkoa gizonezkoek eta emakumezkoek tratamendu desberdina jasotzea?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.8. Irakasleek lankidetza-giroan planeatu, berrikusi eta irakasten dute*

i. Konpartitzen al dute irakasleek ikasgelako eta etxeko zeregin edo «lanen» programazioen plangintza?

ii. Parte hartzen al dute irakasleek irakaskuntza konpartituko jarduueretan?

iii. Jarri al da denbora-tarterik ikasgelan elkarrekin lan egiten duten irakasleen koordinaziorako?

iv. Erabiltzen al da irakaskuntza konpartituko ikasleen ikaskuntzari buruzko hausnarketak elkartrukatzeko?

v. Onartzen al dituzte irakasleek lankideen komentarioak, adibidez ondorengo gaietan: klasean erabilitako hizkeraren argitasuna edo ikasleen partaidetza programatutako jardueretan?

vi. Aldatzen al dute irakasleek euren irakasteko era, lankideek emandako aholkuei erantzunez?

vii. Konpartitzen al dute ikasgelako irakasleek eta laguntzako irakasleek ikasleekin banaka, taldeka edo klase guztiarekin egindako lana?

viii. Ematen al dute elkarrekin lan egiten duten irakasleek ikasleentzako lankidetza-eredua?

ix. Irakasleak elkarrekin konprometitzen al dira arazoak era bateratuan konpontzeko orduan, ikasle baten edo ikasle-multzo baten aurrerapena kezka-iturri bihurtzen denean?

x. Lankidetzan lan egiten duten irakasleek, banatzen al dute ikasle guztien partaidetza bermatzeko erantzukizuna?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.9. Irakasleak ikasleen ikaskuntzan eta partaidetzan laguntzen saiatzen dira*

i. Betetzen al dute irakasleek eta espezialistek ikasle guztiek euren klaseetan ikasteko duten erantzukizuna?

ii. Egiaztatzen al dute irakasleek ikasle guztiek klaseetan egiten duten aurrerapena?

iii. Erreparatzen al diete irakasleek era berean ikasleei, euren generoa edo jatorri etnikoa zein den aparte utzita?

iv. Sentitzen al dute ikasle guztiek bidezko tratua ematen zaiela?

v. Saiatzen al dira irakasleak ikaskuntzari eta jasotako laguntzari buruz ikasleek duten ikuspuntua hartzen?

vi. Kezkatzen al dira laguntzako irakasleak ikasle guztien partaidetza areagotzen?

vii. Helburutzat al dute irakasleek euren laguntza zuzenetik ikasleak ahalik eta independenteenak izatea?

viii. Bilatzen al dute irakasleek banakako laguntzarako alternatibarik, adibidez unitate didaktikoak eta baliabideak planeatzearen bidez, edo taldekako irakaskuntza erabiliz?

ix. Jotzen al da beste pertsona helduen presentzia (senideak, praktiketako irakasleak...) curriculumari buruz eta ikasle guztientzako irakaskuntza-metodoei buruz hausnartzeko aukeratzat?

x. Kontu egiten al da ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ezabatzeko ahaleginen bidez ikasle guztiei ikaskuntza hobetzeko aukera ematen zaiela?

## Galdera gehiago

1.- ........................................................................................................................

2.- ........................................................................................................................

3.- ........................................................................................................................

4.- ........................................................................................................................

5.- ........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.10. Laguntzako irakasleak ikasle guztien ikaskuntza eta partaidetza errazten saiatzen dira*

i. Parte hartzen al dute laguntzako irakasleek ikasgelako programazioan eta dagokion berrikuspenean?

ii. Ematen al zaie laguntzako irakasleei curriculum-arlo edo -maila bat, ikasle jakin batzuk baino?

iii. Kezkatzen al dira laguntzako irakasleak ikasle guztien partaidetza areagotzen?

iv. Laguntza pedagogikoa ematen duten irakasleek helburutzat al dute ikasleak euren laguntza zuzenetik ahalik eta autonomoenak izan daitezela?

v. Errazten al dute irakasle horiek ikaskuntzarako zailtasunak dituzten ikasleek elkarri lagundu edo babestea?

vi. Kontuz ibiltzen al dira laguntzako irakasleak, gazteek euren kidekoekin dituzten harremanetan ez sartzeko?

vii. Ba al dute laguntzako irakasleek, burutu beharreko eginkizun eta zereginei buruzko deskribapen argi eta zehatz bat?

viii. Eskatzen al da laguntzako irakasleen iritzia, bete behar duten lanpostuko zereginen izaerari buruz?

ix. Ba al du ikastetxeak jarraibide argirik ikasgelako eta laguntzako irakasleen arteko elkarlana antolatzeko eta burutzeko erari buruz?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.11. «Etxerako lanek» guztion ikaskuntzan lagundu egiten dute*

i. Izaten al dute etxerako lanek helburu pedagogiko argi bat beti?

ii. Lotzen al dira etxerako lanak ikasle guztien gaitasun eta ezagutzekin?

iii. Ematen al da aukerarik etxerako lanak era ezberdinetan aurkezteko?

iv. Areagotzen al dute etxerako lanek ikasle guztien gaitasun eta ulermena?

v. Laguntzen al diote irakasleek elkarri ikasleek egin beharreko etxerako lanak prestatzeko orduan horiek erabilgarriak izan daitezen?

vi. Eskaintzen al zaizkie ikasleei etxerako lanak egiteko moduari buruzko argibide nahikoak klaseak amaitu baino lehen?

vii. Aldatzen al dira etxerako lanak ikasleen iritziz ikasle batzuentzako adierazgarriak edo egokiak ez badira?

viii. Eskaintzen al zaie ikasleei etxerako lanak hezkuntza-zentroan egiteko aukera, hala bazkalorduan nola eskola-ordutegitik kanpo?

ix. Integratzen al dira etxerako lanak hiruhilabeteko/ikasturteko programazioan?

x. Etxerako lanek motibatu egiten al dituzte ikasleak euren ikaskuntzari buruzko erantzukizuna har dezaten?

xi. Etxerako lanak jartzen dutenek, ziurtatzen al dute gurasoen/tutoreen laguntzarik gabe egin daitezkeela?

xii. Aukerak al daude ikasleek etxerako lanetan elkarri laguntzeko?

xiii. Aukera al ditzakete ikasleek euren etxerako lanekin lotutako zereginak, hartara euren interesak garatu ahal izateko?

xiv. Erakusten al zaizkie familiei etxean seme-alaben eskola-lana errazteko erak?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.1. Ikaskuntza-prozesua prestatzea

### *C.1.12. Ikasle guztiek jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoetan parte hartzen dute*

i. Ba al dago komunitatean ikasle guztien interesentzako behar besteko eskaintza zabala?

ii. Ba al dago garraiorik eskueran urrutitik lekualdatu behar diren edo mugikortasun urrikoak diren ikasleei eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko aukera emateko?

iii. Animatzen al dira ikasle guztiak musika, antzerki eta jarduera fisikoetan parte hartzera?

iv. Aukerak al daude gehienetan genero bakar bat nagusitzen den jardueretan, adibidez dantzan, futbolean edo informatika-taldeetan, neskek eta mutilek parte har dezaten?

v. Aukerak al daude sexu bakarreko taldeentzat, kultur, erlijio eta abarreko arrazoiengatik jarduera mistoak debekatuta badaude?

vi. Adierazten al zaizkie zenbait talderi jolasgunea ez monopolizatzeko (adibidez, futbolean aritzea gustatzen zaienei)?

vii. Irakasten al zaie ikasleei trebetasun-maila ezberdinetako neska-mutilak kontuan hartuko dituzten jokoak?

viii. Gertaera jakin batzuetan euren klaseak ordezkatzeko aukeratu diren ikasleek, islatzen al dute ikastetxeko ikasleen aniztasuna?

ix. Ikastetxea ordezkatzeko aukeratu diren ikasleek, islatzen al dute ikastetxeko ikasleen aniztasuna?

x. Eskola-bidaiek, atzerrirako bisitak barne, ikastetxeko ikasle guztientzako egokiak al dira, euren errendimendu akademikoak zein den edo ezgaitasun bat duten gorabehera?

xi. Ematen al zaizkie ikasle guztiei ikastetxeaz kanpoko jardueretan parte hartzeko aukerak?

xii. Ematen al zaizkie ikasle guztiei tokiko komunitateei lagundu eta horientzat onuragarriak izateko jardueretan parte hartzeko aukerak?

xiii. Sustatzen al dute gorputz-hezkuntzako joko eta jarduerek kirola eta guztien gaitasun fisikoak?

xiv. Kirol jardunaldiek kontuan hartzen al dituzte guztiek parte hartu ahal izateko jarduerak, norberaren gaitasun-maila gorabehera?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

5.- ..........................................................................................................................

# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.2. Baliabideak mobilizatzea

### *C.2.1. Ikastetxeko baliabideak bidezko eran banatzen dira inklusioan lagunduz*

i. Ikastetxean, banatzen al dira baliabideak era zabal eta bidezko batean?

ii. Argi al dago adin eta ikaskuntza-maila ezberdinetako ikasleei laguntzeko baliabideak nola esleitzen diren?

iii. Ikaskuntza autonomoa sustatzeko erabiltzen al dira baliabideak?

iv. Ohartzen al dira irakasleak «hezkuntza-premia berezietakoa» sailkatutako ikasleei laguntzeko ikastetxeari esleitutako baliabideez?

v. «Hezkuntza-premia bereziei» aurre egiteko baliabideak, erabiltzen al dira ikastetxeak aniztasuna zaintzeko duen gaitasuna handitzeko?

vi. Laguntzarako baliabideak, erabiltzen al dira ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak prebenitzeko eta ikasleen sailkapena gutxitzeko?

vii. Irakasleek erregularki berrikusten al dute baliabideen erabilera, era malguan balia daitezen ikasle guztien premia aldakorrei aurre egiteko?

## Galdera gehiago

1.- ......................................................................................................................................

2.- ......................................................................................................................................

3.- ......................................................................................................................................

4.- ......................................................................................................................................

5.- ......................................................................................................................................

Aurkibidea



# ADIERAZLEAK ETA GALDERAK

**C DIMENTSIOA PRAKTIKA inklusiboak garatzea**

## C.2. Baliabideak mobilizatzea

### *C.2.2. Komunitatearen baliabideak ezagutu eta aprobetxatu egiten dira*

i. Erregularki eguneratzen al da herrian erregistro bat ikaskuntzari lagundu ahal dioten baliabideei buruz?

Hor sar daitezke:

– Herriko museo eta artxibategiak
– Arte-galeriak
– Herriko zentro erlijiosoak
– Talde komunitarioen eta elkarteen ordezkariak
– Udala
– Autonomia Erkidegoko agintariak
– Herriko enpresak
– Ospitaleak
– Zaharren egoitzak
– Polizia-zerbitzuak
– Suhiltzaile-zerbitzuak
– Boluntario-elkarteak
– Beste batzuk
– Kiroldegiak eta kirol-instalazioak
– Parkeak
– Foru Aldundia
– Politikoak
– Gutxiengo etnikoetako liderrak
– Sindikatuak
– Herriko aholkularitza-elkarteak
– Liburutegiak
– Herriko eta landako abeletxeak
– Ondarearen eta eraikin zaharren saila
– Tren-geltokiak, aireportuak eta autobus-zerbitzuak
– Ikasteko zentroak
– Beste ikastetxe eta unibertsitateak

ii. Herriko erakundeetako kideek laguntzen al diote ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari?

iii. Erabiltzen al dira familiak eta komunitateko beste kide batzuk ikasgelaren laguntzarako baliabide izateko?

iv. Erabiltzen al dira hezkuntza-xedeetarako komunitateko hainbat profesional (gizarte-zerbitzuak, bake-epailea, udaltzaingoa,…)?

v. Ikastetxean, parte hartzeko modua ematen al zaie ezgaitasunak dituzten helduei ikasleei laguntzeko?

vi. Ingurunean lan egiten duten pertsonek jokatzen al dute zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko tutore moduan?

vii. Eskatzen al zaie ikasleei klaseko jardueran material erabilgarriak ekartzeko?

## Galdera gehiago

1.- ..........................................................................................................................

2.- ..........................................................................................................................

3.- ..........................................................................................................................

4.- ..........................................................................................................................

